

Martin Aranburu

**ERRIKO JENDEENTZAT
OSASUN LEGEAK
ETA
MEDIKANTZAKO
ARGIBIDEAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Erriko Jendeentzat Osasun Legeak eta
Medikantzako Argibideak* (Isabel Arrigainen edizioa),
Martin Aranburu eta Manuel Bago Agirre. Euskal
Editoreen Elkarte, 1994

<http://klasikoak.armiarma.com>

**ERRIKO JENDEENTZAT
OSASUN LEGEAK
ETA
MEDIKANTZAKO ARGIBIDEAK**

EUSKAL-ERRITARRAI ESKENIAK
DEBAKO ETA ITZIARKO MEDIKU JAUN
D. MARTIN ARANBURU
ETA D. MANUEL BAGO AGIRREK
IPINIAK

BERGARAN:

J.F. Lopez-en moldiztegia
1899garren urtean

ESKEÑIA
GIPUZKOAKO DIPUTAZIO GAINDIARI
eskeintzen diote lan baliyo txikiko au
Euskal-Erriari dioten naitasunaren señaletzat
Liburu-Egilleak

IRAKURLEARI HITZ BI

Gutxi esan bear diozkagu liburu txiki au, naiz dala denbora pasa besterik ez bada ere, bere eskuetan artutzen duanari. Bertan berean esaten degun bezela gure asmoa ez da besterik izandu, ez bada erriko jendeai erakustea zenbait gaxo edo gaitz maizen eta ugarien sortutzen diranak, zer nolakoak izan oi diran eta nola alde egiñ litzaiokean gordeaz bear bezela osasun legeak; eta naiz ez izan gauza balio aundikoa gure liburutxo au, beintzat bera egitera eraman gaituan asmoa, uste degu dala ontzat artzekoa. Ez degu ametsik egiten bear dan bezela atzen eman diogula gure lanari, zergatik badakigu gure indarrak laburrak dirala eta ez dirala onenbesteraño iristen: bañan esaera oi dan bezela errien ongi izatea eta beren argitasuna edo jakinduria badijoaz alkarren parean, izanik erri bat aiñbestean ondasunez betea non dagoan jakinduriaz apaindua, guk gure aldetik egiñ degu alegiña onetaratzeko, pixkatxo batean ez bada ere, gure euskalerrria, ekarririk ondar ale bat naiz izan bakarrik, ondasunezko nai gendukean etxe au jasotzeko. Bada-kigu ere aje gabekoa ez dala gure liburutxo au, eta

oek erakusten badizkigu esamiñatzalle ondradu eta leialak, beti egongo gera gu erreparo oek bear dan bezela aintzakotzat artzeko; bañan beste asmo txar edo zitalarekin orretara iñork asi nai badu lenago aitortzen ditugun ajeak azaltzen, orduan uzten degu orrelako zoko-miatzalle azkarrarentzat guk egiñ izan al degun bañan lan ohea egiñ dezan eskubidea.

Lenago esan degun bezela euskal-errian zenbait medikantzako eta gaxoen gañean jakitea ona dan gauzak zabalduzteagatik asiera eman diogu esku-artean daukagun liburutxo oni, eta onegatik erderaz egin deguna biurtu degu euskerara esleituaz gure probintzi Gipuzkoako onetan usariyo dan itzkuntza zergatik uste izan degun au geienenbat itz egiten dala euskal errian eta ongiena adierazotzen dituala erderaz ipiñitako gauzak. Onetarako baliyatu gera garbien eta errazen euskal-erriko jendea konturatu litekean itzetatik, osoro eta ez itzez itz erdaldunean ipiñi deguna euskerara biurtuaz, baizik iritzi diogun alderdirik errazena billatuaz gure asmoan bear dan argibidea emateko: eta au bera esan bear degu eskribitzearen gañean ere, bada aukeratu degu lenagoko usariyo zarra eta ez gaurko egunean jartzen dituzten letra

moduak, baizikan Larramendik, Iturriagak eta beste euskal maisu jakintsu aek oitura izan zutena bera.

Onenbesterekiñ gure liburutxo onek arkitutzen badu euskal-erriko jendearen aldetik ongi-etorririk txikiena bada ere, gauza au izango litzake geienenbat desio lutekeana eta pozgarririk aundiena artu dezake-teana

LIBURU-EGILLEAK

LENDABIZIKO ARGIBIDEA

*Zer gauza dan osasuna eta
zer dan gaitza edo gaxoa.-
Zergatik eta nola galdu lenengoa
eta bigarrena sortu litekean.-
Zapamorroak edo gaitz sortzalle biziak.-
Erremedioak zer diran, eta gaxoai
aurreak artzeko beste beargiñak.*

Egiaz gure indarrai dagozkioten bañan lan aundia-
goak azaltzen dira gure begien aurrean asiera argibi-
de onetan ematen diogun lanari ekitean, naiz dala
egin bear ditugun itz bideak diran bezelakoak diralako
eta bai eta ere berai eman bear diogun alako itxura
modua, non kendurik gabe berez duten izaera jakin-
dekoa, egon ditezen edozeiñ lan oetan oitu gabekoa-
ren alkantzuan naiz izan oek bein ere ezer ikasi gabe-
koak: edo bai eta ere izanagatik liburuetan oitutako-
ak, ez diran beinzat medikantzako gañean itz egiten
duten aetan.

Bañan nola uste degun gauza ona dala zerbait
ezaguera edukitzea liburu au eskeintzen diogun jen-

deak, aurrenengo gauza jakin bear batzuen, naiz eta guk itxura gabe berak izkeratu daukagun asmo egiñala guztiakikoa dala medioz, zabaltzeko emko jende artean emen esan bear ditugun esatekoak, barkatuko zaigula uste degu, bada oek izandu dira zenbait gizon jakintsuren arrear beiñ bañan geiagotan zer itzegiñik asko eman izan dutenak. Orrela gertatzen zaigu esan nai degunean zer gauza dan osasuna eta zer dan gaitza edo gaxoa: bada izanik bat eta bestea begien aurrerako itxurarik gabeko izate modu batzuek, nolakoak diran adierazotzea gure liburu irakurleai ez da gauza erraza, alegiña egingo badegu ere puntu au bear bezela argitaratzen.

Izanik osasuna *gorputzak eta beraren izate moduari dagozkien gauzak ongi alkar artutzen duten denbora bitartea*, esan liteke au gertatzen ez dan guztian gaxorik dagoala bera: au da, izaera modu au litzakeala *gaitza* deritzen dioguna; bañan ez dira gauza oek beti artu izandu oraiñ esan degun moduan.

Naiz dala osasuna eta naiz gaxoa edo gaitza, ez dira esan degun bezela berez itxura jakiñ bat duten gauza batzuek, baizikan gorputzaren izate moduak, eta beragatik gorputzaren goraberaren mendean egon bear dutenak. Eta ala, naiz antziñako denboren

batzuetan uste izan bazuten gure gorputzaren osasunean eta gaxorik egotean zeukatela zer ikusi zenbait ispiritu edo beste munduko gaitzkiñak, eta naiz eta gaurko egunean ere egon sinismena gauza oei ematen dioten zenbait koitadu eta gizagaxo, ez goaz emen denborarik galtzera bear duten erantzueraz ez bidezko gauza oei ematen.

Bañan naiz ez aintzakotzat artu, artutzen ez degun bezela, zenbaiten pensakizun itxura gabeko auzo gaitza edo gaxoa izateko moduaren gañean, konturatu bear degu ere ez dirala gizon jakintsuak egon denbora guztietan gauza onen gañean iritzi modu batean guziak, bada zer nola izan oi diran berak argitaratu nai izan dituztenean, erabaki dute bi alderdi banakotan gaitzaren izaera nolakoa dan.

Batzuentzat izango litzake gaxoa, gure gorputzaren izatearen giyatzalle dagoan gauza arrek (eta zeña naiz ez ikustekoa izan daukagun bakoitzak berekiñ), eduki litzakean okertasunak: da esatea, gorputzaren barruan dagoan agintari eta gobernatzalle baten antzera ipiñitako indar bizi ura, zeñaren bitartez daukagun izaera eta gorputzak egiten dituan mudantza guziak, okertzen danean edo bear dan zuzentasunean

ez dagonean, sortutzen dala gaitza edo gaxoa deritzen dioguna.

Orain esan degun dotriña onen aurrean dago berriz beste alderakoa zeñarentzat gaitza izango litzakean gorputzaren pusketan beretan, edo odol eta onen antzeko gorputzak dauzkan korrituaz dabiltzan gauza bustikorretan sortu litezkean okertasunak edo ez bideak: da esatea, lenengoak uste izan dute dala gaitza ez ikusi eta ez ikutu litekean izate modu bat; eta bigarrenagoak berriz, begiakin eta eskuakin kargu egin giñezken moduzko gauza bat.

Ez dagokigu guri leku onetan ematea iritzi bat esandako bi dotriña modu oetatik zeñi derizkiogun onena; eta izan dezaten gure irakurleak gauza oen guzien argibidea, esan bear degu badirala berriz beste batzuek zeñak konponziyo bat bezela bi dotriña aekin egiñ, eta bakoitzetik zerbait artuaz, izendatzen duten gaitza esanaz dala batzuetan gorputzeko izaeran eta besteetan beraren pusketan sortu oi dan okertasun bat: eta au da gaurko egunean gizon jakintsurik geien sinismena. Esan degun ezker itz labur batzuetan zer nolakoizat artu izan duten gizon jakintsuak gaitza edo gaxoa, gauza egokia derizkiogu orain esatea beste batzuek zer izan ote litezkean *gaitzari sortuera*

eman lezaioteken gauzak onetzaz arturik edozein izate artaratu lezakeana. Esaera onen bidez kontu atera besterik ez daukagu zenbateraño iritxi litezkean eta zenbat modutakoak azaldu izate modu oek, zeñak izendatzen ez geran asiko gu emen; bañan emango degu ere aditzera labur bat puntu onen gañean.

Bertatik ikusten degu badirala gaitzari sortuera eman lezaiotekean gauza oetan batzuek gorputzetik kanpora daudenak eta besteak berriz gorputzaren barruan bertan arkitzen diranak. Onda bada iñoiz aizeak ekarri lezakean kalte bat edo jan edo eranak sortu lezakeana, eta burni, arri, edo makilla eta oen antzerakoak egin litzakean okerrak gure osasunean, esango degu dirala gaitz sortzalle gorputzetik kanpoan izaera daukatenak; eta bildurtu bategatik edo gauza txar baten entzueran edo naigabe bategatik gaxoa etortzen danean esango degu gorputz barruan bertan sortutakoa dala gaitzaren izaera; emendik dator bada gaitzari sortuera ematen dioten gauza oei izendatzea *kanpokoak* batzuei eta *barrungoak* besteai. Era berean ikusiko degu gaitzari sortuera ematen dioten gauza oetan batzuek beti gaitz jakiñ bat sortutzen dutela eta beste batzuek berriz sortutzen dituztela beste modu baten bitartez ere sortu litezkean gaitz

edo gaxoak: egin zagon kontu, naparrei edo baztan-gari sortuera ematen dionak, beti gaitz au bera piztu-ko du; bañan aize otz batek, batzuetan ez tul bat, bes-teetan perlesi bat, eta beste iñoiz urdalleko ondoez bat ekarri lezake: au da, ematen diola izaera gaitz bati, zeña beste modu batez ere sortua izan litekean: eta emendikan datoz beste bi izate moduko gaitz sor-tutzalleak, zeñai deritzen diogun *banatikoak* batzuei eta *askotakoak* besteai.

Ez goaz aurrerago itz bide onetan izendatzera gai-tzari sortuera eman lezaiotekean gauza guztiak, zer-gatikan au da egiteko bat medikantzako liburu azi-batena, eta ez gure labor onena zeñatan eziñ egin gentzake aitortutzea besterik puntu oek; eta onela, begiratu txiki bat emanik berai, esan bear degu gai-tzari sortuera ematen dioten gauza kanpokoak dato-zela, aizearen, edo busti-legorraren, edo otz beroaren, edo bizilekuko gora berak gatik; eta oek zer eta nola diran medioz aldi batzuetan, era berean sortutzen dituztela gaitz gutxi edo geiago. Bai eta ere dira gauza oetan izendatu bear diranak, jana eta erariak, eta jan konpongarrak: janitzeko arropak, eta itz batean, kanpoko gauza gure gorputzaren gañean kolpez edo indarrez zerbait egin lezatekean guziak.

Gaitzari izaera eman lezaketeen gorputz barrunbeko gauzen artean izendatu bear ditugu, jatorria edo gurasbidea, gizon edo emakumea izatea, gaztetasuna eta zardadea, indarren neurria, eta bakoitzak eduki lezazkean usariyoak eta lantegiak; bada gauza oek guziak bat banaka eta oraindik geiago batzuek alkar-ganatzen diranean, daukate zer ikusi aundia gaxoari asipidea ematen.

Gaitz sortutzalle *banatikoak* izendatu ditugun aetan, batzuek ematen diote izaera gizon edo emakume batean bakarrean azaldu litekean gaxoari izan gabetanik au pegakorra iñorentzat, nola diran *mene-noak* eta *pozoiak*, eta lur eta aize usteldutakoak sortutzen dituzten gaitzak; bañan beste batzuetan sortutzen dituzte ere gaitz pegakorrak, datozenak txertu baten antzera nola diran naparrei edo baztanga, txakur amorratuen gaitza, lipuba, eta onela beste asko antz onetakoak.

Azkenik, esaten ari geran gaitz sortutzalle oetan badira beste batzuek zeñai deitu diogun *zapamorroak*, eta jaio eta bizi litezkeanak naiz gorputzetik kanpoan nola bere barrunbean; izanik ain txikiak eta ain izugarrizko ugariak, non onen bidez gaxoa sortutzeko diña diran, alako moduan ezik gaurko egunean mediku

guztien lan egiteak eta gauzak argitaratu naiak dijoazen oen ondotik eta oek sortutzen dituzten gaxoak nolakoak diran ikastearen ondoren. Gaurko egunean jakiñ dan bezela jakiteak zer diran eta nolakoak aitortzen ditugun *zapamorro* oek, asko eta asko aurreratu erazo du medikantza bere bideetan; bada zenbait gaxoren argibideak lenago zer eta nola ziran iñork ez zekizkienak, gaur argitaratu dira eta onen bidez bai eta ere ipiñi sendatutzeko erremedioak nola gertatu dan *garrotilloa* sendatzeko arekin eta bai eta antz onetara beste batzuekin ere; izanik aurrerako denboretan iñolaz ere bide onetatik etorri bear zaizkigun ondasunak gaitz asko eta asko erremediatzeko artarako zenbait gizon jakintsu egiten ari diran saioen bitartez.

Azkenik gure irakurleai argitaratzeko liburu onetan aitortu bear ditugun izkuntza batzuek esango degu zer bait zer gauza diran *medikantzak* eta *gaxoai aurreak artzeko beargiñak*.

Naiz eta gauza oen aitormena eduki duten mediku guziak egon ez diran uste batean erremedioak zer izan litezkeanaren gañean, guri ez dagokigu emen esatea, ez bada eduki bear dala erremediotzat *edozein gauza gaxorik dagoanak artu al dezakeana, zeña-*

ren bitartez berari osasuna biurtu litzaiokean. Nola bai eta ere gaxo edo gaitzak dauden bakoitza bere klaseetan ipiñiak, an bera gertatzen da erremedioakin ere, zeñetatik bakoitza dijoan gaitz jakin batzuek zuzentzera. Onela bada, urdallean eta esteen barruan egon litezkean gauzak kanpora botatzeko dago medikantza bat zeñari deituko diogun *ustutzallea* egiten duan bearraren bitartez, eta onek dauzka berriz beste bi izate modu zer eta nola ustutzen dituan esandako gauza aek ikusiaz, au da, aotik edo este loritik, izendatuak, *gorakoak* edo *berakoak* onetako bakoitzerako ematen diran erremedioak.

Era berean beste medikantzak ere dauzkate bakoitzak bere izen jakiñak ipiñi zaiztenak zer eta nola erremedio aetakoak egiten dituzten bakoitzari dagozkion beargiñak, eta ala esaten degu *indarra egiteko erremedioak*, *odola egitekoak*, *izerdia ateratzekoak*, *txixa ugaritzekoak*, eta onela beste guziakin ere.

Esanik utzi degun ezkerro itz labur oetan zer diran medikantzak eta erremedioak, goazen ikustera zer diran osasuna galdu gabe edukitzeko kontuan eduki bear diran egitekoak, zeñak izendatu besterik egin gabe adierazotzen dute zenbaterañoa dan beren egokitasun aundia. Esandako egiteko oek denbora

guzietan eduki izan dute begiramentu aundi bat leku guztietako agintariengandik; eta zerbaiten bear balira beren baliyoa aitortua izateko, asko litzake jakitea dakigun bezela Jaungoikoa beraren Semeak aditzera eman zizkigula bere dotriña zabalduzen ibilli zan denbora artan, ipiñiaz bere legeen artean, madarikatuz bizi modu gaiztoa zergatik emendik ez ditekean etorri gaxotasuna eta gauza kaltegarriak ez bada, eta erakutsiaz on bidea gauza on guzien eta osasuna gordetzeko iturririk onena.

Guk esan gentzaken guzia zenbateraño dan ongarrria erriak eta bakoitzak berak kontuan edukitzea osasuna bear bezela gordetzeko artu bear diran begiramentuak, dago esanik ipintzera goazen esangi aurreko bi oetan, bada ezin geiago luzatu genezake puntu au: *osasunari kontu egitea, da osasuna edukitzea; eta erri bateko osasuna, da beraren aberastasuna.*

Azkenik, bukaera emateko lendabiziko argibide oni zeña ipiñi degun liburu onen asieran gure irakurleak eduki dezaten entzuera bat ez bada ere nai eta naiez aurreragoan aitortu bear ditugun zenbait gauza moduena, goazen esatera zer dan gaxoai aurrea artutzea edo argibide onetan azkeneko izendatu degun puntua.

Gaxo bati aurrea artzeak esan nai du alde egitea gaitz jakin bat sortu lezakean leku edo gauza artatik; eta ala, esaten degunean aize otza dagoan leku bate-tik alde egin bear dala, da alde egite onen bidez kendu zagun eztula edo alborengoa artzeko arraxku bat; eta esaten danean txertuak galazotzen duala naparrei edo baztanga sortzea, adierazotzera ematen degu txertatzearekin aurrea artutzen diogula gaitz naparreyaren sortzalleak beraren mende naiz eta jarri eta egon bear izan laguntasunaren, naitasunaren edo gure bearraren bitartez, gure gorputzean egin lezazkean lanbide pegakor eta gaiztoctatik.

BIGARREN ARGIBIDEA

*Zer nolakoa dan euskal-erriko parajea berez eta bertako jendeen osasunarako.-
Euskaldun arraza nolakoa izandu dan eta bai eta ere bere usariyoak.*

Egia baldin bada bakoitza bizi dan parajeak egin azten dituala nor beraren gain aiñ mudantza aundiak non aztu azitzen duan lentigo zuan izate modua, ez da egi txikiagoa paraje baten izaerak nolakoa dan, modu artan bertan egin azitzen dituala ere jende eta erri osoetan zenbait mudakizun, ainbesteraño non oetako bakoitzari ematen dion beste izate berri bat, onela bata besteagandik alkarren itxura antzeko gabe gelditzen dirala, ez bakarrik naziyo edo erreinuak deritzen diogunak, ez bada bai eta ere oetako bakoitzaren barruan leku jakin batzuek, argibide onen asieran esan degun gertaera arren bitartez.

Eta ain da egiazko gauza aitortu degun au, edo parajeko izaerak egiten dituan mudantzak eta eraozten diozkan itxurak bertako jende eta bizilagunari, non esan izan duan gizon jakintsu batek asko dala

ikustea zer nolakoa dan paraje edozeñetako lurra, bertatik kontua ateratzeko zer modutan bizi eta zer usariyo eduki litzakean bertako jendeak: esaera onen egia eta jakinduria begien aurrean ipintzen digu ikusten degun gertaera batek, zeña dan, leku epel eta bigunetan bizi dan jendeak ez daukala berekin mendi errietakoen gogortasun eta soportua, gertatzen dan bezela gure euskal-errikoakin zeñak dauden onetan aurrean aurrenekoen artean.

Euskal-erriak (izendatzen degula onela gure liburu onen eginkizunetarako izen artako iru probinziak eta Naparroakoa zeñak beren jatorriz eta dauzkaten alkarganatasunen bitartez ezagutu izan oi diran anaien izenarekin eta lenago eta aurreragoan beti izango diran alkarganakoak «Laurak-bat» izendatuaz), dauzka bere mugatzat jarriak Ifar aldera itxasoa; Egoaldera erdaldun lurrak (ikutuaz Logroñoko, Burgosko eta Santanderkoa); Eta Sartegi-aldera Aragoiko eta erdal errietako lurra, izanik paraje guztia menditsua eta erriyo asko dijoazena batetik bestera, zeñak izendatzea ez dagokigun guri leku onetan, esango badegu ere gauza oek guztiak beti daukatela zer ikusi aundia parajeko izate moduaren gañean eta bertako jendearen osasunean. Paraje bat nolakoa dan aditzera ema-

ten badute bertako lur, aize eta uren izaera moduak, esan gentzake euskal-errikoa dala geienenbat lekutan bigun eta epel antzekoa, bada naiz eta egiten dituan otz aundiak iñoiz Arabako eta Bizkaiko zenbat goi-erritan, ez da gure parajeetako otza izaten beti Españaiko leku askotakoa beziñ gogorra; eta nola gañera euskal-erriko lurra dagoan geienean urez ase, emendik dator gauza esandako oen izaera moduaren bitartez sortu oi diran gaitzak, izatea ugarienak aurreragoan esango degun bezela, euskal-erriko jendearen artean sortutzen diranetan.

Nola paraje oetako lurra dan txularmetsua lekurik geienean, da au ere txit gauza ona bertako jendeen osasunarako, zergatik errazago eudi urak sartzen diran lurpean, eta berarekiñ nastuta dakarren aize garbiak azkeneko lur pusketarik txikienetako garbitasuna ere berak egiten du, eta aizez jo azten du. Gañera berriz parajeko betiko berdantza eta aize garbia, eta iturrietako ur ugariak, dira beste aiñ beste gauza egiten dutenak gure bizi leku au izatea ezagutzen diranetan onenetakoa; eta esandako gauza oek guztiak eta bertako jendearen gogortasuna eta indartsu izateak, denbora guztietako gizon jakintsuai eman

izan diote beti zer egiñik asko gure arraza nolakoa dan argitaratzeko lan eta eginbideetan.

Naiz eta gure parajeetako lurra izan menditsua eta ez beste zenbaitetako bezin ugaria, bertako jendea izanik bizi langillea, onen bitartez iristen du zerbait osatutzea bear dituan arto eta gariz; eta gañerako ganadu eta arbolariakin eta lurpetik azaltzen diran medikantzetako guztiz onak diran ur asko eta askorekin, dauzka beste edozein lekutakoak aiñbat aberastasun bertako jendea ongi bizi izateko: gañera berriz esan ditugun ur oek ez bakarrik aberastasunik asko dakarte bere ondorean, ez bada beretan billatutzen du erraztasun aundiarekin paraje oetako jendeak zenbait gaxotan bear izaten diran medikantzak, asi burni uretatik eta bai eta ere beste erremedio modu bizi banakikoak. Ongi ezagutuak dira Zestuako ur gesalak eta Alzolakoak Gipuzkoako probintzian, zeñatatik lendabizikoak diran bizi onak urdalleko, esteetako, eta zenbait gibelesko gaitzentzat; eta bigarrengoak berriz txixa tokian iñoiz sortu oi diran arri eta beste antz ortarako leku aetako gaxoentzat; Urberua eta Zaldibarkoak Bizkaian biriketako gaitz eta herpetzarentzat bat eta bestea; Zuazukoak eta Nanklareskoak Araban, eztul zarrentzat eta urdalleko gaxorik asko osatzeko

izendatu ditugun azkeneko bi oek, eta Betelu eta Fite-rekoak berriz Naparroan eztarriko eta erreuma gaitz askorentzat. Ez goaz gu leku onetan bat banaka izendatzera zenbat eta zer nolakoak diran gure probintzi oetan dauzkagun iturri medikantzatarakoak; bakar bakarrik esango deguna da mundu guztian lanik asko izango litzakeala billatzen beste paraje bat aĩn baztar txikikoa nola dan euskal-erria, non arkitu litezkean gure jaio lekuan aĩnbeste ondasunezko ur eta iturri aberats eta eder gure mendietatik datozenak aña.

Lenago aitortu degun zer ikusi alkarrekin daukaten paraje bateko izaera moduak, eta bertan sortuzten diran gaxoen gañean esan bear degu, gure bizi leku oetan geienenbat azaldu oi diranak dirala asnasa artzeko tokietakoak, bada oek daude errazago gaxotzeko moduan zergatik beti egon bear duten aize otz eta bustien mendean, izanik gure parajea dan bezin aizetsua eta bustikorra: ez degu onegatik esan nai paraje oetan bertakotzat artu bear dirala gaxo oek, baizikan urte muda jakin batzuetan ugariagoak dirala, gertatzen dan bezela neguan eztul eta alborengoakin eta udaran este eta gibleleko zenbait gaitz modurekin. Au bera esan bear degu *erreumen* gañean ere, bada oek dira ugariak gure parajea, au dan bezelakoa

dalako, eta jende nekazari eta langilleak egin bear izaten duan bizimoduaren bitartez, bada guztiok dakigu nola bizi dan gure nekazaria zeñak egunero egun beste tokietan ez bezela, egin bear dituan kanpo lanak busti eta otzaren mendean dagoala, eta dira oek gauzarik egokienak berriz, izendatu degun gaitza iñoren gaiñ sortzeko, berak oi dituan ainbeste izaera moduak gure gorputzean azalduaz.

Azkenik, odol txarrekoen jabe diranak nola izan oi diran beti jende bigunak eta oek jaio eta bizitzen diran paraje guztietan, gurean onen gañean gertatzen danagatik esan bear degu, geiegiko bustiak beti lagundutzen duala onelako gaitz moduak azaltzeko jende langille eta bear bezelako gobernua eziñ eduki lezatekenaren artean; bañan alaz guztiaz ere geiagotan ikusten dirala aek kaleko jende beartuetan, ez baserrikoetan aiñbat, bada oetan libratzen dira asko eta asko esaten degun gaitzetatik, zergatik naiko esnea umeari ematen dioten, eta au dan gorputza indartzeko izan litekean erremediorik egokiena, onela galerazoaz esan degun gaitz aek azaldutzea oetan.

Ez degu itzkuntzarik ezer egin nai emen beste zenbait gaxoren gañean zeñak eduki lezatekean zer ikusi gutxi edo geiago gure parajeko izaera moduare-

kin, bada oetatik badira batzuek merezi dutenak apartako lekuan beren gañean itzegitea aurreragoko argibide batean egingo degun bezela; eta azkenik esango ditugu itz batzuek bukaera emateko orain eskuartean dakargun oni, euskal-erriko jende eta arrazaren antziñako izaeraren eta bere itzkuntza eta usariyoen gañean, zeñak lenago aitortu degun bezela, izan diran denbora guztietan eta paraje guztietako jakintsuengandik txit izkiratuak eta begiramentu asko beren gaiñ ipiñi azi izan dituztenak.

Guztiak aitortzen dute euskaldunen jatorria dala txit antziñakoa, eta *iberoak* zeñak izan ziran Españaiko lurrian aurrenengo bizi izatera etorri ziran jendeak, gelditu zirala bizi izaten batzuek Ebroko erriyoz aruzko aldean gaur erdaldunen lurtzat ezagutzen degun artan eta besteak esandako erriyo ortzaz unuztik, iñolaz ere zergatik uste zuten bertan eta mendi artean errazago kontu egingo ziotela beren libertadeari. Gu gaur bizi geran parajeetan gelditu ziranak ez zituzten izan aiñbeste gora bera nola beren beste anai Ebroz aruztik gelditu ziranak, bada oek denbora aurreratuz joan zanean, izan ziran menderatuak Cartagoko eta Erromatarren jendeak gandik, eta galdu zituzten beren usariyoak ere, artuaz kanpotar jende aek berta-

ra ekarri zituztenak, eta gañera oek itzegiten zuten itzegite modu ura bera. Bañan esan degun bezela gure parajeetan gelditu ziranak ez zituan iñork menderatu izan, eta bizi izan ziran beren mendi artean gordeaz libertadea, usariyoak, eta baita ere beren itzkuntza zeña allegatu dan gaurko egunean gure arte-raño.

Esan degun jende aei deitzen zioten *Karistioak*, gaurko *Arabarrak* daukaten parajekoai; *Barduluak*, *Gipuzkoatarrak* daukaguna zeukatenai: *Autrigoiak* gure probintzi onetako leku batzuen eta *Bizkaiko* lurraren jabe ziranai: eta *Baskoiak* berriz, gaurko *Naparroako* lurrean Aragoiko mugetaraño bizi ziranai.

Euskaldunak dira bada gizon kondairale jakintsu eta errespetagarri askok diotenez, arako antziñako jakintsu sonatu Seneca zcritzaion arren denboretan gorderik zeuzkatenak Españiako lenengo bizi lagun edo *iberoak* izendatzen ziran aen beren izkuntza, usariyoak, eta jantzi modu ura bera; eta au da argibiderik itxurazko eta egizkoena adierazotzeko gure euskalitzkera izan zala Españiako lurrean aurreneko itzezin izkuntza. Euskera da bada kanpotar naziorik iñortxo ere Españian sartu baño len itzezin izkera, eta onetatik datorkigu guri esan al izatea euskaldunak

zirala lendabizi Españiako lurrean bizitu ziranak, zeñaren jatorri garbia gorde izan duten gure paraje oeta-koak nastu gabe ezertan egon ziralako kanpotik etorri ziran nazioekin, eta oek menderatu ez zituztelako gure guraso zarrak.

Gauza au onela dala eta egiazkoa dala argitaratzen du ikusteak gaurko egunean ikusten degun bezela, euskal erriko lurrean ez dirala billatzen eta ez eta ere azaltzen beste zenbait Españiako leku askotan bezela erromatar eta beste kanpotar nazioetako jendeak egin eta utzi zituzten eliza eta berak adoratzeko zituzten Jaungoiko gezurrezko aen itxurarik, zeñak beiñ ere ez zituzten ezagutu beren bizi lekuetan gure aurreko guraso zar aek; eta egia baldin bada ere Cartagoko agintari aundi eta gerrari sonatu Anibal zeritzaion arren mendean ibilli izan zirala euskaldunak soldadu erromatarraren kontra, ez da egi txikiagoa ibillera au izan zala batak besteekin egindako tratu batzuen bidez eta adiskide berarekin ziralako; alako moduan non erromatarren agintari Eszipion zeritzaionak igerririk beraren kontrarioetan zijoazen euskaldun jende aek zirala medio galtzen zituala berak atakerik geienak, egin zuan modua jende aek bereganatzeko diruz edo beste al zuan bezelako bidez, eta au egin

zuan bezin laister ikusi zuan ere andikan aurrera erraz asko menderatu zituala Anibalen soldaduak esan duten bezela utzi dituzten liburu zarretan denbora antziñako aetako gizon kondairaleak nola diran Estrabon, Plinio eta Silio Italiko izendatzen ziran aek.

Gizon jakintsu oek berak itzegiten dutenean zer nolakoak ziran euskaldun aen izaera moduak esaten dute zirala alperkeriaren etsaiak, nekea zer zan ez zekitenak, jan eranean kontuzkoak, gorputzeko indarraren gordetzalleak, arrokeririk gabekoak, beren libertadearen maiteak, eta au ez galtzeagatik edozein gauza egitera jarriko ziranak, illtzeak bildurtzen ez zituanak, beren naitasunetan leialak, kontrariyo bildulgarriak, biyotz onekoak, azkarrak eta indartsuak, dantzari ariñak (onetan asitzen ziranean zeukaten iru zuloko txistu bat joaz zeña dan gure gaurko danboliña); ibiltzen nekatzen ez ziranak, atakeetan korajetsuak, eta azkenik beste iñor ez bezelakoak beren kontrarioak uste gabe, edozeiñ lekutan sartu eta aek arrapatzeko.

Zenbateraño gorde ditugun gaurko egunean gure lenagoko guraso zar aen doai eder aetatik, ez dagokigu guri emen esatea; bañan alaz guziaz ere ez degu konturatu gabe utziko, oraindik gure denboretan ere

euskaldunak beste iñongo jendeak ez bezela dauzkate beren gaiñ izate modu jakiñ batzuek, eta bai eta ere paraje askotan lenagoko gure guraso zar aen itz-kuntza ura bera.

Euskal-erriko jendea da elizkoia, agintariari bear dan errespetoaren gordetzallea, leiala, eta bai eta ere setotsua, zerbait buruan jarkitzen zaionean naiz eta ez beti arrazoizko gauza izan. Beraren usariyoak dira ere biziro berakikoak, eta oen ondasuna argitaratzen du ongi egunero ikusten degun gauza batek zeña dan, iru probintzi oetan eginkizunik gutxiena edukitzen dutela beti justiziko gizonak beren lanetan, eta bai eta ere gure nagusitza edo aginpidea daukatenak, beti azaltzen dituztela zuzen eta garbi berai dagozkioten kontu eta artu emanak.

Beste gañerakoan beti dauzka euskaldun jendeak berekin antziñako guraso zarren izaera moduak; eta ala, pelota jokua, balanketa jokua, aizkora jokua, belar ebaite jokua, saltaka jokua, txalupa jokua, eta bai eta ere azkenik bertako dantzaren egitea, guziak adierazozten dute dirala jende indartsu eta pizkorraren usariyoak, jakiñ izan ditugunak gordetzen gauza gogoragarritzat bezela gure aurreko guraso eta aitona zar aetatik.

IRUGARREN ARGIBIDEA

*Euskal errian bertan jatorriz
sortu oi diran gazoak zer nolakoak diran.-*

*Agintariak, etxejaun edo nagusiak eta
medikuak artu bear dituzten neurriak.-*

*Onelako gaxoetan egiñ bear diran garbitasunak
eta zerekiñ eta nola erakusten da.*

Egia baldiñ bada gero eta geroagoan dijoala gizona bigunagoa izanik antziñako gizaldietakoen aldean, eta gaurko egunean ikusten diran zenbait gaitz modutakoak gure gizaldiko jendea argaldurik daukatela; eta egia baldiñ bada ere gure egunetan bizimodua ateratzea izanik lenago bañan zallagoa, beartu azitzen duala gorputz eta anima lana egitera gure aurrekoak beartutzen ziran bañan askoz geiago, bai eta ere da egia gure guraso zarrak ezagutzen ez zituzten gauzarik askok osasunarako eta egunero egun egiten diran aurreratzeak jakiñkizun artarakoetan, gaurko egunean alaitutzen dutela gure izaera, eta ematen dizkigutela bizimañarik asko, osasuna gordetzeko eta gizonaren bizia luzatu erazteko. Beragatik esan oi zuan

gizon jakintsu eta gure maisu izandako Letamendi zeritzaion batek, gizonak bere burua ongi ezagutzearen poderioz eta bear bezela ikasiaz gorputz eta animako legeak gordetzen, egiñ bear zuala modua gaxo eta gaitz guziaz alde egiteko, zergatik ohea eta errazagoa dan gaitzari ez sarrerarik ematea, beiñ sartutakoa utzi edo botatzea bañan; eta ala, gizonak bere burua jakinduriaz apaiñtzearekin, geiago alde egiñ lezaiokeala gaxoari, zenbait erremedio esku artean egiten diranakiñ bañan; zergatik jakinduria dan medikantzarik onena eta munduaren erredentorea, itz batean: modu onetan iritxi giñezke gaurko gizaldi argal eta errukitsu au izatera egiazko gizon argi eta osasunaz betetakoak, antziñako jakintsu batek esan zuana kunplitu dediñ, au da, gorputz aje gabean egon oi dala ere anima garbi eta aje gabekoa.

Bañan gauza onen itz bidea alde batera utzirik, asiera eman zaiogun irugarren argibide onetan esatea dagokigunari, eta zeñaren bitartez nai gendukean lenago aitortzen genduan jakiñ bide gutxi bat ez bada ere, gure parajeko jendeen artean zabaldutzea.

Beti ikusi izan oi da, zenbat eta pillatuagoak eta alkarganatuak bizi jendeak, aiñbat eta bataz beste geiago ill oi dirala; eta ala, ikusten da erri aundietan

zeñetan bizi diran aldamen banatan aberatsak eta pobreak, azaldu oi dirala arako gaitz izugarri zenbait, batzuetan garbitu izan dutenak eziñ konta ala jende; eta bai eta ere, erri esaten ditugun oetan beretan, beñere alde egiñ gabe daudela gaitz pegakor eta txarrik asko, nola diran elkorri, napparrei, biriketako gaxo, eta beste onelako zenbait emen izendatzea ez dago-kigunak, etxeetan egiten ez diralako bear diran garbitasunak, eta agintariak artutzen ez dituzten bear diran erreparoaak gaitz oei alde egiteko. Bañan gure parajeetako errietakoari dagokionagatik esan gentzake geienenbategor gorde erazotzen dituztela legeak agindurik dauzkaten gauzak esaten ari geran onen gañean, eta ez bakarrik erri aundietan baizik bai eta danik txikienian ere, bertako agintariak ipintzen dutela begiramentu aundia puntu onetan, alegiñak egiñaz gertatzen danean, ez dediñ zabaldu beste lekuetara gaitz pegakorrik azaltzen dan artatik, dakiten bezela jende guziak ez bakarrik parajeen bertakoak, ez bada bai eta kanpotarrak ere. Onetzaz gañera edukitzen badegu gogoan paraje oetako jendea dala berez garbia eta bizi dala geiena baserrietan zabaldua izanik ere euskal-erriko lekua osasunerako eziñ obeagoa, erraz konturatuko gera gauza egokia izango dala ger-

tatzen dan bezela, ez ikustea gure parajeetan zenbait lekutan oi dan bezela, arako lenago aitortu ditugun gaxo eta gaitz bildurgarri aek jendea bat batera artu eta pillaka illtzen dutenak; baizikan iñoiz edo beste sortutzen badira onelako gaitzak, eziñ zabaldu izan oi dira leku jakin batean ez bada bakarrik, eta an bertan gelditzen dira denbora labur batean: gaitz oek geienean oi dira urrutietatik etorriak eta geroagoan paraje jakin batean bertakotzat bezela geldituak. Onela gertatu da *kolera* eta *tiputza* deritzen diogunakin zeñak izanik beren jatorria izandu zuten parajeetan bertakoak, urte gutxi igarotzen diran gure alde oetan nonbait edo leku bat edo bestean azaldutzen ez dirala eramanik berakin jende asko eta asko, naiz eta ez izan gure euskal-erria geienenbat au aspaldi onetan gertatu izan dana. Orobat *naparrei* edo *baztanga* deitzen diogunarekin ere au bera gertatu izan da, bada izanik bere jatorria gaitz onek Asiako leku batzuetan, andikan ekarria izan zan orain dala bederatzi giza aldi moroengatik, eta ordu ezkeru daukagu gure artean, egia bada ere asko gutxitu dala jendea txertatzen dan ezkeroztik, eta oraindak geiago gutxitu bear duala zenbait extranjeriko nazioetan gertatzen dan bezela, zeñetan txertatuaren bidez jende guzia sei urtetik

urtera, gaur ez da ezagutu ere egiten naparrei edo baztangarik; eta au bera gertatu bear luke gure para-jeetan ere agintariak gogor jendea artuko balute gauza onen gañean, bear dan bezela: izendatu degun gaxo onen eta beste beraren antzeko batzuen gañean aurreragoan itzegin bear degu, eta emen ez degu aitormen txiki bat ez bada beren gañean egingo, euskal-errian azaldu oi diran ugarienetatik asitzen gerala.

Da guztietan lendabizikoena *trabajuba* edo *tiputza* deritzen dioguna zeña geienenbat baserrietan sortu oi dan, iñolaz ere baserri etxeak diran bezelakoak diralako, zeñetan bizitzen dan jendea bata bestearengandik alde ezin egiñik bezela, eta ganadu eta egaztiakin naste, gañera zenbait ukulluetako eta beste zikinkeririk asko naikoa ez dirala gaitz orri sortuera emateko. Gure baserrietako jendea bizi balitz etxe barrunpean eta ez balitz egongo denborarik geienez beren soro edo basoetan lanean kanpoko aizearen mendean, esan gentzake ill bearko lutekeala bear baño len, zergatik eziñ bizi litekean dauzkaten etxeetan oek bear bezela nagusiak ipintzen ez diozkaten bitartean, eta nagusiai artu bear lezaiozke kontu estuak gauza oen gañean, agintari diran gizonak edo aginpidea daukatena. Egin bitez bear diran bezela baserri etxeak

ganadu eta bertako jendeak apartagoan egoteko moduan; erakutsi bedi baserriko jendeari zer nola egin bear dituan garbitasunak eta zer egin bear duan gaitz modu onetakoai alde egiteko, eta zerbait aurreratua edukiko degu ez ditzaten egin aek egin oi dituzten kalteak iñoiz, gelditu diralako gure artean gure bizilagun bezela naiz dala mendi-errietan eta bai eta ere itxas-baztarrean daudenetan. Esan ditugun gaitz oek eta izendatu bear ditugun beste batzuek nola diran erreumak eta oek ondorenean ekarri oi dituzten biotzeko gaxoak, umoreak, karmunkoa, txitxare edo bixiyoak, ortzetako eta agiñetako ustelak eta beste onelakoren batzuek lenago esandakoaz gañera, dira bada geienbat gure euskal-erriko parajeetan azaldu oi diran gaxoak.

Esan ditzagun orain itz batzuek, agintariak, etxeko nagusiak eta medikuak artu bear dituzten neurrien gañean, onelako gaitz pegakorren bat azaldutzen danean naiz eta guk eziñ emen adierazo kontuan eduki bear diran argibide guziak gauza oen gañean, zergatik diran gure liburuari dagozkion bañan geiagokoak.

Antziñako denboretan bazan esaera, pakea nai duanak egon bear duala gerrarako prest; eta au bera

esan gantzake gaxo pegakorren gañean itz egiten degunean, bada oei aurea artu bear zaiote eta ez egon eskuz-esku jarrita bera azaldu zai, ezer egiñ gabe geroagoan zerbait egiteko asmoan. Erri guziak naiz izan aundiak edo txikiak, lendabiziko eduki bear dutena kontuan erabakitzen degun argibide onen gañean da, nola egin bear duten beren *garbitasuna*. Izan bear du onek bizi ongi egiña eta artarako diranak ipiñi bear dute gauza onek bear duan aiñbateko begiramentua erreparo aundia artuaz lendabiziko erriko kanale eta zikinkeriak korrimentua daukaten lekuai; iturriko uren izaera moduari, eta jan bear diran gauzai batez ere kanpotik etortzen diranai. Poz aundi batekin esan bear degu leku onetan gure euskal-erriko probinzi oetan egiten dirala begiramentu oek beste iñongo lekutan ez bezela, eta bertako erri aundietan daudela ipiñiak bear diran esamiñak jan, eran, eta beste esan ditugun guziaz dagozkion moduan egiteko bideak, onela kunplimentu emanaz legeak aitortuta daukaten eginbideai. Badakigu ere erri txikietan eziñ egiñ litezkeala aundietako moduan esaten ari geran garbitasunari dagozkion bear oek, zergatik ala nai izanik ere, beti arkitzen geran erri txikietan batetik ez edukitzearekin aundiak daukaten izate moduak, eta

bestetik berriz jende askoren ajolagabetasunarekin. Alaz guziaz ere beti ikusten da gure parajeen bestetan ez bezela, naiz eta erriak ez izan aberatsak, alegiña egiten dala garbitasunaren gañean, moldatuaz kaleak, pasia lekuak eta beste onelako tokiak, egiñaz ere iturri eta alberga berriak, eta edukirik jende bear-tutako arentzat artarako ipiñitako etxeak non billatzen duten egon leku garbia beste alde askotan gertatzen ez dan moduan. Bañan oraindik geiago egin bear da; lendabizi, da gauza bearra erri guzietan dauden agintariak zeñak daukaten eskubidea beren mendekoai bear diran erreparoak artu azteko garbitasunaren gañean eta jendearen osasunari dagozkioten gauza guzien gañean, edukitzea begiramentu aundi bat ongi egiten ote diran onetarako agindu eta dauden gauzak, eta ez uztea alde batera beren karguak eragozten diozkaten eginkizunak alferkeriaz edo ajola gabetasunez. Puntu onen gañean uste degu egin bear litzakea-la gizon jakintsu batek diona, zeña dan edukitzea errietako agintariak gauza oen gañean aiñ aginpide aundia, non izan bear luteken iñoren mendean berak ez egoteko diñan, eta aen aginduari beste iñork eziñ erreparorik jarri lezaiokean moduan, bada ikusten da askotan errietako berri ongiena dakiten jendeari ez

zaiola artutzen aintzakotzat beste goragoan dauden agintariengandik, oek bañan askotzat obetoago dakizkiten gauzak eta eginkizunak erri bakoitzerako obeak litezkeanak. Bukaera eman zaiogun bada itz bide oni esanaz, errietako agintariak bear dutela iñoren kontu gabe ipiñi bear dan kastigua ongi erreparo eta bear diran begiramentuak ipintzen ez dituanari lan onetan, eta garbitasunetik datorrela osasuna, eta osasunetik errien ongi izatea, gizon jakintsu aundi batek dion bezela.

Bakoitzak bere buruarekin eta bai eta ere beren etxeetan artu bear ditu erri batek guzientzat artu bear dituan begiramentuak berak, kontu edukiaz etxeko garbitasunaz noizik beiñ ur irakiñarekin edo geroagoan esango ditugun beste gauza batzuekin bera egiten dala; eta bai eta ere arropa, ontzi edo beste edozeiñ gauza gaxorik dagoanak erabiltzen dituanakin. Badira ere zenbait gaxo modu zeñetan eduki bear dan kontu aundia gaxoak botatzen dituan karkaxakin, nola diran *biriketako gaitza*, *alborengoa*, eta oraiñ *trankazoa* deritzen dioten gaitz edo gaxoarekin. Agindu bear zaiote gaxo oetakoren batekin oieratu eta daudenai, ez dezatela bota karkaxikan lurrera, bada usariyo au ez dan ona zergatik nola karkaxean dagoan gaitzaren

sustraia, aek legortzen diranean nastutzen dira lurreko autsarekin eta onen bidez joan litekean beste norbaiten biriketara asnasea artutzeko denboran. Etxe batean norbait dagoanean biriketako gaitzarekin edo esan oi dan bezela *petxutik*, nola bai eta gaxo oek botatzen duten zikinkeri asko aotik, agindu bear zaio- te biltzeko karkaxak artarako egin eta egoten diran ontzietako batera, ur pixka bat bertan aurretik botarik dagoala, bada uretan dagoan bitartean karkaxak ez dauka pegakorra izateko biderik. Onegatik bada agin- du bear da onelako gaxoen gelak eta egon lekuak gar- bitu bear dirala ur beroarekin, eta bai eta ere beren karkax ontziak, surtara lendabizi botarikan aek; au bera esan bear degu arropa, zapi eta beste eskuar- tean gaxoak erabiltzen dituan gauzen gañean zeñak ur irakiñarekin garbitu edo erre egiñ bear diran.

Gauza oek guziak onela egingo balira eta aginta- riak ipintzeko agindu ezkeroztik elizetan, eskoletan, burni bireetako eser-lekuetan eta jendea pillaturik egon bear duan leku guzietan, bear bezelako karkax ontziak bota ditzaten oek bertara, asko eta asko gutxiago izango litezke biriketako gaitzarekin illko litezkeanak zergatik ez litzaken aiñbeste zabalduko garbitasun esandako oek egiñ ezkerro. Ez daukagu zer

esanik berriz, nork bere buruarekin eta jantzitzen dituan arropakin eduki bear duan garbitasuna, dala beste gauza txit aurrenengoa eta bearra osasuna gordetzeko. Bai eta ere aditzera eman bear degu gaitz pegakorren bat azaldutzeko bildurra dagoanean ez dala mudantzarik egin bear bakoitzak daukan usariyotan jan eta eranean, askok uste izan duten bezela, eta gañera baldin gaitza bada esteak zer ikusi berarekin daukatena nola dan *kolera* izendatzen dana, orduan eta geiago kontu artu bear dala gauza oen gañean, ez artuaz ur irazeki eta onen antzeko erari gogorak, entzuerarik eman gabe tabernariak beren irabaziari begiratuaz bakarrik esan oi dioten bezela jende ez dakienari, onelakoetan eran bear dirala erari esandako oek.

Medikuak beren aldetik eman bear diote aditzera agintariari azaldutzen dan bezin laister esandako gaitz pegakorren bat, artutzeko bear diran neurriak berari alde egiteko; eta gaxoak ikusten dabilltzanean utzi bear dituzte azkenerako ikustez gaitz pegakorra daukatena, zergatik gertatu izan da medikua bera izatea gaitzaren zabaltzallea kontuan ez edukitzeagatik lenago aitortu degun gauza au, Parisen gertatu zan bezela emakume aur egin berri askorekin zeñai bata

besteaganako gaitza pegatu zitzaizoten beren medikuen eskuen bitartez; eta au onela gaurko egunean dakigun bezela gauza oek jakiñ eta gertatzeak ez luke iñoren barkaziorikan merezi.

Izendatu degun itz bide onek eramaten gaitu berriz beste batera, zeña dan gaitza sortutzen duan sustrai ura dagoan lekutik nola eta zer modutan kendu litekean ikustera, oraiñ esatera goazen bezela. Edozeiñ lekutan arkitu litezke gaitz sortutzalle edo gaitzaren sustrai gaizto oek; naiz izan aizean, edo uretan, edo beste edozeiñ gauzetan; eta oek galdu eta kendutzeko baliyatu giñezke bi moduz, batzuek botikarioak ematen dituanak eta besteak bakoitzak bere etxean ipiñi litzazkeanak. Alemaniyako mediku sonatu Kok deritzan batek egiñ ditu gauza oen gañean lan eta eginkizun aundiak, zeñak nolakoak diran jakiñ bear lituzke ez bakarrik medikuak, baizik bai eta ere apaiak, eskola maisuak, eta beste oen antzera jendearen artean zabaldutzen lagundu lezatekeanak gauza oen argibidea eta aditzera: bada guziok dakigu gure base-riko jendeak gauza berri oek ikastea beti edukitzen duala lan aundizat zergatik ez dan artarako biziro gogotsua. Gauza oek onela diran medioz eta agintariak bear bezela erreparoak jartzen ez dituztelako

beraren gañean, dago gure parajeen nabarmendua sasi-mediku eta enplastogille eta beste oen antzeko batzuen beargiña, zeñak iñolaz ere beste iñork ez bezelako doaiakin egiten dituzten gauzak ikasi gabetanik aurreaz; bañan ez degu uste medikantzak izan bear duala besterik ez bezelakoa, bada perratzalleak ere, perrak ipiñiko badizka zaldi edo iri bati, ikasi egin bear du bere beargintza; eta au naiz izan guztientzat gauza egokia eta bidezkoa, badira beste zenbait uste dutenak medikantza egiñ litekeala ezer ikasi gabe; da esatea errazago dala gizon bati okertutako osasuna zuzentzea, ez asto bati perrak ipintzea; bañan uste degu bakoitzak bere baliyoaren neurria egiten duala, eta naiko errukigarria dala bere osasuna galdu eta ura osatzeko, jartzen duanak bere burua artarako ezer ikasi ez duanaren eskuetan.

Esan degu lenago dauzkagula gaitz sortzalle edo gaitzari batzuetan izaera ematen dioten sustraiak kendutzeko bideak, eta oetatikan bat da *beroa*, naiz izan au legorra edo bai eta ere bustia. Nola bai eta ere gure asmoa dan liburu onetan erakustea jende langille eta mediku ez diranai zenbait gauza medikantza-ren gañean errazak eta bakoitzak egiñ litzakean modukoak, ez degu emen izendatu ez bada besterik

egingo beroa zenbat modutara erabili litekean esandako gaitzaren sortuzalleak garbitutzeko, nola diran artarako egiñak dauden burnizko galdara eta labeak zeñetan sarturik beroa zabaldu oi duten premia daukan leku eta arropa edo beste gauzetan, bear diran garbitasunak egiteko. Bañan erri txikietan nola ez dauzkagun esandako moduko gauzarik, bota bear degu esku beste batzuegana eta egiñ garbitasunak esatera goazen moduan. Eduki bear da kontuan lendarbiziko zer gauzaren garbitasuna egiñ bear dan, eta zer nolakoa izan litekean gaitzari sortuera eman lezaiokean sortzallea, aukeratzeko biderik onena iritxi nai degun azkenerako.

Orrela bada, egiñ bear bada etxe bateko gela edo antz onetako lekuen bateko garbitasuna, igortziko da asko eta gogor solaidua zapi ur irakiñetan sartutakoakin, edo ondarrarekin, eta oraindak ohea dana berriz, zerrauts bustitakoarekin.

Beñere ez da solaidua garbitu bear legorrik, zergatik atzera bertan gelditzen da aizeak goratutzen duan lurreko auts txikia eta geroagoan asnasarekin joan liteke norbaiten birika barrura; paretak eta etxeke trasteak garbituko dira ogi mamiarekin igortziaz, eta gero oek surtan erreko dira: oieko eta beste jantzi

arropak garbitzeko artu bear dira neurri batzuek bada bestela oek esku artean ibiltzeak baditu bere erreparaok: gaurko egunean baliyaten dira onetarako orain esatera goazen modu batez zeñarekin arropak ongi garbitzen diran gelditzen dirala zurituak, eta zeña ona dan jakitea etxekoandre eta jende langilleak. Artutzen dira onetarako bi ontzi egokiak zeñatan ipiñiko diran ogei eta amar bat pitxarra iturriko ura; botatzen da oetara libra bat jaboie arropak garbitzen erabilli oi dana, eta bi kutxara petroliyo, eta onela dagoala irakiñ azten zaio: arropa zuria garbitzeko dagoan bezela arturik, sartuko da ontzi aetako batean eta edukiko da egosten ordu erdi bat, geroagoan ateratzen dala kanpora. Ustuko da ontzian dagoan ur nastua eta garbituko dira arropak ur otzarekin; geroagoan emango zaio jaboia eta atzera berriz botako zaio gañetik ur irakiña; au egiñ ondorean emanik ur otzetan pasara bat, utziko da gau bat osoan beste ur otz garbian, eta urrengo egunean legortuko da aizetan. Esandako gauza oek onela egin ezkeru, dago arroparen garbitasuna bear bezela egiña: lastai eta koltxoiak ez badira baliyo aundikoak ohea da erretzea; eta gorde nai izan ezkeroztik garbitu bear dira ur irakiñetan egosiaz eta bustiaz

artarako dagoan usai gogorreko botika gauza batekin zeña medikuari eskatu bear zaion.

Ez dago gaurko egunean usariyoric egiteko etxe barrunbeko garbitasunak supre eta auts onelako usai gaiztoko gauzak erre eta botatzen duten kearekin, bada batetik galesti irteten dira eta bestetik egon bear du begira mediku edo beste norbait gauza oek nola ibilli bear diran dakienak, eta gañera berriz ez dira lenago uste zan beziñ egokiak esaten ari geran onetarako. Badaukate ere usariyoa beste gauza batzuen artean *briak*, *solimanak*, *ozpiñak* eta *kareak*; bañan batzuek esku artean nola nai ibiltzeak badauka ere bere arraxkua, eta obeagoa da beartutzen danean norbait gauza oetakoren batez, aditzera ematea mediku bati.

Baserriko jendearentzat onena eta merkeena da *kare bizi itzalitakoa* zeñetatik asko dan pitxar pare bat nastutzea beste zortzi pitxar urekiñ eta daukan gauza bat zeñarekin egiñ lezazkean garbitasun guziak nola diran etxeko paretak eta lurra, kañuak, gaxoak botatzen dituan zikinkeriak, eta beste premiya daukaten gauza guziak; da ere gauza on bat etxe barrungo usaiak eta aize ustelak garbitzeko ozpiña irakiñik jarrita dagoala artarako ontzi batean. Esan ditugun gauza

oekin garbitasunaren gañean, uste degu naikoa dala eta aditzera eman degula bear aiñbat baserri eta langille jendearen etxeetan jakitea bearren diran gauza moduak.

LAUGARREN ARGIBIDEA

*Trabajuba edo tiputza izendatu
oi dan gaitz edo gaxoaren gañean.-*

*Etxeko eta beste garbitasunak
gaitz onetan nola egin bear diran.-*

*Bai eta ere erakusten da nola bañuak
erremediotzat gaitz onetan ematen diran.*

Izanik gure liburu onetan argitaratzen ditugun eginkizunak txit baliyo aundikoak, esan gentzake laugarren argibide onetakoa dala oraindik bearragoa, bada itzegin bear degu berean, euskal-errian sarri eta askotan azaldutzen dan gaxo baten gañean, bertako jendeen izate modua dan bezela eta beren bizimodua dan bezelakoa izanaren bitartez, aurreragoan esango degun moduan.

Antziñako denboretan izendatu izan da *tiputza* edo *trabajuba* gaurko egunean deritzen dioguna, beste izen modu batzuekin nola diran *kalentura uste-la*, *kalentura gaiztoa* edo bai eta ere *okerra*, eta onela beste modu askotara; eta bai eta ere *esteetako gaitza*, esanayik onela zeñ gorputzeko lekutan zeukan

bere izatea edo egon lekua; lendabiziko izenakin aditzera eman nai zuten bezela zer izan zitekean berez eta bere izatez aitortzen ari geran gaitz au. Da bada izendatzen degun gaxoa, lenago aitortu ditugun zapamorro edo gaitz sortzalle bizi aetako batzuek izaera ematen diotena, eta gañera pegakorra eta odola usteldu eta galdutzen duana: zapamorro oek edukitzen dute beren gorde lekua esteetan, eta dira gaxo onetan azaldutzen diran okertasun guzien jabe edo egilleak, nula diran gaxoak edukitzen duten berotasuna (zeña beti aurrenengo egunetan joaten dan geituz); buruko miña, gorputz guziko aztuna, burutikako nastutzea, odol korrimentu esteetakoak eta oetan sortutzen diran txirak; bai eta ere usai gaiztoko berako eta beste gaitz bildurgarri onek berekin oi dituan gauza eta lankizun zenbait, esaten joango geran bezela.

Itzegiten ari geran gaitz onetan ere, badira beste bere antzerako batzuek, bañan bigunagoak, eta indar gutxiagorekin azaldutzen diranak, zeñaren gañean esan bear ditugun itz batzuek izan dezaten beraren entzutea gure liburu au eskeintzen diegun jendeak, onelakoetan ipintzeko bear diran erreparoak, eta egiñ, bear diran garbitasunak.

Lendabiziko izendatu bear degu, lanean geiegi beartu edo nekatu eta ondorenean, iñoiz azaldu oi dan onetarako gaitza, zeñak eduki arren tiputzaren arraza, txiki bat ez bada ere, sendatutzen dan amar edo amabi egunen barruan bear dan deskansuba gorputzari emanarekiñ; eta esne edo salda on eta jan garbia ematen zaiola bear dan neurri eta erreparoakin gaxoari.

Bañan beste batzuetan ez dira gauzak onen bigun eta zuzen joaten, eta orduan, alegiñ guziak egiñagatik artarako dauden erremedio, bañu eta beste izatekoakin, alaz guziaz ere gaxoa arkitutzen da guzia tontorturik, berotasun aundiarekin, mingaña beztua, eta ezpañak urdinduak eta dardararaz dauzkala, aditzera emanaz utzi dutela eta alde egin diotela indar bizi guziak eta dagoala gizona ez balitz bezelako edozeiñ beste bizirik gabeko gauza baten itxuraz; edo beste altera jotzen duanean, buruko naspilla txit aundiarekin, geldirikan eziñ egon dala, eta gorputz guziko dardarakin, puntutik puntura ler egiñ eta nekearen poderioz bizia galdutzeko arraxku aundian. Bi izate modu izendatu ditugun oetatik lendabizikoa da, antziñako denboretan lenago esan degun bezela *kalentura ustelaren* izenarekin ezagututzen zutena; eta bigarrenkoa

berriz, *kalentura gaiztoa* edo *okerrezkoa* deritzen ziotena, zeñetan bañuak izan oi diran erremediorik onena eta bearrena gauzak zuzentzeko aurreragoan esan bear degun bezela.

Beste batzuetan berriz, alaxo itxura moduan sortutzen da gaitza, non esan lezakean dagoala beraren malura guzia leku batean bilduta; eta ala, iñoiz jotzen du gogor eta bakar-bakarrik burura, garunetako gaxoa balitz bezelako antzera; beste batean biriketara, oen aundidura edo pulmoniya balitz bezela; eta beste beiñ edo beiñ bai eta izerdi aundi eta urtutzalle, edo odol korrimentu bildurgarri batzuen itxuran ere azaldu oi da, gauzak oker eta bere bidez kanpora etortzen diranean.

Leku onetan dagokigu esatea, gu itzegiten ari geran tiputz gaitza ez dala beste noiz edo noiz ikusi izan dan izen berekoa, bañan askotzat txarragoa, eta daukana bere izaera jende asko alkarganaturik eta zikinkeriak eta goseak sortuera ematen diotena: bada oraiñ esaten degun gaitz au izan oi da berez laburra eta geienaz ere amabost bat eguneko luzaera daukana; ez da bertan berakorik eta esteetako txirarik azaltzen, eta da ere bildurgarriagoa zergatik berekiñ eramaten dituan jotzen dituanaren erdi bat gutxiyenean.

Azkenik, esanaz badirala beste gaxo batzuek iritxi gabetanik tiputzaren gogortasunera, izan oi dutela beren jarlekua urdalle eta esteetan, eta zeñak ezagutu oi dituan gure parajeetako jendeak *astrikaren* izenarekin, goazen ikustera zeñ izan ote litekean eta nolakoak euskal-errian eta batez ere basarrietan tiputzari sortuera eman lezaioteken gauza moduak, lenago zerbait puntu onen gañean aitortu deguna geiago azalduaz.

Ongi emanaz gaurko egunean mediku guziak emanik daukaten bezela, lenago izendatu ditugun zapamorro aek dirala esteetan jarkitzen diranean, tiputzari sortuera ematen diotenak, orain jakin bear degun gauza da, zer eta nola gaitz sortzalle bizi eta aiñ txiki aek sartu litezkean gizon edo emakume baten este barruan, bada lenago esan degun bezela, au da beren gorde lekua gure gorputzera iristen diranean. Geienenbat uste izaten da zapamorro aek sartutzen dirala gure barrenean jatekoarekin batera, eta oraindikan geiago eta errazago iturriko uraren bitartez, ez bakarrik erateagatik baizik bai eta ere arropak edo arpegia edo eskuak garbitzeko dabilkigunean ere: erri bateko urak txarrak izatea eta ez bear bezelakoak, da bada, gauzarik lendabizikoena tiputza azaldu lezakea-

na orretarako erriko jendeen artean. Bai eta ere gaitz onen izaera moduak erakusten du sortu litekeala eta sortutzen dala askotan, gaxo dagoanak bere barrundik edo esteetatik botatzen dituan zikinkerien medioz, oek erabili edo oen usai gaiztoaren mendean iñor egoten bada, zergatik zikinkeri oetan dagoan gorderik gaitzari sortuera eman lezaiokean sustrai gaiztoa. Gauza au onela izanik, konturatzen bagera gure parajeko basarri etxeetan egoten dirala simaur pillatuak zeñatatik batzuek bilduak izaten diran beiñ bañan geiagotan gaxoa dagoan etxeren batetik, eta gañera etxe inguruko liña potzuak egoten dirala erdi usteldutako urez beteak; eta bai eta ere zenbait errekatxo eta alberga txikietan egiñ oi dirala gobara eta beste arropa eta ontzi garbitzeak bear bañan ur gutxiago naiz eduki leku aetan garbitasun bear bezelakoa egiteko esandako gauza oen bitartez eta izanik aditzera eman degun bezela ura gaxo au sortutzen duten zapamorroen biderik egokiena gorputzaren barruan sartutzeko, ez dago zer esanik zenbateraño iristen dan gure baserriko jendeetan erraz gaitza au azalduitzeko modua edo bidea.

Beste gauza bat zer ikusi aundia daukana gaitz esaten ari geran au sortutzeko, da nor bera bizi dan

etxearen edo bizilekuko izaera modua. Esaera bada, nor bera garbia danak, bere etxea ere garbia edukiko duala; bañan au ez da erraz gertatzea gure basarrietan, zergatik naiz eta izan guziok dakigun bezela gure basarrietako emakume jendea guztiz txukuna eta garbia beren buruakiñ, eziñ lezateke egiñ nai aiñbat garbitasun askotan beren etxeetan, zergatik oetan bizi diran pillatuak ganadu, egazti eta umeak, eta gañera nekazariak eduki bear dituan zenbait traste zar bere eginkizunetarako, eta etxeak geienez oi dituzten gela txiki eta illunak bertako jendea lotaratzeko; gauza oek guziak alkarganatuta, dira beste iturri edo sortu lekua itzegiten ari geran gaxoarentzat, bada onen iltzalleetatik bi lendabizikoenak dira *aizea* eta *argia*, esandako gela txiki aetan egon eziñ litezkeanak. Iñork bañan obetoago dakigu guk gauza oek baserri etxeetan nola oi diran bada egunero ikusi bear izaten degun zeñ zalla dan gaxoari alde egitea baserriko langille jendea bizi dan bezela bizita; eta bai eta ere sendatutzeko zenbat gauza desegokiri alde egiñ bear izaten diogun beiñ baña geiagotan. Egiten ez diran bitartean baserri etxeak bear bezela, bertako bizilagunak eta ganaduak bata besteagandik urrutia-go egunez eta gabaz egoten dirala; eta simaurrak eta

beste etxeko milla zikinkeri eta traste zar aldamenen-
ratu eta apartagoan etxeko jendeetatik edukitzeko
modua ipintzen ez dala, beti ikusi bearko ditugu basa-
rriko jendeen artean ikusten ditugun aiñbat gaxo
modu onetakoak, eta bai eta ere erreumak, umoreak
eta biriketako gaitzak, zeñak izan oi diran ugarienak
gure parajeetan azaldutzen diran gaxoen artean.

Azkenik esan bear degu puntu onen gañean, zer
nola egiñ bear diran garbitasunak eta nolako errepa-
roak eduki bear diran gaxo daudenak botatzen dituz-
ten zikinkeri eta berakoakin, alde egiteko modu one-
tan gaitzari gure mendean dauden eginbideak ipiñiaz.

Izanik gauza jakiña esan degun bezela gaxoaren
berakoan edo esteetatik botatzen duan zikinkerian
egoten dala gaitza sortu lezakean gaiztakeria, lenda-
biziko egiñ bear dan gauza da zikinkeri oek etxetikan
aldamen apartako batera eraman eta lurpean sartu-
tzea, modu onetan euliak eta beste mamorroen
batzuek ez ditzaten erabilli, eta geroagoan naspillatu
ala bear bada eran bear degun iturriko ura, edo garbi-
tasunak egin bear diran erreka edo albergetan artara-
ko egon litekeana: era berean eduki bear da erreparo
aundia ez nastutzeko esandako zikinkeri oek simau-

rrarekin edo ganadu azpiak egiteko daudezen belar edo lasto legorrakiñ.

Gauza modu askotakoak agindu izan oi dira egiteko bear diran garbitasunak gaxoak botatzen dituan zikinkeriaekin, bañan guzietatik onena eta merkeena da iñolaz ere *kare bizia*, zeña nola ibilli bear dan etxe-ko eta beste garbitasunak egiteko, lenago itzegiñ degun irugarren argibidean; eta onetan utzirik itz bide au, goazen esatera beste batzuek gaurko egunean tiputza sendatzeko usariyo aundia daukan gauza baten gañean, nola dan, bañuak gaitz onetan ematearen gañean.

Denbora guzietan eduki izan dute erreparoa medikuak al dan laster eta aguroen gaxoak daukanean berotasun aundia, au laburtu eta gorputzeko beroa arintzeko, baliyatuaz onetarako batzuetan onak uste izan dituzten erremedioaz, eta besteetan ur otzaz modu batera edo bestera emanaz bañuak eta busti aldi ongien iduritu zaiztenak.

Gure aurreko gizaldian eduki izan zuen bolara aundia bañuak gaxo onetan emateak, bañan orain dala berrogei bat urte egiñ ziran oen gañean lan eta begiramentu aundiak, eta oetatikan dator gaurko egunean edukitzea bañuak mediku guziak, tiputza senda-

tzeko izendatzen diran erremedioetan aurrenengoa bezela. Bañan tiputza ikusten degunean, noiz eta nola eman bear dira bañuak? Au da gauza bat zeñari erantzungo diogun bereala, erabakiaz bear bezela galdera orri dagokiona. Bestetik esan bear degu, ez dala aintzakotzat artu bear zenbaitek esan eta agindutzen dutena; zeña dan, ezagutzen dan beziñ laister gaxo bat tiputza dala bereala asi bear dala bañuak ematen: au izango litzake gauzak beti erabatera egitea, eta era batera beti egindako erremedioak eziñ izan litezke onak egindako guzian; gañera berriz leku ematen du onelako medikantzak, uste izatera bera dala medioz sendatu dala gaxoa, naiz eta au bera gertatu al izan bere gisa eta ezer ere egin gabe beiñ baño geiagotan. Gogoan eduki bear degu beti gaitza izanagatik jakiñ bat, gaxo egoten diranak banakoak dirala, eta gizon edo emakume bakoitzak, berari bakarrik dagozkion bezelako erremedioak bear dituala: orregatik eziñ liteke esan onelako edo alako gaitz, onela edo ala sendatzen dala, baizikan onelako edo alako gaitzekiñ dagan bat edo besteari, erremedio au edo bestea eman bear zaiola, bada gaitzak oi ditu egun batetik bestera zenbait mudantza zeñai begiratu bear zaioten, eta

zeñak eskatzen duten bakoitzak beretzat erremedio jakin bana.

Gertatzen danean azaldutzea tiputza berotasun gutxirekin, tontortasunik gabe, burutik gaxoak egiñ gabe, eta ez berakorik eta beste okertasun aundirik ere azaltzen ez dala, ez da gaxo onekiñ ezer erremediorik egiñ bear, ez bada eduki begiramentua gauzak beren asitako bide zuzenean ote dijoazen; eta onela gertatzen bada, egon geldirik gaxoaren indarra egutxiaz salda edo esnearekin, eta gaitza bertan bera bukatuko da geiagokorik gabe. Onela ikusi izan ditugu sendatzen gaxorik asko, esandako moduan gaitza etorri izan danean; eman gabe ez bañurik eta ez eta ere beste erremediorik zeñak ematen diran egiaz ondasun aundiarekin zenbait moduz tiputza azaldu oi danean.

Esan zagun oraiñ noiz diran biziro agindu bearrekoak gaitz onetan bañuak.

Nolabait ere buruko naspillatze eta bizkarmuñeko zañetako dardararak gorputz guzian azaltzen diranak, alkarganatzen diranean berotasun aundiarekin, adierazotzera ematen diguten itzegiten degun gaxo onen gaiztotasuna eta aunditasuna zenbaterañoa dan, aetatik kontua atera bear degu noiz eta nola bañuak

erremediotzat eman bear ditugun. Beragatik, arako gaitzak lendabizitik dakarrenean berotasun aundia zeñak ez dion uzten baterere aurreneko amar edo amabi egunetan, eta gañera dagoala gaxoa zenzu gabe eta burutik naspillatua, edo beso eta oñetako dardararakiñ, orduan bai uste degula eman bear zaio-la bañu epel bat, zeñak geienean esandako okertasun oek zuzendu oi dituan. Ez degu uste era berean, zenbait kanpoko parajeetan usariyo dan bezela, eman bear dirala busti aldiak iturriko ur otzarekiñ bada au gogorra derizkiogu eta gañera ez da gauza ezereren erreparo eta arraxkurik gabe egiñ litekeana gertatzen dan bezela beste aldera bañu epelakiñ. Beragatik erri txikietan bizi diran medikuai dagokiote erakustea baserriko eta langille jendeai zenbateraño diran onak esaten ari geran bañu epel oek gaitz izendatutako onetan; eta erriko jaun eta agintariai berriz, ekarri edo egiñ aztea artarako bear diran ontzi egokiak zeñak erraz erabiltzekoak oi diran leku batetik bestera.

Bañu emateko modua da gauza txit erraza; asko da onetarako dagoan ontzia ipintzea oiaren aldame-
nean bear dan aiñbat ur epeldutakoarekiñ, eta bertan sartutzea gaxoa ogeita emeretzi edo berrogei gradura iristen danean daukan berotasuna, edo daukanean

buruko naspilla aundia; eduki bear dira ere ur otza eta beroa beste ontzi banatan nastutzeko eta edukitzeko bear dan tenplean bañuko ura. Naikoa izan oi da ipintzea bañua ogeita zortzi gradutan zeñak joan litezkean jatxiaz eta eman bear zaiozka idurzi batzuek gorputzean urtan sarturik dagoan denbora bitartean, bañan eduki bear du ere burua urtatik kanpoan eta berotu ez dediñ bustiaz noizik beiñ ur otz pixka batekiñ edo zapi uretan bustitako batekiñ estalia: esaten ditugun idurziak dira onak, zergatik berrogei graduko berotasuna daukan gaxo batek, sartutzen danean ogeita zortzi dauzkan uretako bañuan, errazago igarotzen du amabi gradu oen alde pixka bat idurziaz eta odolak mugituaz, ez geldirik egon eta baño.

Bañutik ateratzen danean batu edo bilduko da gaxoa izara batekiñ eta onela dagoala eman bear zaio ardo aundi pixka bat edo salda edo beste piztugarri bat, eta utzi bear zaio geldirik; bada bañu ondorenean jatxi oi da berotasuna eta bai ere etorri gaxoari logurre gozo eta ongillea, zeña bitartean utziko diogun pakean. Gauza egokia izango da egotea beintzat lenengo bañuan medikua ikusten gauzak nola egiten diran; eta emen esan bear degu ere, geienean asko izaten dirala iru edo lau bañu egun batetik bestera,

eta bakoitzean egon bear duala gaxoak gutxienean ordu laurden bat urtan sartuta: bañan lendabiziko bañuak erakutsitzen duala urrengoak nola eta zenbaterañokoak izan bear duten, ikusi eta gero arrek gaxoa nola artutzen duan. Eziñ bagendu bañuak emateko modurik egiñ gaxo bati bere etxeakoak nai ez dutelako edo beste edozeiñ gora beragatik, orduan gauza ona da besterik ez bada ere ura eta ozpiñarekin egindako naste batekin gorputza bustitzea ipiñirik iru aldiz ur geiago ozpiña baño: da au ere erremedio ona naiz ez izan bañuen parekoa. Au da gaurko egunean tiputza gogor datorrenean leku guzietako medikuak ontzat eta lendabizikotzat ematen duten erremedioa, eta uste degu gure parajeen ere iritxiko dala jendearen artean edukitzera bear eta merezi duan begiramentua, geiago zabaltzen danean bere usariyoa egu-netik egunera dijoala ikusten degun bezela.

BOSTGARREN ARGIBIDEA

Gure gorputzaren azalean argitaratzen diran gaitz batzuek (naparrei edo baztanga, elkorri edo txarranpiña) eta beste antz onetakoak zer eta nola izan oi diran, eta oen erremedioak.

Naiz eta argibide onetan itzegitera goazen gaitz moduak azaldu oi diran umetasunean, eta egokiago iritzi al izan beraren gañean itzegitea aurrerago liburu onetan umeen gaxoen gañean itzegiten degun argibidean, uste izan degu leku apartako bat bear dutela gaxo oek berentzako; bada aiñ dira bata besteagandik banakikoak beren azalduerako señaletan, eta aiñ-beste nastu litezke beste gaitz batzuekin iraupena daukaten bitartean, eta azkenik bai eta ere gaxo oetan beste askotan ez bezela da gauza bearra zenbait erreparo eta garbitasun egitea, diran bezelakoak diralako eta onela aginduta dagolako.

Oraiñ itzegitera goazen gaitz modu oei deritzen zaiote *azalkorrak* zergatik beren asierako denbora bitartea igarotzen danean eta zeñatan edukitzen duten gaxo daudenak berotasun gutxi edo geiago,

argitaratzen diran gorputzeko larru azalean batzuetan pikorta itxuran, eta besteetan puslo edo maskullu eta oen antzeko batzuetan zabaldu, emanik izaera *elkorri edo txarranpiña, eskarlata edo besuteoa, napa-rreiya edo baztanga*, eta modu onetan beste izenez ezazutzen diran batzuei.

Errazago konturatzeko zer nolakoa izaten dan gaitz oen izaera modua, izendatzen dira beretan denbora tarte jakiñak zeñatako bakoitzean gaitzak azaldu oi dituan ere señaile jakiñak aurreragoan esango degun bezela. Lendabiziko tarte orain aitortzen ditugun oetatik izaten da gaitzez kutsutu ezkeroztik, oraindik bera ezer argitaratu gabe dagoan denbora bitartea; au da, osasunean mudantzarik igertzen ez duan denbora naiz eta gaitzez kutsutua norbait egon; bigarren tarte deritzen zaio lendabiziko ondoezak sentitzen asitzen danean kutsutua dagoana, eta izendatzen da gaitzaren *asiera*; irugarren tarte da larru azalean gaitz oetako edozeiñ azaltzen danean esaten dioguna, zeña izendatzen dan gaitzaren *azalduera-koa*; eta azkenik laugarrena berriz larru-azaleko pikorta, puslo edo maskullu oek legortu eta erortzen dirana, osasunara gaxoa biurtuaz; zeñari deitzen diogun *legortzekoa*.

Itzegiten ari geran gaitz oek berekin daukaten gauza bat da, izatea biziro pegakorrak; eta naiz eta oraindik gaurko egunean ez egon ongi argitaratuta zer nolakoa dan gaitza pegatzen duan gauza ura bera, badakigu beintzat gertatzen dala pegatze ori aizearen, edo jazteko arropen, edo gaxo daudenak gorputzetik botatzen dituzten zikinkerien bitartez; eta au jakiñarekin asko aurreratua daukagu ere eraotzi azteko onelako gaitz moduak zabaltzea iñoiz gertatzen dan bezela, ematen dituztela etxeetan naigaberik asko berekiñ dakazkiten arraxku aundiak gatik.

Beste gauza bat gertatzen dana esaten ari geran gaitz modu oekin da, ez dirala, biziro gutxitan ez bada, azaltzen beiñ bañan geiagotan norbaiten gaiñ bizitza guztian, aukeratuaz onetarako bakoitzak urte jakiñ batzuek, bada asta-naparreiya azaldu oi da bakar bakarrik ume txikien artean, eta elkorriya eta eskarlata berriz, aetan eta baita aziyagoetan ere eta azkenik naparreiya azaltzen da edozein sasoitian naiz eta gaurko egunean asko gutxiago lenago baño, eskerak txertuari aurreragoan esango degun bezela.

Itzegiten ari geran gaitz modu onen asierako seña-leai dagokionagatik esango ditugu orain beste itz labur batzuek, oen bitartez gure irakurleak ezaguera

eduki dezaten gaitz oetakoren bat datorrenean zein izan ote litekean izendatu ditugunetan, medikua gaxoaren jabe egin bitartean, eta artu ditzaten ere berakiñ bear diran erreparoak.

Gaitz oetakoren batekiñ kutsutu eta bera asitzen ez dan bitartean mudantzaren bat egin azten norbaiten osasunean, ez da erraza izango antz ematea zein aetako azaldu ote litekean; bañan beiñ gaitzak asiera eman ezkeroztik, denbora bitarte onetan argitaratzen dira aetako bakoitzean señaletan jakiñak, zeñaren bitartez konturatzen geran zein izan bear duan azaldu bear duan gailza.

Gauza oek onela izanik, ikusten degunean ume bat zerbait berotasun daukana, urzinzaz edo domiñustekuka ari dala, eta begietako negar malkoak darizkiola sudurretako jarioakin batera, edukiaz erabat eztula gutxi edo geiago, esan gentzake ume oni datorkiola *elkorria edo txarranpiña* deritzen diogun gaitza. Señale orain izendatu ditugun oek igaro ondorenean, au da, iru edo laugarren egun inguruan asi ziranetik, asitzen da ere gaitza gorputzeko larruan azaltzen, lenda-biziko kopetean, bereala zabalduaz arpegi guztira eta lepo ingurura. Berrogeita zortzi ordu barruan artzen du gorputzeko larru azal guztia, zeñatan eduki bear

degun begiramentua, bada eskarlatak asko izaten ditu zortzi edo hamar ordu lan au bera egiteko, eta gañera au gertatu ondoren segitzen du gaitz onetan berotasunak, elkorrian gertatzen ez dan moduan.

Elkorriak izaten ditu arkakoso janaren antzeko gorritasun batzuek larru azalean; bañan ez aiñ kolore bizikoak nola oi dituan eskarlatak, eta ez eta ere aiñ nabarmenak eta aziak nola berekiñ asieran naparrei-yak izaten dituan. Lau egun igarotzen diranean gorputzean azaldu ezkeroztik, asitzen da alde egiten eroriaz zaia balitz bezelako auts baten itxuran lendabizi arpegitik, eta urrengo beste leku guztietatik segitzen dutela aurreragoko egun batzuetan oraindik eztulak eta begi eta sudurretako negarrak. Gaitz au ez liteke izan baterere bildurgarria gauzak beti onela zuzen gertatuko balira, bañan iñoiz badaki ere okertzen eta ekartzten ondorenean lanbiderik asko aurreragoan esango degun bezela.

Ez elkorria beziñ sarri asaltzen dana bañan bai bildurgarriago eta txarragoa da *eskarlata* edo *besuteoa* izendatu degun gaitza, zeñaren señalerik bearrenak adierazotzera goazen orain.

Elkorrian lendabizi azaldu oi diran bezela esan ditugun eztul eta sudur begietako negarrak, eskarla-

tak oi du bere asieratik berriz beti *eztarriko miña*, eziñ ezer irintxirik gaxoa utzitzen duana, eta berotasun biziro aundi eta erre bear balu bezelakoa: mingaña egoten da ere gorritua alako moduan non badirurien auts gorria gañean bota diotela, edo esan oi dan bezela marrobiaren antzekoa. Esandako señaile oek etorri eta ordu gutxien barruan azaltzen da gaitza gorputzeko larruan lendabizi belarri, arpegi eta lepoan, zabalduaz gero ordu gutxian esan degun bezela beste leku guztietara zaplara gorri eta aundi batzuek, itxuratuaz eguzkiak egiñ oi dituan erretasunak eta bai eta ere abakando edo langosta egosi batek edukitzen duana. Gaitzaren *legortzea* asitzen da geienez bost edo sei garren egunean eroriaz larru azala zaplara aundietan subeari larrua joan oi zaion moduan, izanik aundiagok azal zaplara oek esku eta oñetan.

Modu onetan izan oi da eskarlata bidezkoa eta ezer okertasunik gabe joaten danean; bañan sortzen diranean tarteko gaitzak iñoiz oi dan bezela, dira aek biziro txarrak eta odolean gaitzaren pozoia dagoala adierazotzen dutenak. Aurreragoan esango degu zerbait gaitz modu oen ez bideen gañean, zeñatetik batzuek iritxi litezkean aetako edozeñengana, eta beste batzuek berriz diran gaitz bakoitzarentzat jaki-

ñak; eta batak eta besteak beti eraozten diote azaltzen diran gaxoari okertasun eta arraxku aundiagoa beti kontuan eduki bear deguna.

Itzegiñ zagon oraiñ gaitz pegakorretakoen artean azaldu oi dan nazkagarrienetako baten gañean, eta zeñagandik gaur alde egiñ gentzakean txertuaren bitartez; da au *naparreiya* edo *baztanga*.

Larogei urtez unuztik egiñ du gaitz oni dagokion lantegiak mudantza txit aundia, bada ez da gaurko egunean nazioen kastigu bildurgarri antziñako denboretako eriotzagille ura, baizikan noizik beiñgo ostalaria, geroago eta gutxiagotan gure artean edukiko deguna txertua zabalduaz dijoan bezela, eta azkenik begien aurretik alde egin bear diguna gure aldetik jartzan ditugunean bear bezela onetarako bear diran erreparoak. Gauza onek onela izan bear duala ez dago zer esanik, zergatik Alemaniako nazioan zeñatan dan txertatzea eta txertuberritzea nai eta naiezkoa jende guztiarentzat, ez ziran izandu 1890 garren urtean, au da orain bederatzi urte, *berrogeita emezortzi* (58) besterik naparreyarekin ill ziranak; da esatea, gizon edo emakume *bat bakarra* nazio artan bizi dan milloi bat jende bakoitzeko, erakusten diguten bezela gauza

onen gañean urte artan mediku batek eraman dituan kontuak.

Naparreiyak izaten du bere asiera otzikara aundi bat edo geiagorekin, eta onen ondorean azaltzen dira gora larriak, gorakoak eta gorputz guztiko miñak, zeñak oi diran aundiagoak gerrian gultzurrunetako parean; gañera etortzen dira ere batzuetan burutikako nastutzea gizon edo emakumeetan eta gorputz guztiko dardararak ume txikietan, batezere txertatu gabekoetan. Gauza oek guztiak eta berotasunak alde egiten dute iru edo laugarren egunean kanpora azaltzen naparreiya asitzen danean, eta orduan gaxo dagoana arkitzen da ere deskansuz eta aurreko egunetan bañan obetoago. Lendabizi azaltzen asitzen da naparreiya arpegian ezpañen inguruan; bereala artu oi ditu lepoa, kolkoa eta besoak itxuratuaz gorritasun borobill antzeko batzuek, zeñak geroagoan joaten diran nabarmenduaz azalaren gañean arta ale batzuek balira bezela, ur zuri batez beteak eta beren erdian zapalduak gilbor txiki baten itxuran. Azaldu eta seigarren egun inguruan ur zuri au zornatan biurtzen da eta au gertatzen danean berritzen da berotasuna gaitzaren asieran aiñbat, edo baita ere geiago puslo asko badauzka naparreiyak, naiz eta au ariña danean

berotasuna ere izan oi dan modu berekoa. Batzuetan pusloen barruan egoten dala esan degun ur zuri aren lekuan edukitzen dute oek odola eta orduan naparreiya izan oi da biziro bildurgarria eta izendatzen da *naparrei beltza*. Zortzitik amargarren eguna bitartean legortzen dira posloak eta erorten dira utziaz zauri txiki batzuek zeñak sendatzen diran beren ondoren betiko señaileak utzita.

Azkenik itzegiten ari geran gaitz oen gañean esan bear ditugun itz laburrak bukatzeko esango ditugu *asta naparreiya* deitzen diogunari dagozkionak adierazoaz, gaitz onek ez duala zer ikusirik ez naparrei egiazkoarekin eta ez eta ere *naparrei zoroa* izendatu degunarekin, bada asta naparreiya beti azaltzen da berotasunik gabe, eta bere azaldueran utziaz egun bateko edo biko tarteak; gañera pusloak ez dira erdian zapaltzen eta beren barrungo ura ez da ere naparreiarena bezela zornatzen; eta azkenik astanaparreiya bakar bakarrik azaltzen da beti ume txikietan.

Aditzera emanik bada gure usteetan gaitz modu oen izaera nolakoa oi dan al izan degun laburtasunik aundienarekin, bukaera emateko bostgarren argibide

oni esango ditugu itz bi berari dagozkioten erremedio-
en gañean.

Jotzen badu gaitz oetakoren batek gizon edo emakume osasuna onekoa eta sendoa, eta ez badator gaitza indar aundiarekin, asko da gaxoa edukitzea leku artarakoan oztu ez dedin moduan eta artuaz garagar edo borraja loreen ur pixka bat bada onenbesterekin ondoezak alde egiñ oi du egun gutxi barruan ez badira sortzen beintzat gaitz oek berekiñ iñoiz oi dituzten okertasun edo ez bideak. Oetatik geienenbat elkorrian azaldu oi diranak dira biriketako katarroa eta alborengoia; eta ala, gertatzen danean gaitz onekiñ umea gaxorik dagoanean iriztea daukala berak asnase estua, berotasun aundia eta pulsu bizia, eta onetzaz gañera ikusiko balitz elkorriaren piporta gorri aek alde egiñ edo ezkututzen dirala bat batera larru azaletik, bereala deitu bear zaio mediku bati denborarik batere galdu gabe, bada ume arrek dauka pulmoniya edo onen antzeko beste gaitz bildurgarri bat. Gaxoaren jabe medikua egiñ bitartean ipiñi lezaioke umeari bularbitartean eta bizkarrean linazizko' enplasto bat mostaza autsarekiñ nastua, edo baita ere sartu umea ur epeldutako bañu batean zeñetan ona dan botatzea azkena izendatu degun autsa bera.

Betazaletako eta begietako miñak, zeñak sortu oi diran ere elkorri ondorean, azaldu ez ditezen, da bizi-ro gauza ona edukitzea leku aetako garbitasun aundia, eta au bera egiñ bear da ao eta eztarriarekin ere.

Eskarlataren oker aldietan sarriena etortzen dana da eztarriko miña gaitz onek beti berekin duana biur-tzea beste moduko batean, au da, eztarria usteltzen duan modura, edo garrotilloa sortu azten duala; ez dago zer esanik zenbaterañoako erreparoak artu bear-ko ditugun bada gaitz onekiñ. Edukiko da beti eztarria garbi limoiaren zumu edo beste artarako medikuak agindu litzakean erremedioakin bear bezela igortziaz izipu txiki batekiñ. Beste okertasun bat oi duana eskarlatak da gultzurrenetako gaitza zeñak egiten duan gorputz guztia aunditzea lendabizi betazaletatik eta arpegitik asiaz eta bai eta iñoiz azaltzea gorputz guziko dardarara bildurgarri batzuek askotan eriotza beren ondorean ekartzen dutenak.

Gauza oek erremediatzeko da medikantzarik onena esnea besterik ezer ere artu gabe gaxoa ego-tea eta lurrunakiñ izerdi aundiak aterazitzea, emanaz ere barrua garbitzeko eta txixa ugaritzeko dauden beste erremedio artarakoak. Azkenik gaitz modu oetan eduki bear da garbitasun aundia eta ipiñi erre-

paro guztiak ez ditezen okertu, eta gaxo daudenak ez ditzaten pasatu zenbait naigabe gaitz oetan sortu litezkeanak emanik noizik beiñ bañu epelak.

Baita ere gaxo oetan guzietan agindu bear da beren gandikako apartamentua utziaz aek leku baka-
rretan beren kontuartzalleak beste iñork ikusten ez dituala, egiñik ere arropa eta beste aen egon lekuko gauza guztien garbitasuna eta itxiaz eskolak eta beste edozein jende billera aundiak osatu litezken lekuak onelako gaitzen batzuek azaltzen diranean.

Obetoago argitaratzeko izendatu ditugun gaitz oek batak bestearekin dauzkaten itxura moduak eta ez izateak ipintzen degu orain itz gutxian aitormen aurreragoko au gure irakurlearen ikusmenerako.

ELKORRIA EDO TXARRANPIÑA

Berotasuna ez da aundia: ez da geituaz joaten eta geienez gutxitzen da elkorria azaltzen danean.

* * *

Elkorria azaltzen da laugarren egun inguruan len-
dabiziko arpegi eta lepoan eta joaten da andikan gor-
putz guztira zabalduaz beste bi egunean.

* * *

Elkorria azaltzen da arkakoso janaren itxuran eta
tarteko larru azala egoten da oitura duan moduan.

* * *

Elkorriak irauten du larru azalean bost egun eta
oen ondorenean joaten da larrua zaiaren antzeko auts
bat balitz bezela.

* * *

Mingaña egoten da lakarrez betea eta inguruan
gorritua.

* * *

Geienean azaltzen dira begietako negarra eta
sudurretako jarioa, eta eztula gutxi edo geiago.

* * *

Gutxitan oi da eztarriko miña.

* * *

Gaxoak ez dira burutik nastutzen.

* * *

Elkorriaren ondorean geienean sortu oi diran gaitzak izaten dira ez tul txarrak, alborengoak, eta begietako eta belarrien barrungo aundidura zornatzekoak.

ESKARLATA EDO BESUTEOA

Berotasuna da txit aundia eta irauten du gutxitu gabe gaitza azaldu ezkeroztik atzeneraño.

* * *

Eskarлата азалтзен да bigarren egunean lendarbizi-ko lepoan eta bular inguruan; eta zabaltzen da gorputz guztian bereala, au da, zortzi edo amar orduan.

* * *

Larru azal guztia азалтзен да gorritasunezko zaplara aundi batzuez betea tarterik utzi gabe.

* * *

Eskarlatak irauten ditu sei edo zazpi egun eta oen ondorean joaten da larrua zaplara aundietan sube larruaren antzera.

* * *

Mingañak edukitzen ditu marrobiaren piporta gorrien antzeko koskor txiki batzuek.

* * *

Ez da beñere азалтзен begietako negarrik eta sudurretako jariorik, eta eztula berriz gutxitan.

* * *

Beti du berekin gaitz onek eztarriko miña.

* * *

Geienezan nastutzen dira gaxoak burutik eta iñoiz izaten dituzte ere gorputzeko dardararak.

* * *

Eskarlata ondorean geiena sortu oi diran gaitzak dira giltzurrunetako gaitza zeñaren bitartez gorputza guztia aunditzen dan, erreumak, garrotilloa eta gorre-riya.

NAPARREIYA EDO BAZTANGA

Berotasuna geienezan da aundia eta iru edo laugarren egun bitartean azaltzen asitzen danean naparreiya zeñak aurrenengo irteten duan kopetean eta ezpañien inguruan, gutxitu egiten da.

* * *

Naparreiyak aurrenean izaten ditu piportak zeñak bigarren egunean biurtzen diran puslo edo maskulutan, eta oek erdian zapalduak eta zuri antzekoak izaten dira.

* * *

Mingaña egoten da lakarra eta askotan aunditua.

* * *

Ez da azaltzen naparreiyen sudurretako jariorik eta begietako negarririk; eta oi du berekiñ eztarriko miña naiz ez eskarlatak aiñ betekoa.

* * *

Geienean oi du naparreiyak berekiñ gerriko miña.

* * *

Geienean naparrei dunak burutik egiten dute eta bai eta ere askotan oi dituzte gorputz guztiko dardarak.

* * *

Naparrei ondoren ez da sortu oi beste gaxorik bañan zornatutako pusloak izan litezke berez arraxku aundikoak begietarako eta baita ere utzitzen dituzte larru azalean betiko señalearak.

ASTA NAPARREIYA

Berotasuna izan oi da guztiz txikia eta alde egiten du bigarren eguna ezkeroztik.

* * *

Asta naparreiya azaldu oi da bigarren egunean, lendabizi bular eta bizkar aldean, eta gero arpegi, beso eta istar eta anketan.

* * *

Asta naparreyak asieratik oi ditu berekiñ puslo edo maskulloak eta ez pikorta gogorak naparreyak dituan bezela lenengotikan.

* * *

Asta naparreiya egun gutxian legortzen da eta ez du ondorenean uzten señalearik naparreyak bezela.

* * *

Beste edozeiñ bañan pegakorragea da bañan ez da azaltzen umeetan besterikan.

* * *

Da ere guztietan kontu gutxienekoa, eta ez du ondoren gaitzik ekartzen.

* * *

Asta naparreiya da gaitz jakiñ bata besteren antzik gabekoa eta zer ikusirik ez daukana naparrei zoroa deitzen diogunarekiñ.

Gizonak bezela izan oi dute ere naparreiya zenbait animalik nola oi diran ardiak, zaldiak eta beiak bakoitzak bere antzekoa eta itxurazkoa. Ardietan azaltzen dana da gizonak izaten duan naparreyaren antzik geiena daukana eta egoten da gorputz guztian zabaldurik: zaldiak edukitzen dutena izan oi da askotzat leku gutxiagoan zabaltzen dana bada geienez azaltzen zaiote anka-beetan; eta azkenik beiarena egoten da bakarrik oen errapean edo titi muturretan. Onen bidez eta gizon jakintsu batek gauzari artu zion erreparo aundien bitartez sortu zan *txertua* naparreyari alde egitekoa, zeñaren gañean goazen esatera itz batzuek oraiñ argibide onen bukaerarako.

Txertatzea eta txertuberritzea.— Medikantzako kondairetan interesatsuenetatik bat bada iñolaz ere Jener zeritzaion mediku ingeles arrek egiñ izan zituan alegiñak eta lanbideak iritxi zuan arte jendeen artean sartu eta ontzat oek edukitzea naparreyaren txertua.

Lendabiziko ezagutu zan zer gauza zan txertua Inglaterrako Gloucester deritzaion probintzi batean,

zeñetan bertako artzai batzuek konturatu ziran beiak biltzen edo esnea oei jazten ibiltzen ziranetatik nor edo nori pegatzen bazitzaion iñoiz edo beste beiak errapean izan oi dituzten maskullu edo pikorta batzuek, au gertatzen zitzaieten aek ez zutela beñere izaten napparreirikan. Geienean gertatu oi dan bezela gauza on bat ustegabeen norbaitek billatu edo ezagutzea, orduan ere gertatu zan jende oekiñ, zeñatetik askok ez ziyoten eman nai izandu bear zuan baliyo eta sinismenik Jaungoikoak azaldu nai izan zioten gauza miragarrizko oni. Bañan lenago izendatu degun Jener mediku ura, zeña bizi zan orduan (au da, gure aurreko gizaldiaren bukaeran), au gertatu zan paraje oetan, asi zan erreparoak artzen eta ikasten zer nolakoa zan beiak izaten zuten gaitz esandako ura, eta nola gertatu ote zitekean gaitz au gizonai pegatzen zanean ez napparreiyak jotzea gizon edo emakume oek. Izandu zituan gizon jakintsu onek au argitaratzen zuan bitartean eta bai eta geroztik ere naigabe asko, zergatik askotan oi dan bezela eziñ au eraman zutenak eta eziñ ikusiak, egiñ zituzten ere beren alegiñak al izan zuten modu guztiakin gauza arren baliyoa lurperatze-ko eta jendeak ez aintzakotzat artzeko; egiñik azkenik bei baten itxura paperetan, zeñean azaltzen zan au

guztia zauriz beterik eta ume biziak jaten ari balitz bezela; esanik ere, txertatzea etzala gauza gizonai egitekoa baizik ganadu eta oen antzekoai bakarrik. Bañan denborarekin egiak bere bideak iriki zituan eta gaurko egunean txertatzea dago ontzat emana eta ezagutua paraje aurreratu guztietan: ez da erraza adierazotzen beraren ondasuna eta egiñ dituan mese-deak, bada beraren parekorik ez degu ezagutzen ez bada kordea kentzeko erremedioak zeñaren bitartez gelditzen dan sentidurik gabe gure gorputza; eta gaurko egunean egiten diran operazio aundi eta bil-durgarrietatik ateratzen dan beziñ erraz ateratzea.

Zenbateraño eragozten duan txertuak naparreiya jakiteko ez dago ikusi besterik artarako kontuak artu eta dauden lekuetan, beti gertatzen dala azaldutzea naparreiya geienenbat txertatu gabekoetan; iñoiz edo beste txertatutakoetan; eta beiñ ere ez egiñ kontu, txertuberritutakoetan. Gauza onek adierazotzera ematen du txerta aldi bat bakarra dala denbora jakiñ arte bateraño gaitz gordetzallea; eta ala, onen gañean ipiñi diran erreparaoak erakusten dute bost edo sei urte igaro ezkeroztik beiñ txertatuta, gelditzen dala atzera gorputza naparreiyak jotzeko bide edo moduetan, bada esandako denbora bitartean bakarrik

edukitzen du bere indar edo birtutea txertuak. Onetan bakarrik utsegiñ zuan lenago izendatu degun mediku txertua lendabiziko asmatu zuan arrek, bada uste izan zuan asko zala beiñ bizi guztian txertatzea naparreiyaren bildurrik gabe egoteko; bañan denborak erakutsi du ez dala au onela, eta bai eta ere zenbat eta geiagotan txertatu bere sasoi moduetan, orduan eta errazago alde egiten zaiola naparreiyari bada mediku jakintsu batek eraman dituan kontuetatik sei milla naparreiyarekiñ illdakoen artean, ateratzen du oetatik *euneko ogeita bost* (25%) zirala berak ziyoten ez txertatutakoak, bañan ez zeukatenak besoetan txertuaren señalerik; *euneko zazpi eta erdi* (7'50 %) txertuaren señaile bat bakarra ageri zutenak; *euneko lau* (4%) bi señailekikoak; *euneko bat eta iru laurden* (1'75%) iru señailekikoak, eta lau señaile edo geiago zeuzkatene-tatik, bakarrik pasatu zutela naparreiya *euneko iru laurdenek* (0'75%). iritxi ere gabetanik *euneko batera*.

Udaberria eta udazkena dira urte sasoirik onenak txertatzeko sei illabete kunplitura dauden umeak; obeak dira esandako urte sasoi oek ez udara edo negua diran baño, zergatik neguko otzak aizeratu azten du asko txertuaren etorrera, eta udaran berriz usteldu egiten da askotan txertuko zornea; bañan alaz

guziaz ere leku batean naparreiya zabaltzen asi ezke-
ro, edozein denboretan sartu liteke txertua naiz eta
bai eta ere ume jaio berriai, bada gertatu litekean
gauzarik okerrena litzake, bat batera azaltzea txertua
eta naparreiya zergatik egon litekean umea naparrei-
yarekin kutsutua txertua sartu bañan lenago, eta one-
tatik ez letorke gaitzarentzat ezereren okerrik, baizi-
kan mesede baizik ez du egiten orduan ere txertuak
naparreiya bigunagoa izateko. Umeen artean ez du
txertuak egiñ oi osasunean mudantza aundirik, bada
iñoiz edo bestetan bakarrik sortu oi du berotasun
pixka bat, txertua sartu eta andik iru edo lau egunera
asitzen diranean pusloak zornatutzen; orduan batzue-
tan azaldutzen da zerbait berotasun, eta txertatutako
lekuan bertan azaltzen diran aundidurak edo beste
gañerantzekoak, dira alakoak nolakoa zan txertua, eta
zenbat tokitan au sartua izandu dan.

Agindu oi da geienetan zulatzeko beso bakoitza
iru lekutan, zeñatan au egiñ eta iru edo lau egunen
barrunbean asitzen dira sentitzen txertatutakoak miñ
pixka bat eta azkure aundia; laugarren egun inguruan
azaldutzen da botoi txiki baten antzeko piporta gogor
bat, zeña biurtzen dan puslo edo maskullutan bostga-
rren edo seigarren egunean; maskullu au da erdi erdi-

yan zapaldua, eta bere inguru guztia gorritasunez betea egoten da; zortzigarren egunean iristen da bere azitasunik aundienera, eta edukitzen du orduan zillar kolorea, bere barruan daukan zorneak ematen diona: amargarren egunean legortzen asitzen da puslo au, eta legortzen danean guztia, erortzen da ogeitik ogeita bostgarren egunaren inguruan utziaz señaile biribill bat beti ezagutu oi dana.

Batzuetan gertatzen da esan degun puslo edo txertuak ateratzen dituan maskullu aek ez edukitzea beren erdian, eduki bear dutela esan degun bezela, arako zapaldu ura; onelako pusloak ezkututzen dira biziro egun gutxiren barrunbean eta orduan txertu au ez da bear bezelakoa, eta ez du edukitzen ere napa- rreiya eragozteko indar edo birtuterikan, beartzen dala beragatik berriz txertatzera au gertatzen zaiona.

Txertua izan liteke esan degun bezela beiaren errapetik aterea, bañan bai eta ere zaldietan sortua, eta azkenik ume baten besoan zegoana.

Izanik aiñ gauza erraza eta baita ere egokia besoz besoko txertatzea, badauka onek ere bere arraxkua, zeña dan, beiñ edo beste gertatzea txertuarekin bate- ra eragozte gaitz txarren bat txertatzen danari, zer- gatik egon litekean zenbait gaitz pegakorrez nastua

txertua ematen duan umea; beragatik onekin eduki bear da kontu aundia eta aukeratu onetarako guraso osasuna onekoen umea, sei edo zazpi illabete gutxienan dauzkana, bada onetara ezkerro azaldu oi zaio umeari berekiñ badauka gaitz gaiztoren bat odolean.

Gaurko egunean erri aundietan txertatzeko dagoan usariyoa da ateratzea txertua txal gazteen errapeetik zeñak aurrez egoten diran ere beiaren txertua sartuta. Onela eragozten da pegatu al izatea txertatzen dan ume edo beste edozeñi biriketako gaitza, zeña askotan eduki oi duten beiak eta ez berriz txal gazteak; eta oek edukitzen dituzte artarako jarrita dau den leku egokietan zabaltzeko erri guztietan txal oei ateratako txertua alkate edo beste edozeñek eskatzen duanean.

Bukaera emateko argibide oni esan bear ditugu itz bi txertatzea nola egiten dan eta geroagoan berarekiñ artu bear diran erreparoaren gañean, onela argitaratzen degula gauza onen ondasuna zeñaren bitartez eragotzi litekean naparreiya dan bezelako gaitz nazkagarri baten sortzea eta jatorria.

Medikua da bakar bakarrik eskubidea daukana gauza oek egiteko onetarako eskatuaz erriko alkate edo agintariai bear dituan txertuak, eta oek sartzeko

artarako egiñ eta dauden lanzetak. Ez gera aspertuko gauza onen gañean jendeari adierazotzen zeñ usariyo txarra dan leku askotan egiten dutena egitea, au da, txertua sartzea orratzarekiñ edo bizar labanakiñ, bada oekin gertatzen dana da ez txertuak artzea eta bai eta ere beiñ bañan geiagotan egindako urratuak edo zuloak gaiztotzea. Edozeiñ moduz ere txertua sartu liteke zulatu txiki bat eginda, edo arramaskaren antzeko urratu txiki baten bitartez, edo azkenik bai eta ere txertuaren zornea larrupean jiringa txiki artarako batekiñ sartuta; bañan beti eduki bear dira onetarako kontuan orain esatera goazen gauza oek.

Lendabizikoa, txertua kentzen zaion umeak izan bear duala osasuna onekoa eta odolean lenago esandako gaitz gaiztorik ez daukala dakiguna: bigarrena, ez dala txertatzeko denboran odolik atera bear; irugarrena, eduki bear dala kontua txertatu ondorenean, au sartu dan lekua garbi edukitzekoa ez ditezen sortu izipula edo aundidurak iñoiz gertatzen dan bezela; eta laugarrena, txertatu bear dala besoaren goienean agiri dan aragi pusketa lodi arren ondoan egiñaz iru zulatu aldi beso bakoitzean lanzeta berria artuaz ume bakoitza txertatzerakoan.

Gauza oek onela egiñik eta txertu on batekiñ, beti ongi erantzuten du lantegi onek; eta oraindik obetogo erantzungo luke berriz, egingo balitz gure parajeen kanpoko nazioetan bezela nai eta naiezekoa txertatzea jende guztiarentzat, emanik kastigu gogorrak onetara jarri nai ez duten guztai, bada ez bakarrik dira onelakoak beren buruaren kaltegilleak, ez bada bai eta ere besterentzat arraxku ipintzalleak beren ajolagabekeriaren bitartez.

SEIGARREN ARGIBIDEA

Gure gorputzak asnasea artzeko ipiñita dauzkan tokietako gaitzik ugarienak, au da, eztarriko, zinzurreko eta biriketakoak.-

*Zergatik gaitz oek diran ugariagoak gure parajejan.-
Asnasea artzeko tokietako osasun legeak.*

Asnasea artzeko ipiñita gure gorputzak daukan lekuak baditu zenbait pusketa, zeñatatik lendabizi izendatu bear diranak diran *birikak*, daudenak beren barrunbe guztia *kanale* txiki batzuez beteak, eta oek berriz beste eziñ konta ala zaiñ txikiz estaliak daramatenak gorputz guztiko odola leku aetara; birikak daude zaku baten antzeko estalgarri baten barruan gordeak, eta gañera kanpoko airea beretara *zinzurra* esaten diogun kanale lodi baten bitartez sartzeko moduan: azkenik dauka berriz zinzurrak bere asiera lekuan zabaldu aldi bat, zeñatan sortzen dan egiten degun *itza*, zeña izendatzen dan *eztarria*. Pusketa oek guztiak daukaten egitekoa ez da besterik ez bada alkarganatzea gure gorputzaren leku barru oetan, zañetan dijoan odola eta kanpoko airea; modu onetan

artu ditzan odolak argandik artu bear izaten dituan konpongarriak, gauza izan dediñ biziak beste gorputzeko pusketan guztietan iraun dezan, eta utziaz ere bere lanak egiñ ondoren baztar guztietako zañak korrituta, kaltegarri gelditzen zaizkan beste gauza batzuek; onela ikusten degula arrigarritasun aundi batekin zeñ miragarritzko egitekoak gertatzen diran gure barrunbean, odolaren eta kanpoko airearen artean dagoan alkarganatasun onen bitartez. Alkar jotze au bi gauza oen artean gertatzen da arako birrikak beren barrean dauzkatela esan degun kanale txiki aetan, zeñak arbola baten sustraien antzera dijoazen txikituaz ugarituaz dijoazen bezela: oetara kanpotik sartzen dan aireak zinzurrean bera etorriaz, ez dauka esan ditugun zaiñ txit ugari eta txiki aen barruan datorren odolarekin nastutzeko, armiarma sare baten antzeko estalgarri bat ez bada biyen tartean, eta an alde alde pasatuaz egiten dituzte odolak eta kanpoko aireak beren artean, lenago aitortu ditugun tratuaek, zeñak nola oi diran adierazotzeko gure irakurleai ez daukagun modurik leku onetan zergatik diran argibide oni dagozkion bañan egiteko luze eta aundiagoak.

Emen aitortu bear ditugu bakar bakarrik, izendatu ditugun asnasea artzeko pusketa oetan geienenbat sortu oi diran gaitzak, zeñak lenago esan degun bezela izan oi dira ugariak zergatik leku oek egon bear duten beti esate baterako kanpoko airearen mendean, eta onek bere otz beroan eta bere izaera moduan oi dituan mudantza eta gora bera aundiak.

Begiratzen badegu zeñ aldetatik geienenbat sortuera izan dezaketean asnasa artzeko tokietako gaitzak, ikusiko degu dirala edo katarroen aldetik, edo gaitz pegakorrak sortzen diran aldetik, edo kolpe eta antz onetako beste beargiñ oker eta kaltegarriren batzuetatik. Lendabizi izendatu degun aldetik sortu oi dira geienenbat gaitz modu oek, batzuetan katarroak deitzen diogunen antzera, eta besteetan berriz, oraindik gogorragoak izanaz, nola diran alborengoak eta biriketako aundidurak.

Bigarren lekuan izendatu ditugun etor-bideetan azaltzen zaigu gaitzik aundi eta bildurgarriena bezela *biriketako gaitza*, edo *tisikoak* deitzen diogun aena, eta zeña zenbateraño dan pegakorra atzeragoan zerbait esan degun liburu onetako argibide batean; eta onen urrengo berriz dator gaurko egunean gure arte-

kotzat gelditu naiean dabillen beste gaitz bat zeña ezagutzen degun *trankazoaren* izenarekin.

Azkertik, kolpez edo beste onetako moduz esaten ari geran leku oetan sortu litezkean gaxoen gañean, eziñ aurrez ezer izendatu gentzake, zergatik izaten diran alakoak nola eta zenbaterañoakoak oi ziran gaitz oei sortuera eman lezaiotekean kolpeak edo ebakiak.

Asiera emango diogu lendabizi izendatu degun alderditik etorri oi diran gaitz moduai, ipiñiaz oen artean aurrenengo *eztarriko katarroa* esaten dioguna, zeñak edukitzen duan bere egon lekua zinzurreko geienez, lenago guk egiten degun *itza* sortutzen dala esan degun toki artan bertan.

Eztarriko katarroa daukatenak sentitzen dute leku ortan *garraztasun* edo *azkurea*; gañera edukitzen dute *zakur eztula* izendatu oi dan moduko ura; *itza* izan oi da ere isilla eta lakarra: gaitzaren asieran naiz eta ez dan agertu oi karkaxik geroagoan azaltzen dira oek izanik argiak eta pegakorrek eta aurreragoan biurtzen dira belar kolorekoak eta luze antzekoak. Gaitzak geienez egun gutxitan irauten du eta berekiñ azaltzen diran esandako naigabeak alde egiten dute karkaxak botatzen gaxoa asten danean; bañan batzuetan gaxo dagoanak bear bezelako begiramen-

tuak ipiñi ez ditualako, edo ondo sendatu baño len gaitza berritu dalako, edo artu ditualako eran gogorrak, edo eztarriko miña beste gaitz txarren baten mendean dagoana dalako, gertatzen da sendatu bearrean luzapen aundikoa bera gelditzea. Orduan irauten du eztarriko gaitzak au sortutzen duan gaxoak aiñbeste, eta naiz eta ekartzen dituan naigabeak ez izan aurrenean aiñ mintsuak eta desegokiak, geroagoan izaten dira aek nabarmenagoak, eta geitzen dira eztarriko garraztasuna, eztula, karkaxak eta beste gañerazko esan ditugun oek.

Ez degu leku onetan aitormenik egingo aurreragotan umeen gaxoen gañean itzegitera goazenean beste argibide batean izendatuko ditugun eztarriko bi gaitz moduren gañean zeñai deitzen diogun eztarriko estua edo *ito bearra*, eta *garrotilloa*; eta oek alde batera ordurako utziaz goazen itz batzuek esatera beste katarro baten gañean zeña dan *petxuko katarroa* edo *eztul katarroaren* izenarekin ezagutzen deguna.

Gaitz au ere azaldu liteke egun gutxikoa edo luzapen aundikoa izanaz, eta esan gentzake dala iñolaz ere asnasa artzeko tokietan maizen eta ugarien azaldu oi dana izendatzen degun gaxo au. Gertatzen da esaten deguna zergatik lenago aitortu degun bezela,

asnasa artzeko tokiak dauden kanpoko airearen mende, eta onek bere otz beroan eta beste gauzetan izan oi dituan gora bera aundiak.

Petxuko katarroa asitzen da leku orretako garratasun eta baita ere iñoiz oñaza txar erdiko ezurraren atzean edo bizkar atzean asentua daukan batekiñ, zeña ugaritzen dan eztula egiteko edo itzegiteko denboran. Katarro aundia badator, edukitzen ditu asieran gaxo dagoanak otzikarak, buruko miña, jateko gogorik eza, pulsu bizia eta berotasuna, zeñak alde egiten duten bi edo iru egunen barruan; bañan gaitza bada berez ariña ez du lekurik ematen esandako gauza oek guztiak azaltzeko. Gaxoak egiten dute eztula kolpezka eta sarri antzean, izanik bera aurren aldean legorra: bañan denbora gutxi barru azaltzen dira karkaxak. lendabizi argi antzekoak eta geroagoan berriz loditzen diranak. Asnasea artzen ez dute ezer trabarik eduki oi, bañan iñoiz ikusten badegu dijoala ura estutuaz, esan gentzake gaitza nabarmendu dala eta arrapatu dituala arako biriketan daudela esan degun azkeneko kañu estu eta txiki aek, eta orduan da bera txit kontuzkoa eta arraxku aundikoa bada errai bukaera txarra izan lezake itotzen duala gaxorik dagoana. Itzegiten ari geran katarro au sendatu bearrean gelditzen bada

luzapen aundia daukala, zenbat eta denbora geiago iraun, orduan eta zallago izaten da kentzea, eta askotan gertatzen da edukitzea au gertatzen zaiotenak beren eztul zarra bizi diran denbora bitarte guztian. Gaxo oek ez dute oñazarik izan oi, bañan beren asna-sea beti da gutxi edo geiago estua, eta estutasun au ugaritzen zaiote danik eta indarrrik txikiena egiteko beartzen diran bakoitzean. Beti egiten dituzte ere beren eztul aldiak, eta geienenbat berriz goiz aldera edo egunsentian, modu onetan botatzeko gabez osatu zaizten karkaxak; oek izan oi dira ugariak eta modu askotakoak, asi arrautza zuringoaren itxura daukatenetik eta illar alearen antzekoetaraño.

Bizi litezke gaxo oek urte askotan egunero gure basarrietako eta beste langille jende asko ikusten ditugun bezela, bañan beti negu aldera berritzen zaiote beren gaitza eta pixka banaka joaten dira bigunduaz azkenik gaitzak menderatzen dituan artean birketan eta biotzean egiten dituan ajeen bitartez.

Izendatu ditugun katarroen medikantzaren gañean esango ditugu itz labur batzuek adierazoaz gaxoa danean sortu berria eta gordiña, asko izaten dirala sendatzeko izerdi batzuek ateratzea oiean egonaz, eta artuaz malma loreen edo garagar eta porraja

loreen ur beroak; eta baita ere briaren eta toluren lamedoreak, edo karkaxak ateratzeko eta eztula biguntzeko dauden beste erremedioak, zeñak emen izendatzea guri ez dagokigun diralako medikuaren egitekoak, ikusirik zer nolakoa edo zenbaterañoakoa dan sendatu bearrean argitutzen dan katarroa.

Gure liburu onen eginkizuna kontuan edukirik eziñ esan gentzake ezer alborengo eta pulmoniyaren gañean bada nola gaitz oek biyak diran nai eta nai ez medikuaren bearrekoak, bakarrik dagokigu esatea bat eta bestea azaldu oi diranean etortzen dirala otzaren bitartez geienean, eta orduan beren sortuera izaten dala soñu aundikoa, bada azaltzen dira otzikara aundiakin, alboko miñarekiñ eta eztul karkax odoltsuakin, beartuaz onelako gaxoak bereala medikuaren laguntzaz, eta nola onek egin bear duan onelakoen jabe, ez goaz ezer esatera leku onetan izendatu ditugun gaitz bi oen gañean.

Argibide onetan asi degun bidean segituaz dagokigu itzegitea asnasea artzeko lekuetan azaldutzen dan gaxorik gogor eta bildurgarrienaren gañean, bada berak jotzen dituanaren bukaera beti esate baterako izaten da nai eta nai ez eriotza. Esaten degun gaitz au da *biriketako* edo *petxutikako gaitzaren* izenarekin

ezagutzen dana eta eduki oi dutena *tisikoak* deitzen diogun gaxo errukizko aek. Ez gera leku onetan asiko adierazotzen zer nolakoa dan gaitz au eta nolakoa dan bere izaera, zergatik gauza oek diran obetoago medikantzako liburuetan artarako ikasten dutenak jakiñ bearrekoak, eta gure irakurleak asko dute idukitzea kontuan berari alde egiteko ipiñi bear dituzten alderdiak, eta zer eta nola sortu litekean.

Mediku jakintsu batek dionez, esan liteke edozeiñ gauza gorputza argaldu lezakeanak eman lezaiokeala luzatuaz badijoa asiera biriketako gaitzari, au da, sartu litekeala *tisikan* beti argalduaz dijoana, bada gaitz au ez da besterik ez bada biriketetan azaltzen dan argaltasuna. Emendik dator izatea aiñbeste, gaitz onen azalpideak, bada gauza jakiña da modu askoren bitartez norbait argaldu litekeala. Onela bada, urdalleko edo egoslekuko eta esteetako gaitzak, zeñaren bitartez bear diña eziñ gaxoak jan lezakean indarretan egoteko, edo lan geiegiyak menderatuta, edo beargiñ txarrean ari bear dutenak nola diran arrijotzalleak, lurpeko langilleak, eta euntzako lana egiten dutenak, edo leku batean pillatuta egon bear izaten dutenak beren lantegietan, edo naigabeen bitartez edo erari gogorrak eratearen bitartez, eta itz batean, edozeiñ

izendatu ditugun gauza oetakoren batzuen edo beste edozeñen bitartez badijoa argalduaz norbait pixka banaka, denbora luzatuaz dago arraxku aundian bere gaiñ biriketako gaitza azaltzeko, au da, *tisikan* sartutzeko. Gauza oezaz gañera eduki bear degu kontuan gaitz onetan zer ikusi aundia daukala gurasbideak, bada egia baldiñ bada iñor ez dala gaitzarekin jaiotzen, da ere egia, gaitz au daukaten gurasoen umeak naiz eta uste itxurazkoak dirala eta osasuna eta sasoi ona daukatela, askotan gertatzen da edozeiñ gauzogatik makaltzen asi eta denbora gutxien barruan lur jo eta biriketako gaitzarekin illtzea.

Azkenik gaitz onen sortueraren gañean esaten ari geran gauzari bukaera emateko, izendatu bear degu pegatzez azaltzen diran aek, zeñak batzuetan ez jakiñagatik eta besteetan ajolagabekeriz erorten diran beiñ bañan geiagotan gaitz bildurgarri onen mendean.

Ez da gure eginkizuna leku onetan adierazotzea zer eta nola aurreratzen duan gaitz onek bere bidean beiñ azaldu ezkeroztik, bada au izan oi da zenbaterañoiko indarrarekin gaitza asitzen dan, eta zeñ eta zer nolakoa dan gaxorik dagoana, eta zenbaterañoiko moduak onek dauzkan bere buruari kontu egiteko; ez dago zer esanik askotan ikusten ditugula gaitz au

eduki arren bizitzen dirala zenbait urte asko eta asko bañan beti beren buruai kontu egiñaz; eta beste alderdira, baita ere beste zenbait au eziñ egiñ lezaketealako edo gaitzak mendean bereala artu zitualako, denbora gutxi barruan beren bizia bukatzen.

Gaitz bildurgarri oni alde egiteko egiñ bear diran gauzen gañean ez daukagu zer esanik ez bada asko degula kontuan edukitzea zeñetatik geienenbat bera sortu oi dan, oei bear diran erreparoak artzeko; eta ala, egingo ditugula alegiñ guztiak artaratzen danean norbait, ez argaltasunak beñere mendean artzeko, eta au esanarekin daukagu adierazota medikantzik onena batez ere beren, bigun samarrak diranentzat; eta pegatzez sortu ez dediñ berriz, guztiok dakite onelakoen arropa, ontzi eta botatzen dituzten zikinkeriai alde egiñ bear zaiotela, eta beste gañerazko esan bearren gañean ikusi lezake irakurleak atzeragoko argibide batean gaitz pegakorren gañean itzegiñ eta utzi deguna.

Gelditzen zaigu orain itzegitea beste gaitz bat zer nolakoa danaren gañean, zeña naiz eta ipiñi degun guk asnasea artzeko tokietakoen artean, izan liteke ere beste edozeiñ lekutakotzat artua, bada aetako edozeñetan azaldu oi dan, esango degun bezela.

Izendatzen da gaitz au *trankazoa* eta da bat bate-ra jende askotan sortu oi dana, pegakorra eta odola usteltzen duana, bañan ez deguna esango beraren gañean gauzarik bearrenak ez bada, zergatik besterik eziñ egiñ gentzake argibide labor onetan. Gaitz onen izaera nolabaitekoa zabaltzen da gorputz guztian eta batez ere garunetan, bizkarmuñean, eta oetatik jaiotzen diran zañetan, sortuaz batzuetan buruko miñak eta nagitasun aundiak, eta besteetan ondoezak edo gerriko eta besoetako eta ankezurretako oñazeak. Aldietan, esan ditugun naigabe oezaz gañera azaldu oi dira berotasuna eta katarroa, begietako eta sudurretako jarioakin eta eztularekin, zeñak egun gutxien barruan alde egiñ oi duten: bañan onela gertatu bearran ikusten danean gauza oek guztiak iraunez kalentura nabarmenduaz dijoala eta iristen dala berrogei edo geiago gradutara, eduki gentzake erre-zelo gaiztoa sortu dala beste okertasun aundien bat zeña geienetan izan oi dan pulmoniya bildurgarria.

Esan degun modu eta antzera etortzen da beti esate baterako izendatu degun gaitz au; bañan batzuetan badaki aiñ isill eta itxuragabez azaltzen, non ez dan bear diña izaten medikurik argiennen jakin-duri guztia berari antz emateko; eta onela gertatzen

da iñoiz azaltzen danean *ondoezak* egiten zaizkala gaxo dagoanari, edo *izerdi aundi eta urtutzalle* batzuen itxuran, edo baita ere beiñ edo beiñ ikusi degun bezela *lozorroaren* itxuran.

Azkenik argibide onen asieran aditzera eman degun bezela berari bukaera emateko esan bear degu, asnasea artzeko tokietan sortu litezkean okerrak kolpez edo ebaki eta antz onetako gauzen bitartez, onelakoen bat gertatzen danean zer egiñ bear dan ez dagokigula leku onetan ipintzea, eta aurreragoko argibide batean itzegingo degula beren gañean liburu onen zekidoran ikusi liteken bezela.

Gañerantzekoan daukagu aditzera emanik lenago, gure parajeen dirala ugariak asnasea artzeko tokietako gaxoak, zergatik gure bizi leku onetan beti dauden lurra eta airea urez aseak eta bertako nekazari eta langille jendeak bizi bear izaten duan oek egiñ litzaiken kalteen erreparorik gabe; eta argibide onetan itzegiñ ditugun eginkizunai bukaera emateko esan bear ditugu orain beste itz labur batzuek bertan aitor-tutako gaitzai alde-egiteko kontuan eduki bear diran zenbait gauza moduren gañean. Era onetan lendabiziko asiera eman bear diogu iñolaz ere esandako gaitz aei eta beren antzekoai sortuera eman oi dioten

gauza aen aitormena egiñaz, eta arkitzen gera izenda-
tu bearrean aurrenekoetan oztutzea edo esan oi dan
bezela *otzak pasatzea*, bustitzea, izerdituta norbait
dagonean erari otzak eratea, birikak indarrez geiegi
beartutzea, usteldurik dauden gauzen usaiak artzea,
eta beste birika barrunbean sartzen diran zenbait
gauza austutakoak nola diran ikatza, arriak edo eun-
terietako litzak asnasean artzea: bigarren lekuan
aitortuko ditugu biriketako gaitz pegakor aek, zeñai
alde egiteko kontuan eduki bear dan ez luzaro onela-
ko gaitza daukatenak egoten diran gela edo beste
egon lekuetan alkarrekiñ egotea; gaxo oek botatzen
dituzten zikinkeriak ez nastutzea, eta ez oen arropa
eta ontzirik berak beste iñork erabiltzea; eta azkenik
lenago aitortu ditugun beste zenbait gauza puntu
onen gañean itz egin degunean.

Egin bear da ere alegiña asnasea bear dan lasaita-
sunarekin artzeko; eta ez gorputza gorontz, gerriko
edo beste arropakiñ geiegi estutu eta edukitzeko
biderik; zergatik onela ez zaio uzten bear diña zabal-
tzen petxuko kajari eta barruan dauden birikak ez
diran bear duten aiñbat indar eta zabaltasun artzera
iristen. Au bear bezela gertatu eta birikak indartzeko
daukagu euskal-erri gurean txit antziñako denboreta-

tik paraje oetan ezagutzen dan joku bat zeña dan pelota jokua eta zeñaren bitartez eta mendiko ibillera-
ren bitartez (geiegikorik egin gabe), daukan gure
parajeetako jendeak birikak indartzeko izan litekean
gauzarik egokiena; bada gorputz guztiak eta birikak
lendabiziko, beartzen dira joku eta ibilli oekin egitera
indar eta mugimentu modu askotakoak azken onetara
iristeko.

Azkenik, da ere txit gauza ongarria asnasea artze-
ko tokietako gaitzai alde egiteko eta batez ere ez
eta modu onetakoai, egunero busti-aldi bat aurre eta
atze aldetik leku oei ematea ur otzarekin bañuak
artuaz, edo oraindik errazagoa dana orain esatera
goazen bezela.

Asko da bakar bakarrik goizero arpegia garbitzeko
denboran esku-zapiarekiñ nork berak lendabizi petxu-
ko aurrea eta ondoren bizkarra bustitzea, eta au egiñ
ondorean bereala beste zapi legor batekiñ ongi igorzi-
tzea; bada modu onetan artzen du odolak bizitasun
geiago eta indartzen dira birikak ez mellarik egiteko
moduan aize otzak, eta ez eta ere bustialdi batek, non
onela oituta ez dauden jende aei egiñ al izaten dioten
beziñ errazki. Usariyo au da medikantza bat guztiz

ongarria eta zeñaren oitura jende artean dagoan
bañan geiago zabaldurik egon bear lukeana.

ZAZPIGARREN ARGIBIDEA

Euskal-errian urdalle edo egostokian eta esteetan izan oi diran gaitzik lenendikoen argibidea.-

Nola ez diran geienentsuak gaitz oek gure parejeetan.-

Jan eta eranaren gañean eduki bear diran kontuak.

Gorputzaren barruan dagoan jan eta eranaren gorde lekua zeñak dauzkan ogeita amar bat oiñ luze asieratik bukaeraraño, dago guztia mintz me batez estalia eta da kanale bat zeñaren sarlekutik irtenleku-araño dauden ipiñiak aoa, eztarzuloa, este gorria, estomagu edo egostokia, esteak eta este lodia: eta oek egin bear dituzten lanen laguntzarako berriz, ortzak eta agiñak, txistulekuak, gibela, guriñonda eta barea.

Alako moduan dago egiña jan eranaren gorde leku au, nun bertan sartzen diran antz onetako gauza guztiak artzen dituzten mudantza jakiñ batzuek, izendatu ditugun pusketa aetako bakoitzaren eginkizunen bitartez, izan ditezen azkenean gauza aek bizigarriak; eta nola gertatzen dan oraiñ esan deguna jakiñ deza-ten gure irakurleak eta zer nolakoak diran izendatu

ditugun pusketa oen guztien eginkizunak, itz labur batzuetan argibide onetan adierazotzeko egiñ bear degu alegiña.

Jatekoa aoan sartzen danean leku artan ipiñita dauden erramiantak asitzen dira lanean lendabizi ura bear bezela txikitzeko eta txistuarekin nastutzeko; eta au egiñ ondorean eta jatekoa biribilduaz, asitzen da au eztarzulotik bera estegorrian pasatuaz egostoki edo urdallean sartu eta gelditzen. Leku au da jan gordelekuko tokirik aundiena eta dauka zagi txiki baten itxura zeñaren zabaltasuna legokean ezkerreko aldean eta muturra eskubi aldean: zabaltasun onetan dago este gorriaren zuloa, zeñatatik sartzen dan janaria urdalleko barruan, eta muturrak berriz dauka segmentua esteakiñ; naiz dala sartu leku eta irten leku urdallekoak egoten dira itxiak jatekoz ura beteta dagoanean; bañan iñoiz gertatzen da sartu lekua irikitzea eta atzera kanpora barruan dagoan janaria irte-tzea; lantegi au da *gorakoak botatzea* izendatzen deguna. Egostoki edo urdallak dauzka arizpiak, zeñak lanean asitzen diranean estutzen duten aren barruan dagoan janaria eta erabiltzen dute bera bultzeaz leku batetik bestera ongi nastu dediñ bertan arkitzen diran zenbait konpongarrirekin; eta lan au egiñ ondorean

lautik sei ordu bitartean, irikitzen da esteen aldetik urdallak daukala esan degun muturra eta janaria asitzen da leku artan artu duan itxura berriarekin estee-tara pasatzen poliki, geroagoan emen berriz gibelak, guriñondak eta esteak egiten dituzten beargiñen bitartez, gelditu dediñ bizigarritzat; eta gañerantzeko beste kondarrak segitzen dute aurrera joanaz este lodira, zeñatan gelditzen diran simaur biurtuak geroagoan kanpora beren bidetik ateratzeko este onek artarako bultzatzen dituanean.

Sabel barruan gorputzak dauzkan pusketa guztiak daude estalita gañetik *baresarearekiñ* zeña dan txit erraza gaxotzen zenbait esteetako gaitzetan edo oetan kolpez eta antz onetako beargiñ okerrez zerbait gertatzen danean.

Oraindaño esan ditugun gauzak dira jakiñ bearrekoenak edukitzeko argibide bat zer nolakoa dan jan eranaren gordelekua gure gorputzean, eta zeñaren gañean eziñ guk geiago itzegiñ gentzakean emen, zergatik ez dagokion liburu onen izaerari, eta asiera eman bear diogu bertan sortu oi diran gaitzak zeñ diran izendatzen, batez ere gure paraje oetan geienbat ikusten ditugun aek.

Aurrenengo argibide batean itzegiñ degunean euskal-errian bertakotzat eduki litezkean gaitzen gañean, esan degu oetatik ugarienetako bat izaten dala ortzak usteltzea, zeñak nola daukaten zer ikusi aundia jatekoa txikitzeko eta baita ere errazago ura urdallean moldatzeko eta zenbait aoko miñ ekartzeko, ez gera aurrera pasako gure iritzian geienenbat gaitz arri sortuera ematen dioten gauzen gañean zerbait esan gabe. Lendabiziko izendatu bear deguna da jatorria; eta urrengo berriz odol bigunekoa izatea eta trabajuba edo tiputza deitzen diogun gaitzaren ondorena; aoko zikinkeria, ur-metalak eratea, sagar gaziak jatea eta baita ere ortz eta agiñ artean gelditzen diran jan kondarrak ez garbitzea; bada oek nola ustelduaz joaten diran, ekartzen dituzte ondorenean zenbait agiñeko miñ gure irakurleak beiñ bañan geiagotan beren eskarmentuz ondo dakiten bezela. Aoko erramiantetako aje oek izan oi dira urdalleko gaitzik askoren sortzalleak eta baita ere ao barruan bertan azaltzen diran batzuenak, nola diran aosapaieko eta oietako aundidurak iñoiz zornatzen diranak; zeñak izanik aiñ gauza jakiña, nolakoak izaten diran ez degun beragatik emen ezer itzegingo, baizik bakarrik berak erremedia-tzeko egin litezkean gauza batzuek izendatzea ez

bada. Onegatik beti lendabizi kontuan edukibear dan gauza da, ortz agiñetako eta aoko garbitasuna, kenduaz jan ondorean artarako izan oi diran txots me eta bigun batzuekin, aen tarteetan gelditzen diran kondarrak, eta erabilliaz aon beste zenbait garbigarri artarako egiñak egoten diran aek. Askok egiten duten bezela ortz edo agiñak erremedio gogorrakiñ aetako oñaza daukatenean, erretzea da gauza txit kaltegarria bada denbora labur batean naiz eta beren miña zerbait sortu, ekarri oi ditu usariyo onek aurrerako oker aundiagoak nola diran erramianta aek osoro galtzea eta aosapaietan aundidura txarrak etortzea.

Beste gauza kontuzkoenetatik bat da berriz, ez jan eran otzegi edo beroegiak aon sartzea, bada denbora bitarte gutxiko otz beroak dira ortzak eta agiñak erraz galdu azten dituztenak eta baita ere aoko beste gaitz askoren sortutzalleak, zeñak, iraupen luzekoak diranean argaldu azten duten au gertatzen zaiona bear diña jateko eziñ artu izaten dualako, eta izan litekean au osasuna bigundu eta galtzeko bidea.

Izendatu ditugun gaitz oei alde egiteko dira esanaz gañera gauza onak, aoko garbitasunak egitea botikan ematen dituzten zenbait artarako dauden auts eta ur garbigarriakiñ, eta zeñen artean izendatu-

ko ditugun sugatzarra deitzen zaion arria, limoiaren zumua, eta beste medikuak agindu litzakean batzuek. Nola ere aoko miñak ekarri oi duten beren ondorean geienetan urdalleko loa, onelakoetan artu bear izaten da bera ustutzeko medikantza garbitzallea zeña izan litekean artarako askotan ematen degun *gatza* edo beste onen antzeko bat: bañan esan bear degu berriz eta berriz, aoko gaitzetatik alde egiteko gauzik lenda-bizikoen eta bearrena dala bertako garbitasun aundia.

Jan gordelekuko gaitzen artean izan oi dira ere ugarienetakoak janari eta eran txarrak, otz edo bero-egiak, eta bai ere edozeiñ sasoitan artuak ekartzen dituztenak, zeñak eta zenbait pensakizun bere burua estutzekoak norbaitek edukitzeak eta otzak pasatzeak, diran geienetan urdalleko ondoezak sortutzen dituzten gauzak, etortzen dirala oen medioz eta ondorenean, jateko gogorik eza, gorako aizeak botatzea, bomitoak eta urdalleko pisua, edo leku ortako oñazeak aiñ naigabe aundiak ematen dizkatenak au gertatzen zaionari. Izendatu ditugun oker oek sortu oi dira askotan bear baño len bularrak gañera ematen zaizkatenean zenbait janari ume txikiai, edo oek aziaz dijoazenean edozeiñ zikinkeri jaten dituztelako; bañan

gauza oen gañean itzegiñ bear degu aurreragoan umeen gaxoen gañean ipintzen degun argibidean.

Ez dago zer esanik oraiñ aitortu ditugun urdalleko eta esteetako ondoezak azaltzen diranean gizon edo emakume baten gaiñ, lendabizi egiñ bear degun gauza dala, aen barruan dauden zikinkeriak kanpora bota aztea eta onetarako emango dizkagula erremedio garbitzekoak edo leku aek ustutzekoak, zeñatetik errazen eta eskuartekoenak diran *rizinoa* deritzaion oliyoa, edo *gatz* ontarako botikan ematen dutena (ontza baten tamañan naiz bat eta naiz bestea), edo *senaren* osto batzuek egositako ura; bai eta ere izango da gauza ongarria ematea atzealdetik malmen ur epelarekin garbigarri batzuek eta ipintzea sabel gañean linazizko enplastoak onela denboraz barrua ongi garbitu dediñ eta ez ditezen au ez egiteagatik sortu geroagoan zenbait gaitz kontuzkoak leku aetan urdallak eta esteak eduki litzakeen okertasunen bitartez. Onelakorik iñoiz gertatzen danean, azaldu oi dira arako *janak ondo artu eziña* esaten diogun gaitz ura, zeña izaten dan batzuetan urdallak ongi janaria masatu eziñ dualako eta beste geiagotan berriz egostokian dauden zenbait konpongarrri bear bezelakoak ez diralako; au bera gertatu liteke ere beste gaitz askoz bil-

durgarri urdallean sortzen diran batzuekiñ nola diran leku artako *zauria* eta *miñ bizia*: Bañan nola onelako-etzaz beti medikuak jabe egiñ bear duan, ez goaz gu emen ezer itzegitera gaitz oen biyen gañean. Bakarrik esango degu gaurko egunean egiñ diran aurreratzeen bitartez medikantzako gauzetan, lenagoko denboretan eziñ sendadutzat eduki oi ziran zenbait gaitz, mol-datzen dirala orain ongi, zergatik egiten diran urdalla-ren barruan dauden jan konpongarrien eta beste gauza askoren esamiñak eta begiramentuak len ez bezela, artarako oraiñ dauden zenbait erramiantaren medioz; eta baita ere oen beren bitartez urdall barru-ko garbitasuna txit ederki egiñ oi dan.

Urdalleko gaitzentzat gaurko egunean usariyo aundia dagoan beste medikantza bat da bañu etxee-tan onetarako dauden urak artzea; zeñaren artean ez degun aitortu gabe utziko probintzi oetan arkitzen diranetan Zestuako Gesalagakoa, lenagoko argibide batean esan degun bezela; bada leku artako ur gesa-la da urdalleko, gibelesko eta esteetako gaitz askoren txit erremediatzalle guztizkoa, medikuaren aginduz artu bear dan bezela artzen danean. Baita ere bañu etxe oetako egon aldi bat ongi etortzen da askotan zenbait gaxo modurentzat zergatik an dauden bitar-

tean gaxo oek edukitzen dute oituraz kanporako bizi-modu bat, eta beren gaitzentzat medikuak agintzen duan janari egokia: gañera leku aetako alaitasun eta lagun arteak askotan sendatzen ditu gaxo oek izan oi dituzten tristura aldi eta ez bidezko zenbait pensakizun askoz.

Itz gutxi esan bear ditugu zergatik gure paraje oetan ez diran izaten aiñ ugariak urdalleko gaitzak, non izan oi diran asnasea artzeko tokietakoak eta odol-lak korrimentua daukan zañetakoak aiñ beste. Geienbat au gertatzen da zergatik gure parajeetako jendeak janari garbia eta erraz urdallak moldatzekoa artu oi duan, bada ugariena dakigun bezela izaten dira esnea, baba, arto edo gaztaña, eta arrautzak; eta ez dan ere zenbait lekutan diña eran gogor eta piper eta antz onetako jan konpongarririk usatzen; bakarrik esan bear degu iñoiz gure leku oetan sortu oi dirala zenbait gaitz urdallekoak baserrietako jendeen artean, oek egiten dituzten betekarak dirala medioz zenbait erromeritan eta oraindik geiago berriz *illdako-en eztaietan edo ondretan*, zeña derizkiogun dala kendu bear litzakean usariyo txarretatik bat.

Esanik daramazkigun gauza oen bitartez ikusten degu zenbaterañoeko kalteak egiten dituan jan eran

geiegikoak eta baita ere zeñ egokia izango dan ez egitea betekara nabarmen oek, zeñak beti izanik gauza itxusiak, gañera diran Elizako dotriñak eragotzirik dauzkanak. Bada esaera jakintsu bat zeñak dion ez *dala bizi bear jateko, baizik jan bear dala bizi izateko*, eta beti au kontuan eduki bear degu jan eranaren gañean eta onen ugaritasun, izaera modu, eta artze-ko orduen gañean ere; egiñaz jan eranari dagozkieten joan etorriak bakoitzak daukan gogo eta indarra ongiena datorkion moduan eta usariyo edo oitura artuta daukan era artan.

Bukaera eman bear diogu argibide oni izendatuaz beste oitura txar eta galgarri bat urdalleko eta gibe-ko gaitz askoren sortzallea gaurko egunean geiegi jende artean zabaldurik dagoana, eta batez ere kalte izugarriak gazte jendean egiten dituana biurtuaz azkenerako gizona ganadu baten antzera eta gauza nazkagarri bat balitz bezelako itxurara. Arrazoiz esaten du gizon jakintsu batek eran gogor aek nola diran ur irazekia eta bere antzekoak, dirala osasunaren kaltegillerik aundienak, eta baita ere diogu guk, etxe askotako pake galtzalleak. Asko itzegiñ izan da gure denbora oetan zenbateraño galdu oi duan jendea erari gogor aek artzeak; eta atera diran kontuetatik argita-

ratzen da ikusten danez, karzela eta gizon edo emakume erotutakoak egoten diran lekuetatik, oetan sartuta dauden jendeetatik irutatik bi dirala eranari emandakoak eta onen bidez galduak: eta ez bakarrik eraleak bere buruarentzat ekartzen ditu kalte aundiak, baizik baita ere bere ondorengoentzat, bada orlakoen umeak izaren dira askotan odol txarrekoak, argalak, biotzeko miña egiten zaiotenak eta zenzuga-beak. Bukatu zagun, bada, esanaz ur irazeki edo aguardinta eta onen antzeko erariak ondo egiñak eta garbiak diranean, artzen badira jan ondorean eta gauza gutxi bat, ez dirala kaltegarriak; bañan erarioek geiegi artzea dala izan litekean gauzarik txarrena egiten dituan kalteak gatik eta ordikerian emandako gizona baño gauza nazkagarriagorik eziñ munduan izan litekealako.

ZORTZIGARREN ARGIBIDEA

Gure gorputzean odolak korrimentua daukan zañetako, eta garunetatik eta bizkar muñetik datozen zañetako gaxoen gañean.-

*Nola diran euskal-errian ugariagoak eta zergatik, lenengo izendatutakoak bigarrengoak baña.-
Gaitz oen señaile eta erremedioak, eta beren sortu lekuetako osasun-legeak.*

Gure gorputzean dauka korrimentua odolak bi zaiñ edo kanale alditan eta oek jatorria artzen duten iturri edo irten lekuan, zeña dan biotza. Kanale oetatik batzuek biotzetik artu eta eramaten dute odola gorputzeko baztar guztietara mantenduaz bizia beretan; odol au da txit kolore gorrikoa eta korritutzen duen zañai deitzen diogu *zaiñ gorriak*: beste zaiñ batzuek daude odolak bere korrimentua biotzetik irten eta egi ten duanean, atzera odol ori biotzera biurtu edo eramateko; eta nola odol au kolorez urdin-beltz antzekoa dan, korrimentua daukan zañai deitzen diegu *zaiñ urdiñak*.

Atzenik, bada beste kanale aldi estu eta txiki bat armiarma sarerik politena beziñ estua, dagoana ere zabaldurik beste zaiñ aek bezela gorputzeko baztar guzietan eta zeñak bildu eta botatzen duten zaiñ urdiñetan, zabaldurik arkitutzen diran toki guzietako odol kondarrak esate baterako, bada da likarda bat uraren eta odolaren bitartekotzat artu litekeana. Ez da bada zalla orrenbeste zabalduta dagoan kanale toki au eta beti lanean dagoana, maiz gaxotzea, eta ala gertatzen da ere. Geienenbat biotza izan oi da ajeatzen dana eta ez da misterio, bada gizonak sortuera daukanetik beziñ laister amaren sabelean eta illtzen dan artean, beti ari da biotza lanean gelditu ere gabe gau eta egun odola gorputzeko atzeneko baztarretaraño bultzatzen edo biraldutzen.

Betiko lan onen bitartez gertatzen zaio biotzari beste gorputzeko lan asko egiten duten zati edozeñi gertatzen zaiona zeña dan aunditu edo azitzea, oi zaioten bezela ogia egiten duenari besoa, edo nekazariari eta beste langilleai eskua; baña nola biotzak daukan toki neurri jakiñekoa egoteko, aundituzean eziñ da egon bear bezela bere lekuan zergatik estuturik arkitutzen dan, eta baita ere berak estututzen ditu inguruko beste gorputzeko zenbait pusketa zeñak

diran birikak, eta emendik sortutzen dira nai gabe eta eziñ egonik asko au gertatzen zaionarentzat, nola diran biotzeko saltoak eta asnase estua. Baita ere etorri liteke biotz aunditze au, nola bai dauzkan biotzak barrendikan toki apartakoak odol gorriarentzat eta urdin-beltzarentzat ipiñiak, eta bata besteagandik aragizko sare itxi edo ate batzuek balira bezelako zati batzuekin apartean, ez odol kolore esandako biak alkarrekin nastutzeko moduan, ez badira ondo itxitzen ate oek, bear baña odol geiago gelditzen da biotzaren barruan eziñ irtenik zañetara, eta orduan lan au egiten beartutzen da biotza bear baña geiago zergatik indar geiago egin bear duan odola zañetara bultzatze-ko, eta betiko lan onekin, azkenik aunditu egiten da, eta etortzen dira ondorenean len izendatutako saltoak eta asnase estua, eta gañera beste gauza asko guri emen esatea ez dagokigunak, bada dira medikuaren egitekoak ontaratzen diranean: naiz dala biotzeko eta naiz zaiñ gorrietako gaitzik geienak sortutzen dira askotan, edo zardasunagatik edo erreumaren bitartez, eta baita ere ur irazekia edo aguardienta eta tabako belarra geiegi artutzeagatik.

Azkenean odolak ondo korritu ezin duanean zaiñ edo esandako kanaleetan oen edo biotzaren ajeak

gatik, gertatzen da odolak errepresa egiten duala eta berarekin daukan urak, zañetatik iges egiñ izerdia balitz bezela, eta gelditutzen da larru-azalaren azpian eta etortzen dira oñetan, istarretan, eta baita sabelean ere gaxo oek azaldu oi dituzten aundidura izugarriak eta asnasez eziñ beterik egotea, zergatik biriketant ere au bera gertatzen da, bada toki oetan esandako ur orrek ez dioten ongi zabalduzen uzten eta aizeari sarrera eragozten dion. Era berean odol gelditze esan degun orrek berak toki ematen du beste zenbait gorputzeko lekuetan oei dagozkieten okertasunai, eta ala, buruan ekartzen du zorabioa, gilzurrunetan txixa eziñ sortua. biriketant asnase estua, eta orrela gorputzeko beste pusketan oetako bakoitzari dago-kion langintza galerazotzen du. Aiñbesteraño beartu lezazke zañak errepresa egin eta dagoan odolak, non zañ oek lertu edo puskatu litezkean eta orduan odola dijoan kañuetatik irtenik etorri liteke bera kanporatze-ra naiz dala biriketatik aoko zulotik ixuriaz, edo baita ere buruko garun artean perlesia deritzen diogun gaitza jarraituaz, zeñak denbora gutxian kendu lezaioken gizonari bizia. Bañan beste askotan gertatzen da, naiz da egon odola geldituta zañen barrunbean eziñ korriturik eta lenago izendatutako aundidura aek sortu ere

gabetanik, bilduta gelditzea gorputzeko zenbait tokitan, onela sortutzen dala *odolbildua* izendatzen dan gauza ori. Bi modutan sortu liteke odol bildu au, eta dira: bat, biotzak bear bañan odol geiago eta indar geiegirekin botatzen dualako gorputzeko baztarretara; eta bestea, atzera eziñ biurtu dalako odola bear bezela biotzera, korritu bear dituen zañak estuturik edo bear ez dan bezela arkitutzen diralako; eta odol bildu oek izendatzen dira, lendabizikoa *bizia* eta bigarrena *mansoa*; odolbildu oetatik zaña eten eta odola kanporatzera ez dago pauso bat baizik. Orain esaten ditugun odol-bildu oek sortutzen badira gorputzeko zañik txikirik eta estuenian eta an galdutzen bada odola gauza ez dan moduan gorputzeko zatiak mantentzeko eta oei bear duten bizitasuna emateko, orduan au gertatzen dan toki artan sortutzen da *aundidura* deritzen diogun izatea. Eta oraindik aurrerago gauzak joaten badira eta gelditutzen bada gorputzeko edozein zati edo pusketa nola bai dan besoa edo anka bat batere odolik leku artara iristen ez dala, orduan pusketa orrek ill bear du igertuta, urik ematen etzaion arbola edo landare batek bezela, eta ala gertatu oi da ere sortuaz *aragi ustela* edo *aragia usteldutzea* izendatzen degun gaxo jeneroa.

Eman degu aditzera labur bat zer nolakoak izan oi diran geienenbat, odolak korrimentua daukan zañeta-ko eta oen jatorri leku edo biotzeko gaxoak, eta orain esan bear ditugu itz batzuek garunetatik eta bizkar-munetik jaiotzen diran beste zaiñ batzuen gaxoen gañean, zeñak izendatzen diran *zaiñ zuriak* edo euskal-erderaz *nerbioak*.

Lenago esan badegu gorputzak dauzkala zabaldurik bere atzeneko baztarretaraño kanale aundi eta txiki, aiñbeste non eziñ konta ala diran, odolak aen barrunbean korritu dezan, era berean dauzka ere beste asko eta asko zaiñ zeñak jaiotzen diran batzuek buruko garunetatik, eta besteak bizkar munetik iristen dirala ari batzuen antzera gorputzeko tokirik gordeenetaraño ere. Beste onelako zaiñ bat ere badago bizkar ezurraren bi aldamenetara ipiñia, zeña dagoan oraiñ esan ditugunakin esku emanik bezela, bada batak eta besteak dauzkate eginkizun berentzakoak orain esatera goazen moduan. Lendabiziko esango degu zaiñ oetatik geienak dauzkatela bi sustrai edo zuztar, arbola txiki baten antzera; eta sustrai oetatik batek daukala *sentitutzeko* eskubide edo eginkizuna; eta besteak *mugimentu* edo *ibilliarena*; alako moduan non ebaki edo puskatutzen badegu lenbiziko izendatu

degun sustraia, gelditutzen dan bera zabaldurik dagoan gorputzeko toki ura sentidurik gabe; eta ebakitzen badegu mugimentuaren jabe dan sustraia, orduan gelditzen da ibilli ezin dala eta mugitu gabetanik sustrai au dijoan toki guzia; eta osoro puskatzen badira bi zuztar edo sustraiak, orduan ez mugitu eta ez ezer sentitu egiten ez duala gelditzen da gorputzeko zaiñ oek zabaldurik dauden pusqueta edo alderdi ura guzia. Gauza oek onela izanik ez dago konturatu bañan zenbateraño dagoan zer itzegiñ, zaiñ izendatutako oek eduki lezatezken ondoezen gañean; eta geiago oraindik ikusten degunean zaiñ zuri oek dauzkatela ere beren kontura gorputzeko zati guziak egin bear dituen lan guzien erreparoa. Eta gañera kargu egiten bagera zeñ ugariak eta zenbateraño iristen diran zañ oen lantegiak, arriturik gelditutzeko gauza da gure gorputzak berekiñ dauzkan aiñbat jazkera bere barrunbean bakoitza bere eginkizunetarako ipiñiak.

Ez degu gauza aundirik esango garunetako eta bizkar muñeko gaxoen gañean, bada oek aiñ dira izate aundikoak non beti oetakoren bat sortutzen danean, izan bear duan medikuaren eginkizuna; baka- rrik esan bear degu naiz garunak edo naiz bizkar muña gaitzak osoro artzen duanean geienez etor-

tzen dala eriotza; bada gorputzeko zati oek biak edo naiz eta burua bakarrik izan, gelditutzen bada lanera-ko gauza ez dala, gorputza eziñ bizirik egon liteke eta dator nai eta nai ez eriotza edo illtzea. Bañan naiz eta zerbait ajiatu bañan osoro galdutzen ez dala gelditu-tzen bada burua oi dan bezela perlesiarekin, orduan gelditutzen dira ere erdi illik besoa edo anka edo arpe-giaren erdia; da esatea, edozeiñ zaiñ zuri aetakoak bera jaio edo asitzen dan tokian gaxotzen bada dato-rren sustraia, zaña zabaldurik dagoan leku ura gorpu-tzean, geldituko da ere illik gutxi edo asko, dala senti-duan, edo dala mugimentu edo ibilleran, edo dala bi gauza oetan.

Badira ere beste gaxo batzuek garun eta bizkar-muñeko ajeak sortu oi dituenak bear dan bezela edo zuzen ez dituenen oek egiten bakoitzari dagozkioten lankizunak.

Gaitz oetatik señaleenak dira, lendabiziko, *biotze-ko miña* izendatzen dan gaxo ori naiz eta ez eduki berarekin biotzak zer ikusi, bañan jendearen oiturak lengo denboretan ipiñitako izenarekin berarekiñ eza-gututzen da gaurko egunean ere. Danok dakigu gaxo au daukatenak izan oi dituen naigabe izugarriak, zeñetako bat edo besteren bitartez bukaera izan oi

duen gaxo oen biziak kolpaturik edo erreka baztar batean itorik azaldutzen dirala, edo modu onetako batera; edo bestela denbora aurreratuz, gelditutzen dirala zenzu gabe eta zoratuta gaxo errukizko oek.

Beste gaxo onetarako bat da emakumeak izan oi dutena geienenbat, zeñari deritzaion *histerikoa*, eta zeña azaldutzen dan asi-aldi gogorrakin batzuetan, igarotzen dituela orduan orain esatera goazen gauza oetakoren bat edo beste, eta iñoiz baita ere guziak batera. Gauza oek dira: lendabizikoa, ito-bear aundi bat, zergatik uste izaten duan gaxoak eztarrian daukala trabaturik gauza ez jakiñeko bat urdalletikan gora etorri balitzaio bezela; bigarrena, zenzua galdutzea eta mugimentu izugarriak gorputz guziarekin egitea azkenean algara zoro batekin edo negar-malko ugarriakin ere bai beste batzuetan, sosegua etortzen zaio-la; eta irugarrena, beso edo gorputzeko beste alderdiren bat mugimenturik eta zentzurik gabe iñoiz geldituztea denborale baterako.

Izendatu bear degu leku onetan beste orain esaten ari geran gaxo oen antzeko bat ere, zeña azaldutzen dan geienenbat ume txikietan, gelditutzen dirala oek puntu batetik bestera eta iñork uste ez duala, illda bezela eta zenzugabe; eta geroagoan dardarara ikara-

garri batzuekin beren gorputzean, aurrerago itz egiten degunean umeen gaxoen gañean esango degun bezela: iñoiz azaldutzen da ere gaxo au emakume aurra egiteko daudenetan eta aurgintzako denboran, izanik oso gauza txarra, zergatik emakumearen biziak arraxku aundia edukitzen duan orduan, eta asko ill ere egiten diran. Azkenik beste gaxo bat ere badaukagu emen izendatzea tokatzen zaiona zeña dan *San Bitoren dantza* deitu oi dana, zergatik gaxo ori daukate-nak badiruri beti dantzan dabiltzala zoratuta baleude bezela. Eta ala da izan ere, bada aiñbeste mugitutzen dituen eskuak, non jatekoa bera eziñ asmatu izaten dute aora nola eramán, eta ankakin egiten dituzten aiñbeste mugimentu, non badirurien dantzari batzuek dirala; eta begi eta beste arpegiko masall eta ezpañakin aiñ gauza itxura gabekoak egiten dituzte ere, non jendearen barregarri izaten diran askotan gaxo errukiméntuzko oek.

Oraiñdaño izendatu ditugun gaxo jeneroak dira garunetako eta bizkarmunaren lan egitekoak okertutzen diranean azaldutzen diranak, bañan badira beste batzuek ere esandako leku oek bietatik jaiotzen diran zaiñ zurietan gertatzen diranak antz berean, eta eza-gutzen diranak euskal-erriko jendearen artean *aize*

txarraren izenarekin. Izena ipintzen zaio gaxo orri aize txarra zabaldurik dagoan zañarena berarena, eta ala esaten da, lepoko zeñetako miña, istarreko zañeko miña, eta onela beste guzietan ere. Gaxo esaten ari geran au izan oi da biziro mintsua eta oñaza izugarriak berekin oi dituen; ez dago zer esan ez bada ikusi duanari onetarako istarreko zañeko miña zer nolakoa eta zenbaterañokoa izan oi dan.

Askotan etortzen dira gaxo oek asi aldi batetik bestera tarte jakin bat uzten dutela beti; da esatea, egun batean eta ordu jakiñean lendabiziko joaldia egiñ, eta urrengoa etortzea modu berean egun bat tartean utzita; gauza onen gañean erreparoa jartzea txit konbeni da, bada zer modutan gaxoa azaltzen dan, era berean medikantza sendatutzekoak ipiñi bear dira; badira ere asko erreparo au ez ipintzeagatik atera izan dituztenak bi edo iru agiñ arpegiko zañeko gaitza eduki eta agiñeko miña zeukatelako; bañan ez dago zer esan oñazeak etzuela alde egingo agiñak ateratzea gatik, bada gaitz batak bestearekin ez daukan zer ikusi. Askotan otza dala medioz azaltzen dira zañetako oñaza oek; bañan beste batzuetan izaten da oen asiera gorputza argal eta indargabea egoteagatik,

edo baita ere erreuma eta herpetza gatik beñ bañan geiagotan.

Naiz eta orain esaten ari geran gaitz jenero oek izan ugariak euskal-errian, zergatik eudi asko egiten duan eta bustitasuna ugaria dan, eta erreumatsua dan bertako jendea, ez da orrela gertatzen lenago izendatu ditugunakiñ, bada geiagotan ikusten dira paraje beroetan eta jende lan askoren mendean bizi ez danaren artean. Bañan gure parajeko nekazaria batetik eta mariñela eta langillea bestetik, bizi dira lan gogorren azpian eta oen garunak eta oen zaiñ zuriak daude geldirik, gertatzen ez dan bezela beste onen- beste zaiñ gorri eta biotzarekin, bada oek asko bear- tzen ditu indarreko lanean ari bear duanak eta emen- dik dator ugariagoak izatea gure artean gaxo oei dagozkionak, ez lenago izendatutako zañai eta beste gañerantzekoai.

Baita ere nola eztul asko igarotzen dan gure jen- dearen artean, gauza onek ere asko egiten du luza- tuaz biotzeko gaitzak sortutzeko; eta azkenik *zarda- dea* zeñaren bitartez beste askotan sortutzen diran gaitz oek, da egiten duana gure parajea biotzeko gaxoak askotan ikustea; bañan au ondragarria da guretzat, zergatik beste leku askotan ez dan au gerta-

tzen onela gutxiago zartutzen dalako bertako jendea eta da señalea gure parajea osasuna eta bizia luzatuzeko aek bañan obea dala.

Eziñ esango degu gauza aundirik izendatu ditugun gaitz oen guzien erremedioen gañean, bada guziak dira medikuaren mendekoak esate baterako zergatik kontu aundikoak azaldutzen diran; bañan adierazotzera emango ditugu familietan jakitea ona dan zenbait gauza iñoiz edo beste eginkizun oetan arkitutzen diranerako.

Lendabiziko esan bear deguna da gaxo oei aurrea artutzea dala gauzarik onena bada jakiñik dakigun bezela erari gogorak eta tabakoa dirala txit artarakoak, oek utzi edo gutxi artuarekin erremedio on bat jartzten degu bitartekotzat gaxo oei alde egiteko. Mediku jakintsu batek esaten du gauza oen gañean itz egiten duanean, gizonak dauzkala bere zaiñ gorriak dauzkaten aiñbeste urte: da esatea, naiz ta urte gutxi eduki eta ustez gaztea egon, baldiñ galduak badauzka zaiñ gorriak gizon aura eduki litekeala; eta beste aldera, naiz eta urteak ondotxo eduki, zaiñ aetatik gizonak ajerik ez badauka, eduki litekeala gaztetzat. Au orrela izanik eta izanikan ere gauza jakiña erari gogorak zaiñ gorrietan azaldu azten dituela zardadeak azaldu-

tzen dituan ajeak berak, gauza egokia izango da esatea, erari oek gizona bear bañan lenago zartutzen dutela, eta ez eratea izango dala erremediorik onena gaitz oetatik alde egiteko.

Bañan dala edozeiñ gauza gatik, beiñ biotzeko gaitza sortu, eta azaldutzen diranean lenago esandako asnase estu eta aundidura aek, gauza ona da beintzat gorputzetik maiz libratutzea ur gesalakin, eta esne asko eratea eta kafetxo pixka bat artutzea: eziñ gauza geiago izendatuko ditugu guk leku onetan zergatik diran mediku baten eginkizunak onetaraño gaxoa iristen danean.

Beste orrenbeste esango degu gorputzean zabalduzik dauden zaiñ zurietako oñaza edo aize txarren gañean, bada oek amaitutzeko mediku bati eskatu bear zaiozka artarako daudela berak dakizkien erremedioak; eta lenago izendatu ditugun beste garun eta bizkarmuneko gaxoentzat, nola diran biotzeko miña eta beste esandako aek, bizi modu okerrik ez egitea jan eranean eta beste ibillera moduetan, izango da sortu ez ditezen gaxo oek erremediorik onena; bañan beiñ azaldu ezkerotzitan, medikuak agindu lezaiozkean erremedioak egiten dituala, lagundu bear zaiote oei etxeakoak ere alegiñak egiñaz, lanean batez ere

beartutzen ez dala gaxorik dagoana, jan eta eran garbiak ematen zaizkala, eta gorputza nagitu ez dediñ pixkatxo bat mugitutzen dala, gauza oek eta medikuak ematen diozkanak alkarrekiñ izan dezaten guziok ikusi nai lutekean osasunara bihurtzeko ongarrri ura.

BEDERATZIGARREN ARGIBIDEA

Kolpeak, ebakiak eta autsi atereak.-

Zer eta nola sendatu bear diran.-

Miñ artutakoak nola erabilli bear diran

toki-aldatzeko batetik bestera eta zer erreparorekiñ.

Edozeñek erraz antz emango dio ez dala gauza zalla gertatzea, gure parajeen gertatzen dan bezela, izatea aiñbeste jende modu askotako kolpe, ebaki, edo ezur autsi eta atere izan oi dituztenak, bada nola gure bizi leku oetako lurra dan berez aiñ aldapatsu eta menditsua eta aiñ lan gogorretara beartzen ditu nekezari eta langille jendea dan beziñ nekosoia dalako bertako lantegiak, dala arrek egiten dituan kanpolan aiñ modu askotakoen bidez edo beste moduz, nun alkar paratzen diran jende oen argitasuna beren lantegietan, eta beren medioz egunero beren buruak erabilli bear izaten dituzten arraxku aundiak; bada eskuar-tean lanerako dauzkaten erramianta aek berak dira beiñ bañan geiagotan zenbait bear oker eta negargarriren egilleak, naiz ez jakiñezkoak izan. Eta onela,

askotan ikusi bearrean arkitzen gera itaiakiñ, atxurra-kiñ, laiakiñ edo aizkorakiñ egindako zenbait ebaki eta zulatu; eta baita ere iñoiz kanpoko pixtiren baten elduarekiñ, edo arbolen batetik erorita egindako ezur autsiakiñ, itz batean, nekazaria egitera bearturik arkitzen dan lan gogor eta arraxkuko bidez egindakoa-kin. Gañera berriz gure paraje oetan diran aiñbeste lurpeko eta fabriketako lantegi modu, zeñetan erabilli bear izaten dituzten indar eta arraxku aundiko erramiantak, dira ere bideak jende langille askok miñ artzeko eta ezur autsi eta kolpe edo ebaki izugarriak beren buruetan gertatzeko.

Esandako gauza modu oen bidez ikusi bearrean arkitzen gera beiñ bañan geiagotan arako zenbait lurpeko lanetan lurrak erorita azpian langilleak artzen dituanean edo beste oker batzuen bidez, zenbait buruko edo bizkar ezurreko eta ankezurretako ebaki eta autsi ikaragarri aek; eta baita ere iñoiz arrobi edo modu ontako lantegietan egiñ oi izaten dituzten bil-durtzeko diña diran beste batzuek. Au bera esan gentzake fabriketako zenbait erramiantak egiñ oi izaten dituzten aekatik, bada egia baldiñ bada berak adierazotzen dutela gure paraje oetako jendearen langilleta-suna eta argi izatea, baita ere dira beiñ bañan geiago-

tan etxe askotako negarra sortzen dutenak, beren medioz etxeko buru egiten zuan ura edo seme maite batek beren bizia galtzen dutenean purrakaturik gorputz guztia, erramianta arrigarri eta baita ere bildurgarri aen atzaparren artean erortzen badira iñoiz; gauza oen gañean egin bear ditugu itz labur batzuek argibide onetan.

EBAKIAK

Ebakiak edo gorputzeko aragi eta beste edozein pusketa (ezurrak ez diranak) eduki litzakean ausiak, dira modu askotakoak; batzuetan diran lekukoak diralako, eta besteetan sendakaitzagoak diralako gauza baten edo bestearen bitartez egiñak izandako medioz. Edozein gure gorputzeko pusketan egiñ liteke ebaki bat eta eduki lezake onek bere itxura, luzetarakoa, trabeskakoa edo zabalerakoa, gorputzari dagokion era zuzenean kontu artuta.

Ebakiak dira *sendaerrazak* deitzen diogunak ezer okertasunik gabe osatu edo sendatzen diranean, eta *sendakaitzak* au onela gertatzen ez danean. Geroagoan esango degu zerbait nola eta zergatik egiñ litekean

ebaki bat sendakaitza, eta baita ere erakutsiko degu zer egiñ bear dan au onela gertatu ez dediñ. Ebakia zer gauzarekin dagoan egiña, modu artara eduki oi du itxura eta baita ere bere izena; eta onela, izan liteke *luzerakoa*, labaña edo antz onetako erramiantakin egindakoa; *zulatua*, iltze edo arantza batez egiña; aragiak *purrakatutakoa*, errubera batek egiñ lezakeana beraren azpian edo ortzen artean esku edo anka bat arrapatuta; izan liteke ebaki bat *pozoitua*, eta baita ere kolpez egiña, nola diran makilla, arri eta suzko armakin egindakoak, bada gauza oek eziñ egiñ lezateke ebakirik kolpatuaz ez bada.

Edozeiñ ebakik dauzka berekiñ egiten dan orduan, iru señale berakikoak zeñak diran: lenengoa ebakiak aragi artean *egiten duan lekua*, bigarrena, *odol isuria*, eta irugarrena *oñazea*; lendabizikoa gertatzen da gorputzeko aragiak eztirakorrak diralako; bigarrena, gorputzeko odolak korrimentua daukan zañetakoren bat puskatzen dalako, eta izan oi da gutxi edo geiago ugarriagoa, zenbaterañokoa dan zaintsua eta zañak diran aundi edo txikiagoak ebakia egindako toki artan; eta irugarrena berriz, sentidua daukaten zañetatik bat edo bat ebakiak urratu dualako: larru azala da gorputzeko lekurik sentikorrena.

Suzko armakiñ egindako zauriak ez du ematen biziro odol gutxi ez bada, eta gañera oñazea ere ez da izaten aiñ aundia baizik sor antzekoa zuloa dagoan inguru guztian. Ebakiak dira gutxi edo geiago kontuzkoak, zerekin egiñak dauden eta zeñ gorputzeko pusketan konturatuta; bada ebaki txiki bat gorputzeko zenbait lekutan (nola izango litzakean biotza edo estek), izan liteke eriotza ondoren ekartzeko diña; onela gertatzen da ere suzko erramiantakiñ egindako-arekin.

Ebakiak sendatzeko lendabiziko gauza da, egiñ litekean guztian beraren ertzak alkarganatzea eta ez zornatzen uztea, au da, ebakia zornatu gabe osatzea; eta onetarako gauzarik bearrenak dira *garbitasuna* ebakitako lekuan egitea, eta *aize ezkutuan* bera edukitzea. Ebaki baten ertzak alkarganatuta egoteko bear da lendabiziko leku ura geldirik edukitzea geroagoan esango ditugun gauza batzuen medioz; eta garbitasuna eta aize ezkutua gordeko dira berriz, onetarako botikan dauden zenbait ur garbigarri medikuak agiñdu bear dituanakiñ, eta guata edo artarako zapi egokiak etxe guztietan gaurko egunean eduki bear lirakeana-kiñ; eta oraindik geiago eta obetoago berriz fabriketan, norbaitek miñ artzen duanean bereala bear diran

garbitasunak dauzkan ebaki eta kolpeetan egiteko, zergatik askoz errazago sendatzen dira aurrenetik ongi garbitu eta estaltzen diran ebakiak, ez au egiñ gabetanik uzten diranak baño.

Izendatu ditugun eta beste edozeiñ ebaki modu sendatzeko, lendabizi garbituko da ebakitako lekua artarako dauden erremedioekin (nola diran fenikatua dagoan ura edo solimana daukana) eta oek ez egonik, iturriko urarekiñ: geroagoan estaliko da zapi edo guata onetarakoak botikan saldutzen diran batzuekiñ, eta egingo zaio azkenik bear duan lotura geiegi estutu gabe eta lasai antzean uzten dala. Ebakitik ez badijoa odol asko, ez dago zer egiñik esandako gauza oek ez bada; bañan gertatuko balitz asko joatea, estutuko dira ebakitako lekuaren eta biotzaren artean edo biyen bidean dauden zañak beatzakiñ edo baita ere lotugarri batekin gogor samar, modu onetan odola gelditu dediñ.

KOLPEAK

Kolpe bat izan oi da gogor edo bigunagoa, zenbaterañokoa dan gutxi edo geiago kolpea ematen duan

gauza arren indarra eta gorputzak kolpea artzen duan lekuaren zalltasuna. Dira kolpeak modu askotakoak, bada batzuek ez dute ondorenean ekartzen oñaza ariñ eta ubeldu txiki bat baizik; eta beste batzuetan txikitu eta purrakatzen dituzte berriz gure gorputzeko pusketak guztiak; bañan oen gañean ez degu esango ezer leku onetan zergatik ez dagokion gure liburu onen izaerari. Kolpe bat artu ondorenean lendabizi azaldu oi dana da ubeldua edo odolbildua; odolbildu au da aiñbat aundiagoa nun eta zan kolpea gogorragoa edo dan zaintsuagoa gorputzean kolpatutako tokia; beraren kolorea izaten da aurrenean urdiñ beltza eta joaten da argituaz geroagoan, artuaz batzuetan *koskorrak* deitzen diogun itxura moduak.

Koskor oen barruan egoten da iñoiz olioaren antzeko likarda bat batere odolik gabekoa eta da iñolaz ere odolak korrimentua daukan zañik kolpearekin eten edo puskatu ez dalako.

Esan ditugun kolpe modu oek sendatzeko ez da bear besterik ez bada kolpatutako lekua geldirik edukitzea, edo izaiñ batzuek ematea, eta baita ere asko izaten da beste batzuetan arnika edo ozpiñarekin nastutako urarekin bustitzea eta pixkatxo bat estutzen duan lotura batekin estaltzea.

EZUR-AUTSIAK ETA ATEREA

Gorputzeko edozein ezur autsi liteke, bañan geienbat oker au gertatzen da besoetako, saietsetako eta anka edo istarretakoakin.

Modu askotakoak izaten dira ere ezur autsiak bada batzuek dira kolpea artutako lekuan bertan egiten diranak; besteak leku apartagoan; besteak ebakiz edo onelako bidez; eta batak eta besteak izan litezke sendaerrazak edo sendakaitzak zer eta nolakoak diran berez; bañan guztiak ezagutzen dira esatera goazen bost gauza oen bitartez: lenengoa, puskatuta dagoan ezurak daukan itxuraren bitartez; bigarrena, leku artan azaltzen dan aundiduraren bitartez; irugarrena, puskatuta dagoan ezurraren mugimentuaren bitartez; laugarrena, puskatuta dagoan tokian ezurak ateratzen duan otsaren bitartez; eta bostgarrena, toki artako odolbilduaren bitartez.

Zenbait ezur autsitakoetan asko izaten da ikustea bakarrik autsilekuan azaltzen dan itxura, onenbeste-rekiñ antz emateko ezurra toki artan autsita dagoala, bañan ez da beti gauza au onen erraza izaten. Autsia

dagoan lekuan azaldu oi da bertako aundidura, miñ artu eta irugarren ordu aldera, eta aundidura au joaten da aziaz ogeita lau bat ordu bitartean; bañan ezur autsitakoak egiten duan mugimentua artara beartzen danean, da señalerik lendabizikoena antz emateko autsia dagoala, au egiñ al izan danean. Ezurak eskuartean mugituaz alde banatara ateratzen duan ota edo karrakara, da ere entzun al izaten danean txit señaile egokia autsita dagoala antz emateko; eta esanik daramazkigun gauza oek eta autsi lekuko odol bildua eta eziñ erabilli, dira alkarganaturik aditzera eman lezazkigunak ezur autsi baten antz bideak. Ezur autsiak daudenean berak bakarrik eta aragietako ebakirik gabekoak diranean, izendatzen dira *sendaerrazak*; eta kontrara gertatzen danean berriz, *sendakaitzak*, zeñak izenak dion bezela diran askoz kontuzkoagoak.

Autsitako ezurra osatzen da *kalloa* esaten zaion zoldaera baten bitartez zeñak denborarekin artzen duan ezurraren beraren itxura osoa geienetan, bañan gertatzen da ere iñoiz ez onela osatzea eta ongi konpondu edo alkarganatu gabe ezur pusketak gelditzea, batzuetan autsi txarra zalako eta besteetan ezur bigunekoa zalako autsia zeukana. Gertatu liteke ere *ezur*

autsi bati ez bear bezela antz ematea eta uste izatea dala kolpe bat edo atere bat ez bada. Kolpeagandik ezagutzen ez da aĩn gauza zalla edukitzen badira kontuan lenago autsiaren gañean esan ditugun gauzak; bañan ez da onela gertatzen aterearekin, gañera ezur *autsia* baldiñ badago *aterea* dagoan lekuaren ondoan. Onelakoetan eduki bear da kontuan ezur ateratakoren ez-itxura edo biurritasuna beti egoten dala leku batean bakarrik, eta *autsia* badago izaten dala muda-korra alde batetik bestera; gañera aterata dagoan ezurra ez da ere leku aldatzen baizik dago geldirik bere tokitik kanpoan, eta ezin egiñ izaten ditu lenago egiñ al izaten dituan mugimentuak bere tokian dagoanean. Azkenik, ezur autsiak ateratzen duan krakarkoa mugitzen danean da askoz aundiagoa eta igarten errazagoa aterearena baño; eta egin bear ditugun galdera moduak gaxoari zer eta nola miñ artu duanaren gañean, argi egingo digute asko eta asko, antz emateko bear bezela ezurra aterata edo *autsita* ote dagoan leku batean.

Ezur autsiaren erremedioa da bere lekuan alkar-ganatzea ezurraren bi muturrak eta oek geldirik edukitzea ipiñi diran era artan mugitzen ez dirala, artarako bear diran loturak egiñaz, zeñaren gañean ez goaz

gu leku onetan ezer geiago esatera zergatik dan medikuaren egitekoa; eta bakarrik bukaera emateko argibide oni esango ditugu itz batzuek onelako miñ artutakoak zer eta nola erabili bearrekoak diran toki batetik bestera aldatu edo eraman bear diranean, batez ere ezur autsitakoa baldiñ bada anketakoa edo gerri aldekoa edo bizkar ingurukoa.

Lendabiziko egitekoa da miñ artuta dagoana jasotzea angalla egoki batzuetara, zeñatarako bear diran lau laguntzalle: batek artuko du miñ artuta dagoana bizkar azpitik, eta gurutzetuko dizka oni gaxoak lepotik bere besoak; besteak eutsi eta jasoko du ipurdi azpitik; irugarrenak artuko du bere eskuetan ondo dagoan alderdia edo istar aldea, eta azkenik laugarren laguntzalleak autsirik dagoan ankezurra puskatutako lekuaren ondotik goi eta be aldetik, egiñaz alegiña edukitzeko puskatuta dagoan ezurra al dan zuzenen eta alde batera edo bestera okertzen ez dala, eta al bait oñazarik gaxoak ez artzeko moduan.

Beiñ iritxitakoan miñ artutakoaren etxera edo bizi lekura, lendabiziko lana izango da oia egitea, zeña ipiñiko dan lurretik gutxi jasotzen dala eta koltxoi artean ol zabal batzuekiñ zapaldu ez dediñ eta errazago egiñ al izateko miñ artutakoak bear dituan sendakizunak.

Oek egiteko erantziko zaizka arropak ontarako eba-
kiaz mugitu gabe kendu eziñ diran aek, onela egiteko
alegiñak oñazarik gaxoak artu ez dezan, eta ezur
autsia al dan gutxiena mugitu dediñ; bereala jarriko
zaio ezurra bear bezela, eta ebakirik edo beste okerrik
badauka, egingo zaizka gauzak atzeragoan argibide
onetan kolpe eta ebakien gañean itzegiñ degunean
egiñ bear dirala esan degun bezela, ipiñiaz al diran
erreparorik aundienak ezertan baño geiago garbita-
sun aundia eta ongi egitearen gañean, bada au da
guztietan bearrena laister edo bear bezela edozeiñ
ebaki eta zauri sendatzeko.

AMARGARREN ARGIBIDEA

*Emakumeak aurra egiteko daudenean
bear dituzten erreparoak eta garbitasunak.-*

Aurgintza eta aur-ondorena.-

*Zer egiñ bear dan eta nola,
medikurik gabe arkitutzean aurgintza batean.-*

*Ume jaio berriak bear dituen erreparoak.-
Bularre edo beste esnez umea azitzeko gañean.*

Askotan arkituko dira etxeetan amargarren argibide onetan izendatzen diran eginkizunetan, eta au orrela dala, al degun garbien aditzera emango degu berai dagozkieten esankizunai, itzkuntzik erraz eta klaruenian.

Esan oi da emakume bat aur-egiteko dagoala, bere sabelean umea sortutzen danetik ume au azi eta itxuratutzen dan artean amaren sabeletik kanpora bizi izateko moduan. Beragatik emakumea arkitzen da aurra egiteko dagoan denbora bitartean, izate modu txit nolabaitekoan, bada ez bere buruarentzat baka-rrik lana egiñ bear dute arren gorputzeko zati guziak, baizik baita ere berekin daraman bizi-lagun txiki aren-

tzat ere, bear dan moduan au moldatu dediñ artean gizon edo emakumetxo osoaren itxurak arturik. Lankizun onegatik beragatik izan oi ditu emakumeak bere osasunean gora bera aundiak eta bere gorputzeko zenbait toki jakiñetan moldakizun eta itxuratze asko, zeñaren gañean esango ditugun itz batzuek eginkizun oek nola izan oi diran adierazotzeko. Izendatu ditugun moldakizun oetatik lenengoa eta nabarmenena da amasabelak artutzen duan aunditasuna; eta aunditasun onen bitartez bere inguruko beste gorputzeko pusketai ematen diozkan estutasunak nola diran esteloriari, puxigari, eta beste anketatik gora dijoazen zaiñ aundi batzuei jarraituaz ondorenean estutasun oen bitartez, gorputzetik eziñ libratu edo irtena, txixa larria, eta oñak aunditzea, maiz ikusten dan bezela. Baita ere aunditasun orren beraren bitartez amasabelak estututzen ditu asnasea artzeko tokiak eta urdalle eta beste sabeleko este txikiak ere; nola baita jartzen du ere sabeleko larru azala bearturik, jarraituaz izate oen bitartez asnase estua, jan eziña, edo jandakoak ez ondo artzea, eta sabeleko zaiñ tiratuak. Baita ere jan eziñ esandako au dagoala etortzen zaiozka iñoiz emakumeari gauza zikiñ edo osasunarako kaltegarriak jateko gogoa, eta gañera goralarri eta txistularri

aundiak askotan ikusten dan bezela. Beste aldetik emakumeak ez bakarrik arpegian egiten ditu mudantza aundiak nola diran kolorez zurbilltzea eta itxura gabetanik gelditzea, baizikan modu berean bere iza-teak ere aldiztegi aundiak oi ditu, jartzen dirala beiñ bañan geiagotan umore txarreko eta erretasunez beteak.

Itxurazko gauza da bada onenbeste mudakizun emakumeari ematen diozkan izateak, bearko dituala bere erreparo moduak, bada oek gordetzen ez dirala, etorkizun txar askoren begira gelditutzen da. Jan eta eranean bear du emakumeak bere oitura jarraitu, non da gauza garbiak ez diranak jaten ez bazituan gorputza katigu ez zaukanean, bada orduan oek utzi eta jateko garbiak artu bear ditu. Daramazen gona, goruntz eta beste erropako lasai erabilliko ditu, eta ez zenbaitek oi duan bezela bere burua egoki antzean azaldutzeagatik, estutuaz gerria; bada emakume aur-egiteko dagoanak ez dauka zergatik estali nola arkitzen dan, zergatik jende guziak bear dan begiramentu eta erreparoak gordetzen diozkan. Lan pixka bat egitea eta ibiltzea gañera kontua edukiaz gorputza egunero libratzeko bestela eziñ badu malma ur ego-sien labatibakiñ, eta bere buruari ez estutasunik ema-

naz aurra egiten jartzen danean etorri lezaiozken gora-berak gatik, izango dira emakume aurra egiteko dagoanak gorde bear dituan izate edo gauzarik lenbizikoenak. Aurra egiteko denbora iristean dator *aurgintza* edo amasabelaren barruan arkitutzen dan umea kanpora irtetea. Asitzen da aurgintza au sabelbarren-go miñakin, zeñak batzuek besteak bañan luze eta garratzagoak izanik, bata bestearen ondoren etortzen diran amasabelak barruan daukana bota arteraño. Miñ oetatik lenengoak izaten dira amasabela zabaldu edo irikitzeakoak, eta atzen aldera etortzen diranak berriz, kanpora aurra bultzatzekoak; gauza au ondo konturatuta egon bear dute aurgintzan emakumeari laguntzen diotenak ez dezaten aura beartu indar egi-tera lendabiziko miñ aldietan, bada orduan egiten dituan indarrak alferrikakoak dira umea kanporatzeko eta geroagoan emakumeak berak sentitutzen duanean indargurea berez datorkiona, orduan bai lagundu bear du lanbide onetan, eta ordurako gorde bear ditu indarrak. Beste gauza bat eduki bear dana kontuan aurgintzan da ez dezala emakumeak (oitura gaiztoa askok daukaten bezela) egiñ aurra zutik edo besteren madalean jarrita dagoala; bada batetik zutikako egoeran nekatutzen dan asko andrea, eta bestetik

madalean edo jarrita dagoala dauka arraxkua uste gabe aurraren ondoren bereala aur-laguna jarkitzeko, eta au gertatutzen danean etortzen da ondoren odol-galdu aundia zeña izan litekean emakumearen bizia galdutzeko diña zenbait aldiz; eta onenbestera ez iri-txita ere, beti galdutzen da bear bañan odol geiago, eta au gauza txarra da txit. Orregatik beti agintzen degu jartzeko oe bat koltxoe pare batekiñ edo beste-la lurrean lastai bat eta koltxoe bat bear diran estal-kiakin egoaldiari dagokion moduan; eta batez ere neguan asko ohea dan oeko aurgintza zergatik ema-kumea epelago egoten dan eta otza dan txit egokia aurgintzea atzeratutzeko eta luzeagoa egiteko. Ez du onek esan nai miñak asitzen diranetik bertatik atzene-raño emakumeak oiean egon bear duala bada gauza ona da ere azken alde artean batetikan bestera pixka bat mugituztea, bañan oraiñ esaten degun onetatik kanpoan oztutzeko arraxkuan egotera, bitarte aundia dago. Beste gauza bat nekazari eta langille jendearen artean ustez obetoago izateagatik askotan egiñ oi dutena eta egiñ bear ez dana, da puntutikan puntura aurra egiten dagoan emakumeari ematea dala teia, edo kafia edo salda garbia, naiz eta gogorik ez dezala eduki; ez da onegatik gertatutzen jende oek uste

duten bezela esandako gauza oek maiz artuarekin lenago emakumea dagoan estutasunetik ateratzea, baizikan orrelako nasteakin gora larria eta ondoeza besterik etzaizka jarraitzen emakumeari; eta bakar bakarrikan jan zarra badago andrea, edo miñak txikiak eta noizipeiñoak badauzka, edo aurgintza asko luzatuaz badijoa, orduan eman lezaioke salda pixka bat edo beste lenago izendatutako gauza aetakoren batzuek. Aurgintza aurreratuaz dijoanean eta urzorroa ausirik umea kanporatzen danean, lotu bear zaio zilla bi tokitan; bat, gilborretikan biatz bi gutxi gora bera loturak dituela, eta bestea, tarte txiki bat arekin utzirik, biyen artean gero guaizeakin ebakitzen dala; eta ondoren egongo da andrea geldi-geldirik aur-laguna bota arteraño edo ez badu berez botatzen, laguntzallak tirako dio pixkaka ezkerreko eskua emakumearen sabelbarrenean ipiñi eta antz ematen dionean eskupean osatu dala gogortasun biribill bat, eta ez du lenago egiñ bear lan onetan indarririk aur-laguna ateratzeko, bada amasabela biribildu gabetanik asitzen bada onetan, odolaren korrimentu aundia igaroko zaio ondoren eta jarriko du arraxkuan andrearen izaeta. Asitzen bada odol asko joaten aur-laguna egiteko dagoanean edo egin eta bereala, ipiñiko zaizka ema-

kumeari denborarikan batere galdu gabetanik ur otzetan bustitako edozeiñ zapi zar edo berri sabelbarrean eta istarretan bereala medikuari ots egiten zaio-la.

Aur-laguna egindakoan egongo da emakumea gora begiratuaz iñora mugitu gabetanik eta jarri edo ipiñiko zaio gerrian lotuta zabal-zabalik onetarako ondo datorkion esku zapi bat ari puntara batzuekin edo orratzakin gogortuta. Ez degu esan oraindano ezer aurgintzako gañean, ez bada lan au bere izate onean gertatzen danean laguntzalleak jakiñ bear dituan gauzarik aurrenengoak; bañan ikusten badu onek, edo aurra jaio bañan lenago odola joaten asi zaiola andreari edo oni naigaberen bat egiñ zaiola, edo aurra kanpora irteten asitzen danean ez duala burua azaldutzen baizikan besoa, edo anka, edo orrelako bear ez litzaken pusketaren bat, orduan edo aurgintza oso luzea dijoanean, ez datoz gauzak bear bezela eta ongi, eta deitu bear zaio mediku bati.

Umeari zilla ebakitakoan begiratu bear zaio ongi lotuta daukan, bada au onela ez bazaio jartzen, etorri lezaioke odol korrimentua zilletik, zeña litzakean txit arraxku aundikoa umearen biziarentzat. Ondorenean garbituko zaiozka istar tarte eta lepoan eta galzarbee-

tan dauzkan koipeak oliyo edo jaboe urarekin, eta eztarriko eta aoko mukiak kendutzen zaizkela baldin badauzka, estaliko zaio zilla zapitxo batekin eta jarriko zaiozka bere gerriko lotura eta beste arropak geiegi estutu gabe, bada au egiñ ezkerro gertatu liteke, iñoiz izan dan bezela, umea itotzea asnasik artu eziñik.

Baita ere konturatu bear degu emen, zeñ gaizki egiten duten askok ume jaioberriari burua luze antzean dakarrenean zapaldutzea eta biribildutzea esku zabalarekiñ, bada luzetasun au nola bai dan toki estutik ateratzen egindakoa, berez denborarekin alde egiten dio, eta eskuakin ari danean norbait burua itxuratutzen, etorri lezaioke umeari kalte aundia zergatik buruko ezurak garunak estutu lezatezken; alferrika-koak izaten dira ere arrautza zuringozko lotura eta beste orrelako ezer baliyo ez duten usariyo eta oiturak esandako gauza ortarako. Beiñ estea ustu eta txixa egiten duanean aur jaio berriak, eta zeñetarako asko dan atze aldetik biatz txikia edo perrejill zuztar bat sartutzea, edo eskuko bi beatzekin pixka bat sabelbarrrena igorritzea, ez zaio eman bear askotan usariyo dan bezela salda garbia, bada onek ekartzen diozka sabeleko miñak aurrari, eta asko obea da uresne

gozatutako pixkatxo bat edo emakume baten bularra izan ezkeroztikan berria, ematea; bada ume jaioberriaren barrua ez dago oraindik beste gauzarik artze-ko ez bada esnea, izan dedilla au amarena, zeña dan guzietatik onena, edo beste emakume batena; eta au ez orrela izanik, auntz edo beiarena, zeñetatikan datozen umea azitzeko bi izate, zeñaren gañean esango ditugun itz bi amargarren argibide au bukatutzeko. Lendabiziko eduki bear dan gauza bat gogoan da, onena dala naiz amarentzat eta naiz ume jaioberriarentzat (non da ez diran sortutzen uste gabeko eginkizunen batzuek), ematea oni amaren bularra; bada antziñako denboretan ere esan oi bañan amatasun geiago zaukala umea azitzen zuan andreak aurra egiten zuanak bañan, gañera gertatzen da gauza bat zeña dan, aurra eginberria dagoan emakumeak daukala bere umeari bularra ematearekiñ, obetoago bere amasabela bear dan bezela gelditutzea aurrerako, zergatik obetoago garbitutzen zaion berak umea bulartuta. Gañera umeak amaren bularrean billatzen du beretzat janaririk egokiena eta amaren naitasunak biguñagoak egiten diozka sabeleko gozotasunetik irten eta kanpoan arkitzen dituan gogortasun eta nairgabeak. Baita ere beti ditu bigun eta gozoagoak amak

egiten diozkan moldakizunak eta maitetasunak, ez iñure edo soldatan dagoan beste emakume edozeñek bañan. Umea azitzen dagoan emakumeak, aurra egiteko dagoanak bezela, eduki bear ditu kontuan beste zenbait erreparorik asko, nola diran jantzi eta jan erarenaren gañean, orain bukatutzeko itz bi esatera goazen bezela.

Lendabiziko, erabiliko ditu bere jantzi arropak lasai, eta izango dira oek oztu ez dediñ modukoak, bada otzak artutzen badiozka bularrak oek gogortuzten dira eta esnea bildutzen zaio beretan jarraituaz *titi arraña* esaten zaion gaitza, zeña izaten dan aiñ mintsua eta sendakaitza beiñ bañan geiagotan. Jana eta eranak izan bear dute garbiak eta barruak ondo artzen diozkanak, bada emakumea ondo janak artuzten badu ez dira eduki bear askok oi dituan erreparorak gauza onen gañean, zergatik umeak ere ez du gaitzik izango; bañan alaz guztiaz ere egongo da kontuan ikusten ote duan zerbait gauza kaltegarri umearen izatean orrelako edo alako jateko artzen duanean bularra ematen dionak, bear bada utzitzeko jatez berari bere ustein naiz ez eta kalterik egiñ. Kanpoko aizea artu eta pixka bat eguteran ibiltzea umea azitzen dagoan emakumea, da ere gauza ona, bada kal-

tegarria da beti etxe barruan egotea; eta au bera esango degu lo egitearen gañean, zergatik umea azitzen dagoan emakumeak bear du soseguz lo egiñ, eta ez oitura txarrik eman umeari bularrean artuaz esnatutzen dan bakoitzean; ohea da beste norbaitek noiz edo noiz gabean uresne pixka bat ematea, amak eduki dezan bear dan sosegua. Azkenik edukiko du emakumeak bere burua pensakizunik gabe, zergatik buru ausitzeak eta beste onetarako lanbideak atzeratzen duten esnea eta aurrak nozitu oi ditu askotan, bada esaera batek konturatzen du, umea amaren sabelaren barruan aur-lagunetik zinzilik dagoan bezela, arkitutzen dala ere aurra jaio berria dan bitartean modu berean amaren bularretik zinzilikan.

AMAIKAGARREN ARGIBIDEA

*Umeen gaxoen gañean.-
Zenbateraño igerri litekean arpegian
eta gorputzeko ibillera eta
egoeran zer gaxo gutxi bat
gora bera eduki lezakean ume batek.-
Zeiñ diran esandako señale oek.-
Umeen osasun-legeak.*

Uste izan degu gure liburu onetan eziñ utzi gertzakeala zer edo zer esan gabe umeen gaxoen gañean, bada gurasoentzat ona da jakitea zenbait gauza umeai dagozkienak, modu onetan, batzuetan igerririk gutxi bat gora bera umeak zenbateraño gaxoa eduki lezakean, eta besteetan antz emanik ere zerbait ez dagoala itxura edukiagatik bear bezela beren umea, billatu dezaten denborarik alferrik galdu gabe mediku bat, zeñak aterako dituan batzuetan beren buruzbide bildurrezkoetatik eta besteetan argi emango dioten umea egiaz nola arkitutzen dan, erabakiaz gurasoak zeukaten naigabeak ziran edo ez bear bezelakoak.

Nola gizon egiñ eta dagoanaren gorputza eta oraindik ume danarena dauden bat eta bestea izate aldi banean, zergatik umearen gorputzak daukan lan bat esku arte (zeña dan azitzea) gizonak egiña daukana, emendikan dator ere batek eta besteak oi dituen gaxoak izatea bakoitzari dagozkion modukoak eta berarengatik biziro bata besteaganarengandik banatarakoak, ikusten dan bezela. Eta aiñbesteraño da gauza au onela, non badiran gaxoak bakar-bakarrik umeak izan oi dituanak, eta bai eta ere beste batzuek, gizon egiñ eta dagoanak igarotzen dituanak, eta zeñetatik egoten diran umeak kezkarik gabe; eta gauza egokia da au onela izatea, zergatik badauzka umearen gorputzak zatiak oraindik lanean asi gabekoak; eta oek daukate arraxku gutxi gaxotzeko, geldirik daudelako oraindik. Gañera beste gauza bat ikusten da umeetan, zeña dan edukitzea gaxotutzeko griña geiago beren gorputzeko leku batzuek besteak bañan, nola diran garunak, birikak eta esteak; eta iñolaz ere au gertatutzen da zergatik izendatutako pusqueta oek egin bear izaten duten lanik geiena gorputza azitzen ari dan bitartean, azitze au gertatu dediñ.

Baita ere umearen izate moduak oi du berekiñ, edozeiñ gaitz naiz eta aundia ez izan, asitzea gogorta-

sun eta nabarmentasun batekin, non ikaratu azten dituan gurasoak batez ere berotasuna daukatenean; bada au da gauza bat aiñ aundia azaldutzen dana umeetan danik gaxoaldirik txikienetan ere, non askotan ikusten dan geiegi jan dualako, edo eguzkitan ibilli dalako, edo beste edozeiñ uskerirekin itxuratzen duala berotasunak gaxo aundi baten asiera; eta bai eta beiñ bañan geiagotan ere naigaberik asko artu izan dutela zenbait gurasok nai izan duelako igarri eta antz eman berotasun oei zer edo nolakoak diran, graduadore artarako daudenakin, zeñak egiñak dauden medikuaren eskuetan ibilltzeko eta ez besterentzat, zergatik bestek ez dakiten ematen eta eziñ jakin lezateken ere, bear duan baliyoa gauza oei.

Bañan egia baldin bada askotan umeari antz eman lezaiokeala gaxoren bat datorkiola, beste zenbait aldiz ez da onela gertatzen, zergatik nola umeak ez dakien itzegiten, emendikan dator zallagoa izatea berari antz ematea eta baliyatu bear izatea zenbait señale moduz, gizonak bere itzarekin bear ez dituanak adierazotzeko zer eta nola gertatzen zaion danean ondoeza. Beragatik umeak itzik eziñ egiñ arren, badauzka ere bere adierazotzeko moduak zeñaren bitartez guk antz eman bear diogun ez bakarrikan miñ

daukala, baizik baita ere zeñ lekutan artutzen duan miña eta non eduki lezakean ondoeza; bada ongi eza-gutu edo ez ezagutzetik gauza oek, daukagu zer ikusi aundia, zergatik onetan egon liteke umea sendatu-tzea edo gure uskeriagatik bizia berak galtzea.

Antziñako esaera baldiñ bada dala arpegia anima-ren ispillua, au berau esan liteke gorputzeko gaxoakin ere gertatzen dala esandako leku orrekiñ, bada antz ematen zaio askotan arpegian zer gaxo gutxi bat gora bera norbaitek eduki lezakean, eta geiago oraindik umea baldin bada gaxotuta dagoana. Orrela bada, arpegiko alaitasunean, edo beraren kolorean, begieta-ko ibilleran; eta ezpañetako eta sudur zuloetako mugimentu eta itxura zenbaitetan, antz eman lezaioke (eta ala gertatzen da ere askotan) zer gaxo daukan umeak señaile esandako oek bakoitza banaka edo bata bes-teakin alkarganatuta esamiñatzen ditugunean.

Umeen gorputzeko ibillera eta egoera dira beste bi iturri zeñetatik atera bear diran zenbait aldiz umeak eduki lezakean gaxoaren sustriak, bada badira gaitzak zeñetan umeak artutzen dituan egoera jakiñak, eta bai eta ere egiten dituan mugimentuak, beti gaitz modu jakindako bati dagozkionak. Au bera esan bear degu umeen negar eta garraxiak gatik, bada nola

garraxiak geienean aditzera eman nai duan non ere bait umeak oñazea daukala edo miñ artutzen duala, guk eduki ezkerro bear degun begiramentua antz eman lezaiokegu zeñ tokitan miñ artutzen duan garraxiarekin batera jartzen badegu erreparoa zer mugimentu egiten dituan eta nolakoak ume txiki gaxoak. Izendatutako gauza oez gañera kargu egiten bagera zer nolakoak diran umeak botatzen dituan zenbait botakizun nola diran gorakoak, edo berakoak, eta beste azaldu lezaiozkeanak, guziak alkarganatu, eta konturatu bear degu askotan zer gaxo daukan ume txiki arrek.

Aditzera eman bear degu oraiñ zerbait, batera azaldutzen diran señaile batzuen gañean zeñetatik antz eman lezaiokegun umeen gaxo jakiñ batzuei, eta arpegikoetatik asiera ematen diogula esango degu, masalletako gorritasuna, asnase estua, sudur zuloeta-ko itxi irikia maiz edukitzea, eta *inkaka* umea dagoanean gañera berotasun aundia daukala, alkarganatu-tzen diranean gauza oek batera, esan genazake umeak daukala biriketako aundidura edo *pulmoniya* izendatzen dan gaxoa.

Ume bat maiz esnatutzen danean gabeen eta bere burua ikaraz bete eta bildurtzen dala norbait ikusi

balu bezela zer edo zer gauza txarra egin nai diona, dago arraxkuan buruko gaitza sortutzeko berari; eta au gertatzen bazaio, antz emango zaio ezpaiñ edo begiren bat okertuta edo erdi itxirik gelditzen dala ikustean, edo arpegiko eta gorputzeko dardararak azaltzen diralako; onelako gauzaren bat azaldu ezkerro, bereala esan bear zaio mediku bati bada gauzak onetaratzean erreparo aundiak bear dituzte.

Umeak izan oi duten iturriko ura bezelako berakokak egunez eta gabeen beti puntutik puntura ustuz egoten dirala, itxuragabetzen diote arpegia, zeña gelditzen zaioten ordu gutxiren barruan luzaturik, begiondoak sartuta, sudurra zorroztuta, eta azkenik kolore zuria masallean illdakoaren antzera esate baterako; eta bai eta laister ill ere egiten ditu berako onek, ez badira agudo jartzen bear diran erremedioak len baño len geldituzeko.

Ikusten danean umearen arpegia kolore zurbillekoa eta begininiak zabalak dauzkala, gañera lotan dagoanean begiak erdi irikiak edukiaz eta maiz sudurretara eskua atzegiteko eramaten duala, esan lezake geienez, ume arrek *txitxareak* edo *bizixoak* dauzkala.

Ume txiki ezpaiñ lodi edo aundiakikoa eta gañera arpegi zabala, eta askotan oi dan bezela lepoan koskorrak dauzkana, esan liteke dala odol txarrekoa, eta osasuna bigunekoa izango dala bera.

Ikusten danean ume bat aoa zabalik eta beatzak bertan maiz sartutzen dituala, gañera lerdea dariola, esan liteke dauzkala ortzak irteten, edo aoko miñaz dagoala, laguntasunaren bearrean len bait len ortzak kanporatutzeko artarako dauden erremedioakin.

Umeak oraindik itzegiten ez duanean, asitzen bada garraxi batzuek egiten eta oiean dagoanean iges egiten bezela norbaitek arrapatzeko bildurragatik, eskuak burura eramaten dituala, esnatuaz ere bat batera eta guzia bildurturik zerbait gauza ikaragarri ikusi balu bezela, esan lezake dagoala garunetako gaxoarekiñ eta egiñ ala erremedioak egiñ eta ere, ez dala erraza izango ume ura sendatutzea, zergatik esate baterako guziak gaitz orrekin ill egiten diran.

Umea soseguz eta geldirik dagoala asitzen danean bat batera arpegia zimurtzen eta negar egiñaz istarrak eta anakak sabelera eraman naiean; eta onela denbora pixka bat igaro ondoren berriz isilldu eta geldirik jartzen danean, atzera lenago bezela egiten negarrak eta okertzen bere istarrak eta anakak,

esan liteke dauzkala sabel edo esteetako miñak, eta kamamilloen urarekiñ aizeak bota erazi, edo beren olioarekin idurzi batzuek eman, edo gorputzetik libratu erazi bear da, modu onetan biurtu dediñ berriz bere ondo-izatera; eta esandako gauza oek egiñ ondoren ez bada ongi jartzen, eman bear zaio aditzera mediku bati.

Gorputz guziko dardararak iñoiz umeak izan oi dituanak, dira ere beste gaxo izaldi bat geiena gurasoak bildurtutzen dituana, zergatikan askotan uste gabe eta osasunarik onena umeak zaukala uste zuteanean, azaldutzen diran. Emen izendatzen ditugun dardararak ez dira garunetako gaxoekin eta naparrei, elkorri edo beste onelako gaitzen asieran azaldutzen diranak bezelakoak, baizikan osasunez beteta umea dagoanean etortzen diranak, geienenbat eguzkiak pasatu dualako, edo txitxareak edo bizixoak dauzkalako, edo beldurtasunen bat artu dualako, edo baita ere geiegi zerbait gauza jan, edo ortzetako eta aoko miñakin dagoalako. Beti izaten da gauza ona jakitea gutxi bat gora bera zein izan ote litekean izendatutako gauza oetatik, dardararak azaldu azi dituana, bada jakiñ ezkerre zein dan, errazago medikuak ere ipiñi lezaioke erremedioa, bestela geienak onelakoetan

usariyoa dagoanaz gañera, eta zeñak diran, izañak ematea, edo bai eta ere gorputz guzia bañu epel batean sartutzea. Kontuan eduki bear dan gauza bat da dardarara oen gañean, beiñ azaldutzen bazaiozka ume bati, lendabiziko joaldiak bigarrena askotan ekarri oi duala ondorenean, eta umetasunean ez bazaiote bear dan kontua artutzen alegiñak egiñaz bear diran erremedioakin, dagoala geroagoan arraxkuan ume ura azitzen danean, izatea biotzeko miña egiten zaionetakoa; ez dago bada zer esan zenbateraño saiatu bear dan umea dan bitartean dardararatako gaitza al dan ondoena erremediatzen, geroko ekarri lezakean ondoeza negarrezkoa kontuan edukita.

Bada ere beste gaxo bat gurasoai bildurtasun ikarrazkoa ematen diotena gertatzen danean, zeña dan garrotilluaren itxuraz jantzi eta azaldutzen dana. Badago umetxo bat eztul pixka bat noizikan beiñ egiten duala, bañan beste gañerakoan ez dauka ezereren gaxo itxurarik, bada ondo jan eta eran egiten du, ibillirik jolastuaz oitura egunero daukan bezela; onetan, gau batean goiz aldera edo egunsentia bañan lenago (bada beti ordu oetan gertatu oi dira esaten ari geran gauza oek), artutzen du estutasun aundi batek bat batera, eta dagoan lotatik esnatutzen da ito bear izu-

garri batekiñ iñola ere asnasaz bete eziñ dala; eztarria itxitzen zaio eta txistu soñuaren modura ateratzen du zinzurrean otsa aizeak; gurasoak bildurtutzen dira, zergatik uste duten iritxi dala azkenengo ordua beren umearentzat; bañan pixka banaka badijoaz esandako señale oek txikituaz eta ordu bat edo bigarrego, atzera gelditutzen da soseguz umea. Au da gaxoa gurasoai geienenbat ikara eta bildurra sartu oi diotena denbora labur batean, bañan esan liteke beti edo beintzat geienez berez sendatutzen dala, edo gauza gutxi bat lagunduarikeñ, nola dan ur berotan bustitako zapi bat eztarrian kanpoko aldetik ipintzearekin; bañan bada beste gaitz esaten ari geran onen antzekoa isillago azaldutzen dana, zeña dan egiazko garrotilloa, umeak geienak berekiñ eramaten dituana eta pixka banaka eta pauso isillarekiñ etortzen dakiena; au da gaitz bildurgarri eta izugarria zergatikan biziro ume gutxi sendatutzen diran berak jotzen dituanak; bañan lendabiziko izendatu deguna, naiz eta otsak aundiak izan, ez da kontuzkoa, eta beiñ antz eman ezkerero zer nolakoa dan, egon litezke soseguz gurasoak bada beren umea sendatuko da gaitz artatikan.

Azkenik, bukaera emateko amaikagarren argibide oni, esan bear ditugu itz batzuek aoko ortzak eta agi-

ñak jaio bitartean iñoiz ume txikietan azaldu oi diran gaxo batzuen gañean; eta bai eta ere esteetako zenbait okertu-aldi igarotzen dituenen gañean, zergatik diran batzuek eta besteak maizen gurasoak ikusi bear izaten dituenak beren etxeetan.

Ez dago esan bearrik ortzak eta agiñak jaiotzen dagoenean, bitarte orretan guzian umeak edukitzen dutela edozeiñ gaxok jotzeko arraxku aundia; eta da ere gauza jakiña, zenbait gaitz igaro bear izaten dituala umeak, ortz edo agiñ bakoitza jaiotzerako denboran. Onegatik bada, askotan ikusi oi dira esandako denbora bitarte onetan au eriak, gora eta berakoak, eta baita ere lenago esan ditugun dardarara aek, zeñak eziñ sendatu izaten diran ezererekin ez bada ortza edo agiña kanpora azalduarekin baizik. Gañerakoan gauza jakiña da ao-eriak geienean sortu oi zaiztela umeai ortzak irtetzeko denboran, eta lan onetan laguntzeko ohea dala berai ematea aora, gauza bigungarriak eta ez gogorak, askok usariyoa daukaten bezela, ezurrezko jostallu batzuek lepotikan zinzi-lik ipintzen diozkatela: ohea izaten da onetarako ogi azal bat, eta ao-eriak sendatzeko, asko izan oi dira esne, garagar edo ezti pixka batekiñ egindako idurziak egunero zortzi, amar edo geiago aldiz.

Batzuetan azaltzen dira bada ortzak botatzeko denbora bitartean, gaitz aundiak egiazkoak, eta beste batzuetan itxura geiago daukatenak berez diran bañan: alaz guziaz ere kontuan eduki bear da beti, ume txikiak soportu gutxi daukala, eta gaxoak naiz eta ez gogorrak izan maiz jotzen badute umea, nola dan au biguna, erraz menderatu dezaketela onegati-kan bakarrik bada ere.

Esan degu lenago umeak izaten dituzten berakoak dirala batzuetan ortzen eta agiñen irteera bitartean irauten dutenak; bañan badira beste batzuek ere zeñaren gañean esan bear ditugun itz bi leku onetan. Oetako berakoetatik ugariena eta geienez azaldu-tzen dana, izan oi da esteetako katarroagatik asiera daukana; eta sortutzen da umea osasuna bigunekoa dalako, edo oztu dalako, edo txitxareak edukiagatik, edo geiegi bularra artutzeagatik, eta baita ere amaren edo iñurearen esneak mudantzaren bat eduki duala-ko. Kolorez oria danean berakoa naiz eta geroagoan aizeak jotzen duanean edo txixarekiñ nastutzen danean artu dezan belar kolorea, ez da bildurtzekoa non eta umeak berotasunik ez daukan; bañan atera-tzen bada esteetatik bigarrenko izendatu degun kolo-

rearekin eta pinportaz betea, orduan kontuzkoa da zergatik umearen esteak daudezen gaxoturik.

Baldiñ berakoa bada uraren itxurakoa edo odolez nastua, beti da kontu aundikoa, eta bereala artu bear zaio kargu umeak artutzen duan bularrak izan ote duan mudantzaren bat edo ematen ote dioten jateko-
ren bat ongi esteen indarrari ez datorkiona; bada gauza oek biak eta ontzi artarako izan oi ziran batzue-
tatik umeari ematen zaion esneak, azaldu azten dute geienez emen izendatzen degun berako au, eta bai eta ere beste bat oraindikan kaltegarriagoa, esatera goazen bezela. Orain esaten degun berakoa da guzia belar txikituaren itxurakoa eta iturriko ura beziñ meia; umeari koloreak zurbilldu eta aragiak urtutzen zaioz-
ka egun gutxian; edukitzen du berotasuna, eta ista-
rrak eta atzeko-aldea gorriturik eta erreak bezela azaldutzen dira; leku oek sarritan garbitu bear dira zergatikan bestela aragi bizian jartzen zaiozka umeari egun gutxian. Era berean, ez bada laister gelditutzen berako au, artutzen dute umeak zar baten itxura, bada arpegia zimurtutzen zaiote, ezur biurtutzen dira, eta pixka banaka urtuaz dijoazela edo bitarteko edo-
zeiñ gaitzek jotzen dituala burutik, biriketarik edo

beste edozein lekutatik, itzaldutzen da aen bizi nola-baitekoa pizturikan zeukan argi illun ura.

Onegatik bada gurasoak antz ematen diotenean berako au daukala beren umeak, azaldutzen dan beziñ laister aditzera eman bear diote medikuari denbora galdutzen ibilli gabe zenbait erremediantza baliyoric batere gabekoakin edo atsoren batek agindutzen dituan itxura gabekeriakin. Lendabiziko kontuan eduki bear dan gauza berako onetan da, umeak artutzen duan esne edo bularrari dagozkionak eta ematen zaion janaren gañean bear diran erreparoak, bada bat edo bestea badira erantzunkizunak, len baño len kendu eta bear bezelakoak artu ditzan gaxoak.

Onezaz gañera ez dira gaizki etortzen ipintzea sabelean linazizko enplastoak eta ematea ere este garbigarriak malmen urarekin edo almidoe eta arrautza zuringoa nastutakoakin, medikuak agintzen dituan bitartean beste berari derizkion erremedioak zeñetarako ots-egin bear zaion denborarik galdu gabe onelako gaxoetan.

Uste izan degu geiago eziñ luzatu geñeikela argibide au, zeñetan aditzera eman ditugun umeak geienbat izan oi dituen gaxorik ugarienak eta gurasoak askotan etxean ikusi bearko dituenak; eta emen adie-

razo nai izan ditugun gauzakin dauzkate jakinik zenbait igarbide antz emateko zenbaterañokea izan litekean umearen gaxoa, denborarik galdu gabetanik medikuari otsegiteko batzuetan, eta beste batzuetan ez dezaten bear ez bezelako estutasunik artu edozein uskerizko ondoezak jotzen dituanean ume txiki eta bigunak, zenbait naigabe gurasoai beren ezereztasuna gatik eman oi diozkatena asko eta askotan.

Azkenik, eta bukaera emateko argibide onetan izendatu ditugun puntuai eta kontuan edukirik beraren aitormen aundia, esan bear ditugu beste itz labur batzuek umeen osasun-legeen gañean, bada oen bitartez iritxi bear dute berak gizon indartsu eta osasunez beteak izatera, eta geroagoan lanerako eta gizarterako bear bezelakoak izan ditezten.

Lendabiziko umeen osasunaren gañean kontuan eduki bear dan gauza da, oei ematen zaioten jatekoa zer nolakoa dan bada au bear bezela egiñak ekarri oi ditu ondorean okertasun eta kalte aundiak umeen osasunean. Lenagoko argibide batean esanik utzi degu zenbaterañoeko zer ikusi aundia daukan umearen ongi izatean berari bularra ematen dion emakumearen osasunak eta izate moduak, eta baita ere esne ona eta ugaria dala gauzarik egokiena aur txikiaren-

tzat. Nola baita ere umearen urdalla eta esteak ez dauden denbora jakin bat arteraño bear bezela osatuak edozein janari beren barruan sartzeko, emendik dator izatea gauza erraza konturatzen zein gaizki egi-ten duten umea azitzen ari diran zenbait emakumek, ematea berari ezbidetzko jatekoak zeñaren bitartez ikusi oi dan sarritan nola umeak alferrik galtzen diran eta baita ere askotan bizia galtzen duten, gertatu oi dan bezela geienenbat erri aundietako jende beartuen artean guztiok dakigun bezela. Esne ugaria eta sendoa da bada umeentzat jatekorik egokiena oraindik txikiak diran bitartean, eta eman bear zaizkate beste jatekoak ortz eta agiñak azalduaz dijoazkioten bezela, asirik esne-iriñetik, eta sopa, arrautz erre ariñ, eta oen antzekoetatik aurreratuz aragi gauzetara.

Umeak azitzen dijoazen bitartean eta oek indartzeko usariyoric onenetako bat da ere berai egunero bañu bat ematea.

Bañu oek ez bakarrik gorputza gogortzen eta sendotzen dute, baizik gañera eraozten dituzte larru azaleko zenbait gaitz modu, eta baita ere biriketako katarroak, bada oek sortu oi dira geienenbat umeetan zergatik arropa edo estalki geiegi ipiñi oi zaizten berai, eta ez diran oitutzen otz beroko mudantzetara, zeña

egiten dan bañuak artzeko oitura daukaten aetan, onela gutxituaz lenago esan degun katarroetarako arraxku ura. Gañera bañuen bitartez galtzen dute umeak berez oi duten biguntasun ura eta baita ere zenbait garunetako eta bizkarmuñeko gaitz lenago aitortu ditugun aetarako erraztasuna eta griña.

Beste gauza bat umeen osasun-legeen artean kontuan eduki bear dana beraren ondasun aundia gatik, da, gorputzaren mugimentu eta ibillera, zeñaren bitartez au zabaldu eta indartutzen dan berari dagokion neurrian egiten danean. Gure parajeon daukagu onetarako usariyo bat biziro egokia zeña dan pelota jokua, bada joku onek beartzen du gorputza anketako azkartasuna, besoetako indarra, begietako alkantzua, biriketako zabaltasuna, biotzaren lantegi, eta janari leku guztiko mugimentuen bitartez; eta gauza oek guztiak bat batera egiteak ematen dio gorputzari indar eta pizkortasun aiñ aundia non ez litekean aiñbestekorik beste iñolako bidez. Era berean esan bear degu leku onetan, zenbateraño dan gauza ona eta egokia mendietako ibillera, bada aldapa gora gorputzak egiñ bear dituan mugimentu eta indarrak eta mendietako aize garbiak eta oetatik ikusten diran paraje eder eta berdantzaz betetakoak alaitzen dute

umeen gorputza eta beren jolasgurea eta atsegiña onelako lekuetan argitaratzen dira bedeinkatuaz Jaungoikoaren lantegi miragarri au, zeñaren bitartez datorkioten berai ondasunezko eta osasuna gordetze-ko biderik eder eta egokiena.

AMABIGARREN ARGIBIDEA

Itxasoko bañuen gañean.-

Zer baliyo aundikoak diran eta nola artu bear diran probetxu eta on egiñ dezaten.

Azkenengo argibide onetan itz egiñ bear degu itxasoko bañuak erremediotzat artutzearen gañean, zeñak antziñako denboretatik asi eta ikusten badegu leku guzietan beren usuarioa ezagutu izan dala, seña-lerik onena da au beren ondasunaren alde itz egiten duana. Eta au orrela dala, gañera askotan ikusi izan da zenbait gaxotan ezagututzen diran erremedio guziak egiñ arren sendatu eziñik ibilli eta gero, itxasoko bañuak izan dirala azkenean moldatu izan dituenak onelako gaitzik asko; eta nola edozeiñ moduz ere beti itxasoko bañuak ematen dioten gorputz biguñekoak diranai zerbait argitasun eta pizkortu aldi, emendikan dator aen ondasuna zenbaterañokoa izan litekean ez erraz neurritutzea bear bezela, bada biguna dan gorputza gogortutzearekiñ, eragozten du asko gaitz zabaldu eta argitaratzeko modua.

Orain esan bear degu itxasoko bañuak erremedioztzat ematen dirala geienenbat, izendatzera goazen izate edo gorputz aldietan; lendabizikoa, berez odol bigunekoak esan oi dan bezela dirala diranai, batez ere gazte jendeari; bigarrenago, odol baliyo gutxikoaren jabe diranai gorputzean azaldutzen zaiozkaten zenbait ajetan oek diranean askotan oi dan bezela aura dala medioz sortuak; eta irugarrenago, beste zenbait gaxo edo gaitzetan zeñak emen eziñ guk bakoitza izendatu giñezken eta gelditzen diranak medikuaren eginkizunetzat, nola diran, bear bezela gaxo ondoren batean osatutzeko, eta beste erremedioen laguntzalle bezela, edo beste modu askoz esatea medikuari dagozkionak galdetutzen zaionean gauza oen gañean.

Beiñ itxasoko bañuak artutzeko asmoa egiten duan ez badago oituta bizi izaten itxasaldeko parajeen, gauza ona izango da bere osasunarentzat probetxuzkoak gertatu ditezen bañuak, iru edo lau egun egotea *aize aldatzen*, da esatea itxas-aizeak artutzen itxasosan sartu bañan lenago. Orrela bada, esango bagendu bezela *aizezko bañu oek*, dira txit onak eta ez da urte askotan bizi bear ikusteko guk ikusi degun bezela, zenbait aldiz paraje urrutikoetatik etorri itxas-aldera eta gorputza pixka bat oitu gabe itxasoko aizera, egun

batetik bestera itxasoan sartu, eta gero bañuak on egiñ bearrean gaitz egitea. Eziñ ukatu liteke bada itxas-aldean egun batzuek egoteak naiz eta bañurik ez artu, askotan on egiten diotela zenbait jende gorputz bigunekori, eta ohea dala egun bi edo iru ez bada ere, gorputza itxasoko uretan sartu gabe egotea, oitura modu bat artu dezan lendabizi itxas-aize eta itxaso-ko lekuko izaera moduari. Orregatik askotan ikusten da zenbaitek zer mudantza aundiak egiten dituzten beren izaeran itxas-aldera etorriarekiñ bakarrik, bada itxas-aizeak eta itxasoak alaitutzen ditu, eta jaten dute lenago beren erri edo parajeen bañan gogo geia-gorekin, eta gorputza jartzen zaiote bigun eta ariñago barrungo alegrantzak baten bitartez. Gañera ume eta osasuna biguneko zenbait jendek askotan bañuak ematen dituen mudantzak eziñ igaroko litukenak, itxaz baztarrean ibiltzearekin bakarrik arkitutzen dute beren osasunerako erremediorik onena baterere bañurik artu gabetanik, ikusten dan bezela askotan. Baita ere beste gauza batez konturatuta egon bear degu bañuak artzeko gañean, eta da, orain izendatu ditugun jende bigun eta umeari ongi egiten diotela itxasoan sartu bañan egun batzuek aurreragotik artutzea iru edo lau bañu itxasoko ur epelarekin etxean,

artarako izan oi diran ontzi egokietan, oitura artu dezan gorputzak ur gesalera, geroagoan ez dezan arkitu itxasoan aiñ mudantza aundia kolpez eta bate-ra sartuta. Badira ere jendeak artu eziñ lezakeanak oraiñ esaten ditugun bañu etxeko oek besterikan, nola diran eztula daukatenak, edo urteetan aurrera dijoa-zenak, erreumatsuak eta bildurtiak, edo ur otzean sar-tutzea ikaratutzen diranak; bada oei guziaz mesede bañan kalte geiago egiñ lezaioke itxasoan bertan sar-tuta artutako bañuak. Esan ditugun oei guziaz ondo datorkiozte bada itxasoko urarekin artutako bañu epe-lak otzaren tokian, eta ikusten da oetan, itxasoko ura-rekin artutako bañu epelaren ondorean ez dituala jotzen otz ikarak gertatu oi dan bezela ur geza epeldu-takoarekin artutzen diranean; zeña gertatutzen dan iñolaz ere, odolak geiago mugitutzen ditualako ur gesalak gazia ez danak bañan, eta beroago gelditu-tzen dan gorputza batarekin bustitzen danean bestea-rekin bañan. Itxasoko ur epelduari botatzen bazaizka itxas-belarrak edo antz onetako erremedioak, izaten dira txit onak erreuma sendatutzeko etxean artutzen diran bañuak.

Ez da gauza baliyo gabea eta uskerizkoa edozeiñ modutan bañuak artutzea, bada beste gañerako erre-

medioakin bezela gorde bear dira bañuakin ere zenbait kontu modu oraiñ esatera goazenak. Eduki bear dira gauza batzuek kontuan bañua artutzerako; beste batzuek, bañua artutzen dagoan bitartean, eta azkenik besteak, bañua artu eta ondorenean. Lendabiziko-etakoak dira, zeñ orduan artu bear dan bañua, itxasoko maria nola arkitutzen dan, eta zenbat denbora luzekoa izan bear duan bañuak; bigarren lekuan aditzera emango degu zer modutan artu bear dan bañua, eta irugarrenean izendatuko ditugu beste zenbait eginkizun bañua artutakoan kontuan eduki bear diranak.

Orduaren gañean esan bear degu ez dala egunaren edozeñ orduan bañurik artu bear, bada aldebaterraten ditugula jan eta berealako orduak zergatik oetan artutako bañuak ekarri lezazkean asko gaxo urdalle eta esteetakoak, gañera kontuan eduki bear degu itxasoko mariak nola ote diran, bada oek beren gora berakiñ asko esan nai dute bañuaren izaera gogor edo bigunagoan.

Bai ta ere jakiñ bear dan gauza da, ez dala egokia eta ona artutzea bañua eguzkia goizean azaldu bañan lenago, eta iñulabarrean ezkutatu ezkeroztikan; bada naiz egun sentian eta baita ere iñulabarrean, kanpoko

aizea ez da egokiena gorputzari on egiteko ur gesalean sartuta dagoala.

Badaurik artu bear dan edo ez bañua, da beste galdera jende askok egiñ oi duana, zeñari erantzungo diogun esanaz ez baldin bada gizon edo emakume indar edo osasuna gogorrekoa bañuan dabillena, geie-nean artu litekeala goizetik, eta bai eta ere ordu bat edo biz aurretik gauza gutxi bat nola dan kafe-esne, edo arrautza bat, edo onelako edozeiñ gauza usariyo daukana bakoitzak artu eta gero; eta geiago jan baldin badu, utzi bear dirala iru edo lau ordu jan ondorenean au asentatu dediñ bear bezela.

Itxasoko mariaren gañean esan bear degu askotzat indar geiago edukitzen duala itxasoak mariagoran mariaberan bañan, zergatik itxasoa igoaz dijoanean olatuak izan oi diran aundiagoak eta ugariagoak, eta onetatik dator bañuan sarturik dagoanak artutzen dituala uraren astindualdi aundiagoak eta bañua gertatzen dala gogorragoa mariagoran, beratuaz dijoanean bañan.

Baita ere gertatutzen da nola itxas-bazterra dagoan urrutiago mariaberan au goratuaz dijoanean bañan, orduan potzura dijoanak ibilli bear du geiago bere burua urtan sartutzeko, non eta etxola edo

kaxerna eraman azten ez duan uraren ondoraño onetarako ipiñi eta egoten diran bei edo iriak, eta arkitzen da gorputza oztutzeko arraxkuan onegatik, eta gañera jantzirik dauzkan arropak ondo estaltzen ez dutelako, zergatik dauden egiñak uretan ibiltzeko eta ez jazkera arrekiñ aizetan egoteko. Au bera gertatu lezaioke oraindik obetoago eta errazago oztu liteke bañua artutzen duana urtatiek ateratzen danean itxasbazarretiek kaxarnara bide asko baldiñ badauka, bada nola gorputza bustirik daukan, ez da bear dan denborarako berotutzen eta beiñ oztu ezkeron onela dabillela, bañua gertatzen zaio kaltegarriago mesede egitekoa bañan.

Baita ere bañua izaten da indartsuagoa mariagorran au beratuaz dijoanean bañan, lenago esan degun bezela, eta itz batean bukatutzeko, esan liteke beste mugimenturen bat ez badu itxasoak izaten denborale txarren bategatik, eta bere izaera oiturakoan dagoala, beti izango dala bañua bear bezelakoagoa mariagorran artutzen dana itxasoa jatxiaz dijoanean bañan.

Gelditzen zaigu itzegitea lenago izendatu ditugun iru gauza kontuan eduki bear diranetatik bañua artutzeko, azkenengoaren gañean, zeña dan zenbat denbora luzekoa izan bear duan bañuak: oni erantzuteko

eduki bear ditugu gogoan beste bi esan aldi zeñetatik batzuek diran egoaldiari eta beste izendatuko ditugun batzuei dagozkionak, eta besteak bañua artu bear duanari berari iristen zaiozkanak. Orregatik edukiko da kontuan egoaldia otza edo beroa egiten duan, eudirik edo aizerik ote dagoan bañua azutzeko orduan, maria goian edo beian dagoan; zeñ orduan potzura dijoan, olatu gutxi edo asko, edo aundia edo txikiak daudezen bañurako orduan, eta onelako beste zenbait; eta bañua artutzera dijoanari dagozkionetan, zenbat urte dituan edo dan zarra, gazte sasoikoa, edo ume txikia; osasuna gogor edo bigunekoa dan eta onelako bere buruari dagozkion beste gauzaren batzuek konturatutzeko modukoak badira; eta gauza oek guziak edukirikan kontuan, artu bear ko du bañua batzuetan luze edo laburragoa beste batzuetan bañan. Gauza oek obetoago argirazteko esango degu bañuak bear ko duala laburragoa izan denbora otza egiten duanean beroa egiten duanean bañan: eta mariagoran itxasoa dagoanean, jatxitzen dijoanean bañan; baita ere olatuak aundiak eta asko diranean, itxasoa geldirik eta barea dagoanean bañan, konturatu bear da ere gauza oek esaten ditugula ez beti onela egiñ bear diralako baizikan geienean eta jenderik

geienarentzat onelako egokiagoak oi diralako. Onetarako esango degu bañu laburrak gorputza alaitu egiten duala, eta luzeak nekatu eta baldrastu; eta denbora geiegi uretan egoteak indarra kendu eta argaltzen duala, askotan artutzen bada bañua modu onetan.

Itzegiten asi geran puntu onen gañean esan lezake azkenengo, egon eziñ litekeala urtan sartuta oso oztu arteraño; eta irten bear dala potzutik otz-ikara sentitu bañan lenago, bañan ez dala oraiñ esaten degun otz-ikara au artu bear urtan sartutzen danean bereala etorri oi danaz, baizikan potzuan dagoala denbora pasatuaz etorri litekeanagatik ari general itzegiten.

Esan ditugun ezkerro bañua artutzerako gogoan eduki bear diran kontuak, itz batzuek esango ditugu ere zer eta nola beiñ potzura sartu ezkeroztik egiñ bear diran gauzak, lendabiziko izendatuaz nola urtara joan bear duan bañua artutzera dijoana. Beiñ erantzi ezkeroztik, zenbat eta lenago itxasoan sartu da obeagoa kaxernatik irteten danean; bada onela eragozten dio gorputzari oztutzea, eta oztuta itxasoan sartzea dan gauza txit arraxku aundikoa etorri litezken kalteak gatik osasunerako. Onegatikan bada izango da gauzarik onena agudo eta denborarik al dan gutxie-

nean gorputz guzia itxasoan urperatutzea zergatikan gañera gutxiago sentitutzen dan onetara uraren ozta-suna. Beiñ potzuan sartu ezkeroztik da ere ohea igeri egitea dakitenak edo mugitutzea gorputza modu batera edo bestera, bada ibilli eta mugimentuarekin itxasoko urak obetoago gorputzeko azala asetzen du eta odolean geiago utzitzen ditu berarekin daukazen zumuak: bañua artutzen dagoanak ez badaki igeri egiten, izango da gauza egokia beste norbaitek igurtzi batzuek ematea urarekin gorputz guzian. Ez da ere gauza parekoa, igeri egitea ezereren laguntzarik gabe, edo puxiga batzuek gerrian lotuta; bada puxigak lagundutzen diote gorputzari ur gañean egoten, bañan aek gabetanik igerlariak egiñ bear du askotzat indar geiago uraren gañean ibillitzeko. Onegatik esan liteke bañurik onena dala igeri egiten dala artutzen dana; onen urrengo, puxigakin ur gañean ibiltzen danarena; eta azkenik urtan sartu eta geldirik egoten danarena. Ez da ere ezer esan nai ez duan gauza, ego-tea uretan olatuak ausitzen diran lekuan bertan edo aurreragoan itxasoa barea dagoan tokian, bada olatuaren kolpeak bizitutzen dute odolaren korrimentua gorputzean eta bañua onela artutzen dana izan oi da gogorragoa eta geientzat bai eta obeagoa ere,

bañan denbora laburragoan egon bear du urtan olatu artean dagoanak, ez itxaso barean dagoanak bañan. Gorputz guzia urtan sartuta egotea, da ere ohea, zergatikan leku geiago danean itxasoko urak bere ondasuna zabaldutzeko, eta gañera gorputza dagoan guzia otz bero parekoan, eta ez gertatzen dan bezela gerritikan gorakoa eguzki beroak erretzen, eta gerriaz berakoa ur otzetan, gorputzeko zati batzuetara joaten dala beste batzuetara bañan odol asko geiago arraxku aundiarekin osasunarako, batez ere ume txikietan zeñen buruko ezurak egonik bigunak eta ongi osatu gabeak oraindik, gertatu liteke garunetako gaitz aundiak sortutzea esaten degun gauza au kontuan eduki gabez. Bañan beste zenbait jende odoltsu edo gizenak, eta gorputz astunekoak, baita ere eduki bear dute kontuan, olatuak aundiak eta asko diranean ez zaiotela konbeni aen kolpeak gorputz guziarekin artutzea, zergatik etorri leiozkean odol kolpe bat burura edo beste edozeiñ gorputzeko lekuetara, eta ohea dala berentzat itxas baztar inguruan eta olatuak ausitzen diran lekutikan aldamenerago artu beren bañua.

Bañua artu eta ondorenean gogoan eduki bear diran gauzen gañean esango degu lendabiziko, al duan aguroen kaxarnan sartutzea itxasotik irtetean,

dala aurrenengoa; eta bereala ongi legortutzea gorputza idurzi batzuek artuaz artarako daukan izara edo beste zapiarekin, modu onetan odolak korritu dezan indar geiagorekin zañetan; eta ume jende eta gorputz bigunekoak diranentzat, ona dala ere beste laguntzaille batek astindu txiki batzuek ematea gorputzean, legortutzen asi dan bitartean, bizitasun geiago odolak artu dezan. Bañuaren ondorenean da ere gauza ongarrria itxas baztarrean denbora pixka batean ibiltzen obetoago asnasea bete dediñ itxasoko aizeak berekin daukan gauza erremeditzalleaz, eta geroagoan zerbait jateko garbi nola dan salda edo arrautxatxo bat, bazkaitarako denbora ez bada iritxi artean. Ez dago esan bearrik zeñ gauza kaltegarria izango litzakean itxasotik irten ondoren bereala eguzki berotan egotea, bada sortu liteke onetatik buruko odol kolpe bat edo beste edozeñ gauza oker iñork gutxiena uste izan leikeana.

Azkenik bañuartzalleak ibilli batzuek egitea kanpoaizea artuaz eta ez oiean egotea berandu arteraño, eta jan eran garbiak artutzea geiegizkorik oetan egiñ gabe, izango dira bañuetatik bear diran ondasunak ateratzeko eduki bear diranak kontuan, zeñak emen

argitaratu eta ematen diogun bukaera gure liburuko amabigarren argibide oni.